

Zu hemen zaude.
goiena



Eusko Ikaskuntzaren mendeurrena
Mounir Bou-Ali fisikariari elkarrizketa

EUSKARALDIA

ahobizi



Debagoieneko *ahobizi* eta *belarriprest* batzuk, Elgetan, eguaztenean, Euskaraldiaren gaineko horma-irudiaren aurrean.

12.000 'AHOBIZI' ETA 'BELARRIPREST' EUSKARAREN ERABILERA INDARTZEKO ARIKETA SOZIALA HASTEKO GERTU



GEHIGARRIA ERDIKO ORRIETAN

XABIER URZELAI

Eusko Ikaskuntza sorlekura itzuliko da, mendeurreneko ekitaldiei amaiera ematera / 3



Bergarako baserrien eta abizenen gaineko bigarren liburua aurkeztuko du bihar Patxi Larrañagak / 33

Saskibaloiko epaileen jazarpenaz hausnartu dute elkarteetako ordezkariak eta epaileek / 38


SINADURAK	
 ANARTZ AGIRRE / 8	 AINHOA NEGERUELA / 30
 IBON ARRUPE / 10	 AINHOA NARBAIZA IRIZAR / 34
	 ELENA LAKA / 48



Audi Q2 berria

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



20 
euskaraz

FAGOR TALDEAK bat egiten du
EUSKARALDIArekin eta
BELARRIPREST edo **AHOBIZI** izatera
animatzen zaituztegu.

EUSKARALDIA

FAGOR 
ARRASATE

FAGOR 
FAGOR AUTOMATION

FAGOR 
Fagor Electrónica

FAGOR 
FAGOR INDUSTRIAL

 **COPRECI**

fagoredertaldea

 **MONDRAGON
ASSEMBLY**

 **galbaian**
Intellectual property



Bilbon egindako saioan parte hartu zutenak. EUSKO IKASKUNTZA

Mendeurrenean, sorlekura buelta

Ehun urteko ibilbidea egin ostean, sortu zen leku berera itzuliko da Eusko Ikaskuntza, Oñatira; 'Geroa Elkar-Ekin' Kongresuak bost saio izan ditu, Baionakoa, Gasteizkoa, Iruñekoa, Bilbokoa eta Donostiakoa, eta landutako guztia Oñatin borobilduko dute

Eneko Azurmendi OÑATI

1918an sortu zen Eusko Ikaskuntza, Oñatin. Aurten, beraz, 100 urte betetzen ari da erakundea, eta mendeurrena ospatzeko hainbat ekitaldi egin dituzte urtean zehar. Ekitaldi nagusia, ordea, azkenerako utzi dute, eta hori XVIII. Kongresua da, *Geroa Elkar-Ekin* leloa duena.

Kongresu horrek 2014an dauka abiapuntua, Eusko Ikaskuntzaren mendeurrenako eta XVIII. Kongresuko lehendakari Xabier Alkortaren esanetan: "Galdera bat zabaldu genuen bazkideen eta gainontzekoen artean: *Zeintzuk dira, zure iritziz, Euskal Herriak dituen erronka nagusiak, eta zeintzuk dira zuen lehentasunak?* Galdera hori aintzat hartuta, bost gai aukeratu genituen".

Bost gai horiek proiektu bilakatu ziren 2015ean, eta proiektu horietan jarri du fokua, hain

zuzen, XVIII. Kongresuak. Honako hauek dira bost proiektuak: *Nahi dugun gizartea, izango dugun gizartea; e5: Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen; Gizartea: aniztasuna eta kohesioa; Garapen sozio-ekonomikoa; eta Gobernantza demokratikoa.*

Bost saio, bost hiriburu

Udazkenean egin dituzte kongresuko bost saioak, eta saio bakoitzean proiektu bat izan dute hizpide. Lehena urriaren 5ean egin zuten, Baionan, eta lehenengo proiektuaren inguruan

EUSKO IKASKUNTZAK HASIERATIK GARBI ZEUKAN KONGRESUKO AZKEN SAIOA OÑATIN IZAN BEHAR ZELA

aritu ziren. "Munduan gertatzen diren aldaketen aurrean, zein da gure irakurketa? Zer egin dezakegu horiei aurre egiteko Euskal Herrian? Horri erantzuten saiatu ginen", dio Alkortak.

Bigarren saioa Gasteizen egin zuten, urriaren 19an, euskara ardatz hartuta. "Zeintzuk dira euskal komunitateak dituen aktiboak eta baliabideak, eta zein egoeratan egongo dira erreferentzia moduan jarri genuen 2040an? Euskararen garapena sustatzea da helburua".

Gizartearen aniztasunaren eta kohesioaren gaineko saioa izan zen urriaren 26an Iruñean eginikoa. "Gizarte anitz honetan kohesionatu beharreko gaiez eta elementuez aritu ginen".

Bilboko saioan, azaroaren 9an, garapen sozioekonomikoari buruz aritu ziren, "ongizateari eta ezberdintasunari buruz".

Urteurrenako ekitaldien egitaraua

Azaroak 23, egubakoitza:

- **09:30-10:00** Dokumentazioaren banaketa.
- **10:00-10:15** XVIII. Kongresuko itxiera saioaren irekiera.
- **10:00-11:15** Kongresuko ondorioen eta esperientziaren kontaketa, prozesuan parte hartu duten gazteen eskutik.
- **11:00-13:00** XXI. mendeko Euskal Herrirako etorkizuneko erronken aurkezpena.
- **13:00-13:30** Kongresuaren amaiera ekitaldia.
- **14:00-15:30** Bazkaria.
- **15:30-17:30** Oñatiko monumentu multzora bisita gidatua.
- **18:00-19:15** Antzerkia: *Hamaika amaren seme (alaba)*.

Azaroak 24, zapatua:

- **11:00-11:30** Agintariei, bazkideei eta herritarrei ongietorria Oñatiko plazan.
- **11:30-12:00** Agintariak eta Oñatzeko dantzariak, soka dantza.
- **12:00-13:15** Ekitaldi ofiziala San Migel parrokiaren. Donostiako Orfeoak eta Gontzal Mendibilek parte hartuko dute.
- **13:15-13:30** Arizkongo Dantza Taldearen emanaldia.
- **14:00-16:30** Bazkaria.
- **18:30-19:45** Antzerkia: *Hamaika amaren seme (alaba)*.

Azken saioa Donostian egin zuten, azaroaren 16an, eta lurralde arteko gobernantza-eredu berri batean oinarritutako egitura soziopolitikoak izan zuten hizketagai. "Espainiako eta Frantziako estatuetako barruko demokraziari buruz eta erabakitze eskubideari buruz aritu ginen, besteak beste".

Oñatin borobildu

Aipaturiko bost saioetan egindako lana, jasotako ekarpenak eta ateratako ondorioak Oñatin gaur egingo duten itxiera saioan borobilduko dituzte. "Hasieratik garbi ikusi genuen mendeurrenaren kongresua izanda, Oñatin bukatu behar genuela".

Hala, aurreko saioetan izandako bozeramaileak eta hizlariak batuko dira, eta ateratako ondorioen berri emango dute, kongresura gerturatutako proposamenak egiteko bide emanaz. "Saiatu gara aztertzen gai bakoitzaren inguruan diagnostik haratago zein elementu dauden partekatuta eta zeintzuk ez. Horrez gain, errealitateak irudikatu gura izan ditugu bost gai horien inguruan, eta bideak markatzen dituen mugarriak jarri", dio Alkortak.

SOKA DANTZA EGINGO DUTE BIHAR, DUELA 100 URTEKO DANTZA HURA IRUDIKATZEKO HELBURUAREKIN

Aurrera begirako erronkak

Etorkizuneko erronkez ere arituko dira gaurko saioan. "Eusko Ikaskuntza etorkizunari begira sortu zen, eta, zorionez, helburu eta amets moduan planteatu ziren zenbait ideia gauzatuta daude gaur egun. Orain ere etorkizunari begira gaude, eta ireki dugun bide honek jarraipen bat izango du. Lehen aipatutako bost ideietako batzuk bikoiztu egiten dira eta, guztira, hamahiru lerro ditugu. Aukeraketa lana egin beharko dugu, eta aukeraturako gai horiekin parte-hartze prozesuarekin jarraitu. Kohesioa, elkarlana eta agenda partekatuta bat da gure helburua, herri guztien egitasmo bat".

Ospakizun ekitaldiak

Azpinarratzeko ekintzen artean, batetik, *Hamaika amaren seme (alaba)* antzezlanak dago. Santa Ana antzokian izango da, gaur kongresu-kideei zuzenduta eta bihar herritarrentzako.

Bestetik, Oñatz dantza taldekoek zenbait agintarirekin egingo duten soka dantza ere nabarmenezkoa da. 1918an agintariek eginiko dantza hura irudikatu gura dute horrekin. Arizkongo dantza taldeak ere parte hartu zuen orduko hartan. Hori dela eta, bihar, dantza saioa eskainiko dute plazan.

Azkenik, ekitaldi ofiziala dago. Donostiako orfeoak hainbat pieza eskainiko ditu, eta Gontzal Mendibilek ere kantu bat joko du parrokiako ekitaldian.

'Eee!ntzun' proiektua Arrasaten hasiko da

Eskola kirolaren balioak goraiatzeko helburu duen proiektuak Arrasaten egingo du lehen geldialdia, bihar, azaroak 24, Biteri plazan, 12:00etan. Bertan izango dira Imanol Agirretxe, Xabi Prieto eta 'Goazen' telesaileko aktoreak, besteak beste


Jokin Etxebarria DEBAGOIENA

Arrasate aukeratu du Gipuzkoako Foru Aldundiak *Eee!ntzun* proiektuaren lehen ekitaldia egiteko. Bihar izango da, azaroak 24, zapatua, Biteri plazan, 12:00etan, eta bertan izango dira, besteak beste, Imanol Agirretxe eta Xabi Prieto Realeko futbolari ohiak, Malen Ruiz de Azua pertika jauzilaria eta ETBko *Goazen* telesaileko protagonistetako batzuk.

Eee!ntzun proiektua 2017-2018 ikasturtean jarri zuen martxan Aldundiak, eta eskola kiroleko balioak goraiatzeko du helburu. Lehiakortasun hutsetik ihes eginda, familia eta bestelako ikusleen arreta bereganatu nahi du, haurrek eskola kirolaz disfrutatzeko duten eskubidea mahai gainean jarrita. Ikasturte berri honetan, proiektu bera bultzatzen jarraitu nahi du Foru Aldundiak, eta, horretarako, ekitaldi batzuk antolatuko dituzte Gipuzkoako hainbat herritan. Horietatik lehena Arrasate izango da eta 600-700 neska-mutil batzea espero dute. Gero etorriko dira Eibar, Tolosa, Irun, eta abar.

Zeelanda Berriko 'haka'

Kirol instalazioetako harmailetan izan ohi diren oldarkortasun



Imanol Agirretxe *haka* egiten. ARTXIBOA

eta indarkeria gertaerei aurre egiteko nahiarekin jaio zen, egoera horietan gehien sufritzen dutenak haurrak baitira. Ekinaren asmoa da eskola kirolean parte hartzen duten haur eta gaztetxoak protagonista bihurtzea.

Eta, hain zuzen, Zeelanda Berriko errugbi selekzioak ezagun egin zuen dantza hartu zuten ardatz: *haka*. Dantza horrekin, kontrarioari aurre egiteko prest daudela erakutsi nahi izaten dute. *Eee!ntzun* proiekturako *Goazen* telesaileko protagonistek

prestatu zuten dantza berezia eta bideoklipean Gipuzkoako kirolari ezagunenak hartu zuten parte.

Zapatuan, *haka* hori dantzatu dute Arrasateko Biteri plazan, bideoko protagonistetako batzuekin, hasiera ekitaldian Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak eta Denis Itxaso Foru Aldundiko Kiroletako diputatuak egingo duten hizketaldiaren ondoren. Ekitaldia amaitutakoan, dantza parte hartu duten haur guztiei oroigarri bat banatuko diete.



Romero eta Iriarte, Isaias Carrascori martxoan egin zitzaion omenaldian. ARTXIBOA

Isaias Carrasco udaletxeko areto nagusian omenduko dute bihar

Omenaldia irekia izango da herritar guztientzat eta musikaz lagundurik zinegotzi ohia oroituko dute

J.E. DEBAGOIENA

Martxoan bete ziren 10 urte ETAK Arrasateko zinegotzi ohi Isaias Carrasco erail zuela. Azaroaren 8an, Arrasateko udaletxeko osoko bilkuren aretoan egin zuten agerraldi bateratu batean, udalbatza osatzen duten alderdi politiko guztiek Isaias Carrascoren omenaldian parte hartuko dutela adierazi zuten. Omenaldia bihar izango da, azaroak 24, arratsaldeko seietan, udaletxeko areto nagusian.

Herritar guztiei irekitako omenaldi xumea izango dela jakinarazi dute; musikaz lagundurik, familiarrek eta Udaleko ordezkariak euren hitzekin Carrasco oroituko dute.

Lehen pausoa

Arrasateko San Andres auzoko Navas de Tolosa kalean 2008ko martxoaren 7an hil zuen ETAK zinegotzi sozialista izandakoa,

eta leku hartan egin zioten omenaldia, hamargarren aldiz, pasa den martxoan. Orduan, EH Bilduko nazional mailako ordezkariak egon ziren bertan; ez, ordea, herriko ordezkariak. Arrasateko Udaleko Memoriaren eta Bizikidetzaren Mahaiaren barruan sukalde lan handia egin eta gero, herriko alderdi politiko guztiek, baita EH Bilduk ere, adostu zuten omenaldian parte hartu beharra zeukatela. Memoriaren eta bizikidetzaren alde eman beharreko aurrerapausoetan lehena izango da bihar Carrascori egingo zaion omenaldia.

Horren ondoren, Iñaki Etxaberi eta German Agirrerri egingo zaion aitortza etorriko da. Bestalde, sakabanaketa politikak sortu duen sufrimendua aintzat hartzeko, urte amaiera baino lehen ezagutzera emango den proposamen konkretu bat lantzen ari dira Udalean.

53. DURANGOKO AZOKA


2018ko abenduaren 5etik 9ra

DA!


ASKO DIRA

www.durangokoazoka.eus


ANTOLATZALEA




BARRILE NAGUSIAK



ERAKUNDE PUBLIKOAK



ERAKUNDE PRIVATUAK





Egubakoitz goizero Arrasateko Garaia Parke Teknologikoan egiten den batzar batean. UNAI ETXEBESTE

BNI Aukera-ren gaurko batzarra Bergaran da

BNI Aukera Debagoiena-k lehenengo urteurrena bete zuen irailaren 29an. Urte honetan, lantaldeak 921 erreferentzia sortu ditu; hau da, 921 negozio aukera lantaldeko kideentzat, eta horrek 1.024.245 euroko negozioa ekarri du

Amaia Zabala DEBAGOIENA

Business Network International da BNI siglek esan gura dutena; hau da, Negozioetarako Nazioarteko Sarea; eta Debagoieneko taldean, negozio eta enpresa askotariko 25 lagun inguru dabilta elkarlanean, zeinak egubakoitzero elkartzen diren, Arrasaten, 06:45ean. "Networking batekin hasten dugu saioa eta

elkarrekin kafea hartzen dugu; ondoren, 07:00etan, batzarra hasten dugu. Ordubeteko saioa izaten da eta atal honetan, besteak beste, kide bakoitzak minutuko aurkezpen bat egiten du, zer eskaintzen duen eta gainontzeko kideei nola lagundu diezaiekeen azalduz", azaldu du Idurre Albizuk, BNI Aukerako zuzendariak. Gaineratu du bigarren erronda

batean lantaldeko kide bakoitzak beste kideengatik aste horretan zer egin duen azaldu behar duela; izan ere, BNIren lan sistemen oinarrian dagoen filosofia *givers gain* delakoa da. Hau da, norberak besteei ekarpenak egitea, eta alderantziz. Batzarra amaitzean, guztiak elkarrekin gosaltzera joaten dira, 09:00etarako bakoitza bere lanpostura

iritsi dadin. "Aukera sinplea eta eraginkorra da, asteroko batzarren bidez elkar ezagutu eta elkarrekin lan egiteko aukerak bilatzeko", dio BNI Aukerako zuzendariak.

Parte hartzeko gonbita

Esan bezala, Arrasateko Garaia Parke Teknologikoan egin ohi dute asteroko batzarra, baina gaur Bergaran, Agorrosin Ekin-tza Gunean, egingo dute. "Gure asteroko ohiko bilera izango da, baina egubakoitz honetan Bergaran egingo dugu, jende gehiago hurbiltzeko eta ezagutzera emateko helburuarekin, gainera, ez dugu baztertzen aurrerantzean Debagoieneko beste herrietan ere egitea", argitu du Unai Etxebeste, BNI Aukerako kideak.

Gaineratu du edonor izan daitekeela parte eta inongo konpromisorik gabe gerturatu daitekeela lantaldearen funtzionamendua gertutik ezagutzera. "Enpresa handi edo txikiak ordezkariek zein autonomoak, izan daitezke, abokatuak, higiezin agentzietako eta beste hainbat zerbitzutako langileak eta metalurgia enpresetako ordezkariek ditugu lantaldean une honetan. Hori bai, garrantzitsua da aktibitate bakoitzetik ordez-kari bakarra izatea, batzarretan enpresa ezberdinen artean harreman sare indartsuak sortzea baita helburua", dio Roberto Maiztegik, BNI Aukera Debagoiena-ko lehendakariak.

Bestalde, argitu dute ez dagoela enpresako nagusi izan beharrik BNI Aukerako kide izateko; hain zuzen, langile izan eta enpresako ordezkariek moduan joatearekin nahikoa dela. Batzarretara joateko interesa izanez gero, jakinarazi egin behar

da, bniaukera@gmail.com helbidera mezu bat bidaliz edo 699 49 52 49 telefonora deituz.

Mundu mailako ekimena

BNI ekimenak 8.000 lantalde eta 200.000 kideetik gora ditu munduko 70 herrialdetan eta BNIko kideek 9 milioi erreferentzia eta 10.500 milioi eurotik gora sortu zituzten euren enpresentzat mundu osoan zehar, Debagoieneko BNIren esanetan.

Espainiako Estatuaren kasuan, 2018ko datuen arabera, BNI España erakundeak 119 lantalde eta 3.215 kide aktibo ditu eta azken hamabi hilabeteetan BNI España CNMko kideek 199.113 erreferentzia sortu dituzte, dagozkien enpresentzat 268.344 euroko balioarekin negozio itxian.

Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, hamabi taldetan banatutako 350 taldekide ditu BNIk. Horregatik guztiagatik, BNI Aukera Debagoiena-ko kideek azpimarratu dute enpresa sare honi esker ehunka enpresa elkarrekin harremanetan jartzen direla, "eta ez Debagoienean eta Euskadin soilik", nazioarteko merkatuetan ere bai. "Esaterako, gure taldeko kide diren pertsona batzuek munduan zehar daukaten sare hau aprobetxatzen dute lan bidaietan joaten diren herrialdeetan dauden BNI taldeekin harremanetan jarri eta elkarlana areagotzeko eta, horrela, mundu osoko enpresek harremanak egiteko", dio Idurre Albizuk, BNI Aukerako zuzendariak.

BNI EKIMENAK 8.000 LANTALDE ETA 20.000 KIDETIK GORA DITU MUNDUKO 70 HERRIALDETAN

235.269 euroko laguntza Oñatiko Larraña harrera etxeari

Jaurlaritzak CEAR Euskadiri esleitu dio diru-laguntza, harrera etxean dauden migratzaileei arreta emateko

Amaia Zabala OÑATI

"Oñatiko Larraña harrera etxea martxan jartzeko behar dugun aurrekontu osoa da diru hau, eta beharrezko tresnak erosteko, langileei ordaintzeko eta ohiko gastuetarako bideratuko da;

segurtasun eta mantentze gastuak, esaterako", azaldu du Patricia Barcenak, CEAR Euskadiko zuzendariak.

Gaineratu du une honetan asilo eskaera egin duten hirurogeita hamar etorkin daudela

Larrañan, baina "behin eraikina guztiz egokitzean" ehun lagun artatzeko gaitasuna izango duela harrera etxeak. Bertako egonaldia hiru hilabetekoa da, nahiz eta irizpide teknikoaren arabera hura laburtu edo luza daitekeen.

Barcenak azpimarratu du "istorio gogorrek bizi izan dituzten pertsonak" etorriko direla Oñatira babes eske, euren jaioterrian jazarpena pairatu dutenak, eta ihes egitea lortu dutenak, hain zuzen.



Oñatiko Larraña harrera etxea. OIHANA ELORTZA

Elikagaien urteko bilketa, beharra dutenentzat

Azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean, elikagaien urteko bilketa handia egingo dute eta Bergarako Elikagaien Bankuak boluntarioak behar ditu; izena emateko, 943 76 21 90 telefonora deitu edo 'bergara@bancoalimentosgipuzkoa.org' helbidera idatzi behar da

Amaia Zabala BERGARA

"Urte sasoi honetan egiten dugu beti bilketa handi hau, eta urteko garrantzitsuena izaten da, gure biltegiak janariz gehien hornitzen dituen, hain zuzen", dio Jose Antonio Agirrebeñak, Bergarako Elikagai Bankuko arduradunak. Gipuzkoan 82 dendatan egingo dute bilketa, eta, horietatik, 40ren kudeaketaz Bergarako Elikagai Bankua arduratuko da, Goierri, Debagoiena, Debabarrena, Urola Garaia eta Urola Kosta eskualdeetako bilketez, hain zuzen; eta, jakina, boluntarioak deitu dituzte.

Gipuzkoako 82 saltokitan

Gipuzkoako 42 udalerritan egingo da bilketa eta horietatik sei Debagoienekoak dira: Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eskoriatza eta Oñati, hain zuzen. Eskualdean bilketa egingo duten saltokiak honako hauek dira: Eroski, BM, Carrefour, Dia, El Corte Ingles, Lidl eta Super Amara.

Aurten ere, iaz bezala, laguntza emateko bi modu egongo dira: janaria zuzenean bilketez kaxetan utziz edo gero eta indar gehiago hartzen ari den eta eros-

ketak ordaintzeko kutxan eska daitezken diru-laguntza bonuen bitartez. "Bonu hauek oso garrantzitsuak dira guretzat; izan ere, esnea bezalako elikagaiak oso epe laburra dute eta berehala banatu behar ditugu. Aldiz, diru-laguntza bonuen bitartez, beharrezkoa dugunean erosi eta banatzen ditugu", gaineratu du Agirrebeñak.

Asteartean Donostiako Londres Hotelean emandako prentsaurrekoan jakinarazi zuten, aurtengo elikagai bilketez irudia Donostiako Delteco GBC saskibaloi taldea izango da.

Bildutako elikagaien prozesua

"Bi egun hauetan bildutako elikagaiak edukiontzietan iristen dira biltegiara eta boluntarioak hauek sailkatzeaz eta inbentarioa egiteaz arduratzen dira. Ondoren, urte osoan zehar, herri bakoitzeko arduradunek biltegiara hurbildu eta janari premia dutenei banatzen dizkiete", argitu du Bergarako biltegiako arduradunak.

2017an, esaterako, Gipuzkoan, 2.500 tona elikagai baino gehiago banatu zituzten; dena den, arduradunek jakinarazi dute

urtez urte elikagaien eskaera egiten dutenen kopurua jaisten ari dela eta, ondorioz, onuradun bakoitzak jaso duen elikagai kopurua igo egin dela: 130 kilo, batez beste, Europako bankuen gehiengoaren gainetik. Gipuzkoako Elikagaien Bankuak egunerokotasunean 216 eta kanpainetan 1.750 laguntzaile ditu.

Jostailu bilketa, 201 haurren ametsa betetzeko helburuarekin

Debagoieneko Gurutze Gorriak herritarren parte hartzea eskatu du Gabonetarako jostailu berriak biltzeko

Amaia Zabala DEBAGOIENA

Jostailua haurren garapenerako beharrezkoa den elementu bat izan arren, gaur egun, tamalez, ez dago haur guztien esku. Horren ondorioz, gurutze legez, Debagoieneko Gurutze Gorriak Jostailu Hezitzaila kanpaina jarri du martxan, eta aurten, bailarako 201 haurren eskaera jaso dute.

Iaz, esate baterako, Debagoieneko Gurutze Gorriari esker, eskualdeko 256 haurrek izan zuten jostailu bat opari Gabon garaian.

Nola lagundu?

Laguntzeko bi modu daude: batetik, azaroaren 24an eta abenduaren 7an, 14an eta 15ean, Arrasateko Eroskin, gizarte bazterkeria arriskuan egon daitezkeen Debagoieneko 0 eta 12 urte bitarteko haurrentzat jostailuak jaso eta *jostailu txeeak* erosteko aukera izango da. Bestetik, Laboral Kutxaren ES22 3035 0001 51 0010018156 kontu korrontean nahi den adinako ekarpen ekonomikoa eginez ere lagundu daiteke, *Jostailu hezitzaila* kontzeptua jarrita.



Arrasateko Eroski hipermerkatuan, iazko janari bilketan. GOIENA

berria denda

Osatu Gabonetako saskia Euskal Herriko produktuekin

REMELLURI ARDOAK 2010. urteko ERRESERBAKO ardoa 52€ 3 botaila kutxa 96€ 6 botaila kutxa	SOLAGÜEN ARDOAK Manuel Quintano buria 2017 54€ 6 botaila kutxa 2015. urteko ardo ONDUA 45€ 6 botaila kutxa	LEZAUN ARDOAK 2017. urteko Lezaun QJD sutfilo (2017ko Zinemako Eroskin - Eroski) 28€ 6 botaila kutxa 2016. urteko Lezaun Gazaga (2016ko Zinemako Eroski - Eroski) 40€ 6 botaila kutxa
PEDRO LUIS KONTSERBAK ZAINZURIAK Zainzuria, 8/12 urte 38€ 6 poto TOMATEA Tomate, 100g/150g/200g 12€ 6 poto	BRUT NATURE MAINEGRA MENDABIARDO CAVA MANATE MATE 180 cl eta 1,20 litrokoa, 1,10 litrokoa LAUREN DUELA 180 cl eta 1,20 litrokoa 44€ 6 botaila kutxa	ITURRI KONTSERBAK ZAINZURIAK Zainzuria, 12/16 urte 24€ 3 poto ESPINAGU BLANCO EXTRA 13-18 Mkg/200g
MAHALA SORTA Mahala sorta, 200g Mahala sorta, 100g Eroski sorta, 100g Bih parte, 100g Super dufina, 100g Mahala solomua, 200g 34€ Kutxa	ALFAR OLIOA Oliba olio birjina extra 75cl/100cl/botaila 43€ 6 botaila kutxa	URDETXE BASATXERRI BESO ONDUA (PALETA) 6 kilo inguruko besa ondua, 1000g/1000g/1000g/1000g 20 haitzokiko ondua (1000g/1000g) 65€ Palleta

Osatu zure saskia!

Bidalketa gastuak **DOAN**

(0034) 943-30 43 45 • Berria.eus/berrialaguna/denda/

HANDIK ETA HEMENDIK

Ez gara**ONINTZA ENBEITA**

[HTTPS://LABUR.EUS/N5B0I](https://labur.eus/N5B0I)
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Erosketa gune erraldoien aldeko apustua garbia da. Erraz birkalifikatzen da zorua halakoak eraikitzeko: marka handietako supermerkatu erraldoiak, arropa marka handien sukurtsalak, janari azkarra eskaintzen duten txiringitoak, eta akaso, zinema aretoren bat.

Herrietako sarrera-irteeretan edo hiri gune handietan kokatzen dira gehienbat, eta bertara joatea erraza da.

Hiri erdian daudenean, garraio publikoa dago bertaraino, eta urrunago daudenean doako aparkalekua daukate. Beste aukerarik ez balego bezala saldu diguten bizimodu eredu honetarako erraztasun

handiak eskaintzen dituzte: erosketa saskia zuzenean autoraino eramateko aukera, behar dugun guztia leku bakarrean erostearen abantailak, umeak isilik egon daitezen goxokiak eta mugitzen diren hainbat gailu dituzte (denak ordaindu behar dira, jakina), behar omen dugun arropa ere bertan dago...

Horregatik, sutu egin nau Bizkaiko Foru Aldundiaren kanpaina berriak. Supermerkatu erraldoiei alfonbra gorria jarrita, bertako ekoizle eta saltzaileak ia akabatu egin dira, eta orain, komertzio txikiaren aldeko kanpaina abiatu dute. *Bagara ala ez gara*, dio iragarkiak. Bada ez, ez gara. Komertzio txikiak, bertako ekoizleak zein saltzaileak, ez dira instituzioen lehentasuna. Ezta erosleak ere. Bestela, ez genuke daukagun panorama izango.

Gero eta gehiago**JAUME GELABERT**

[HTTPS://LABUR.EUS/SUR71](https://labur.eus/SUR71)
'BERRIA'-N ARGITARATUA

"Gero eta euskara gehiago aditzen da Iruñeko karrketan".

Poztu nintzen solaskideek hartua nuen pertzepzioa berretsi zidatenean afalosteko solasaldian.

Aitortu behar dut ez Sakanako lagunak ez ni ez garela soziolinguistikan adituak auskalo garunaren zein eremutan dagoen graduondokoan aspaldi jasotako informazioa, beraiek gutxitan etortzen zaizkigula bisitan Hiri Buruzagira, nahiz eta azken bi urteotan nahi baino gehiago Iruñerako bidea hartu behar izan, eta hirurok berez baikorrak garela. Nolanahi den ere, baieztapena frogatzeko zenbakizko daturik ez genuen arren, bat etorri

ginen hiru afaltiarrok gainerakoak biharamuneko finalaz ari ziren beste muturrean epaia emateko orduan: "Bai, gero eta euskara gehiago aditzen da Iruñeko karrketan, eta iruindarrei euskaraz entzuteak plazer handia sortzen digu".

Seguru nago Euskaraldiaren eraginez plazera biderkatuko zaigula ostiraletik aurrera.

Gero eta euskara gehiago aditzen da Aiegiko karrketan.

Lehenengo proposizioa eskuan datu zehatzik izan gabe egitea ekintza ausarta bada ere, are ausartuagoa litzateke bigarren hau aditzera ematea, behin baino ez bainaiz izan Lizarraldeko herrian. Hala ere, edozein *tertuliano*ren modura, behar izatera sutsu defendatuko nuke baieztapena, benetan pentsatzen baitut, agian baikortasunak bultzatuta,

lehen baino euskaldun gehiago dagoela Aiegin. Horregatik ezin dut ulertu zergatik bozkatu duten bertako biztanle batzuek beren herrikideen hizkuntza eskubideen aurka, eremu ez-euskaldunetik eremu mistora pasatzeko aukerari uko eginda.

Benetan trabarrik jarri nahi ote diote eskolan euskaraz ikasteko aukerari?

Administrazioarekin harremanak bertako bi hizkuntzetan izateko aukera inposizioa al da?

Angel Erroren artikuluek gogoeta egitea, Berri Txarrak-en kanten letrak abestea, Santi Leoneren umore finaz barre egitea edota Castillo Suarezen olerki emanaldietan hunkitzea kaltegarria ote da?

Post gehiago 8. orrialdean.

Amodio-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna



ZABALIK

ANARTZ AGIRRE

Vignemalen elkartuko gaittuk!

"Hi, Lasku! Oinguan be, boterik ipini barik egin dok alde! Gero ez hadi etorri Ron Santa Teresa Kas Naranjakin edo beste konbinatu arraroren bat nahi dozula esanaz...".

Egia esan, 2014ko abuztuan alde egin zuen Laskuk, Vignemaleko tontorrera bidean betiko galdu zenean. Okzitaniako Tolosako ospitalean ikusi genuen lehendabizi, Donostian ondoren, Arrasaten gero eta Zumarragan azkenik, baina gupil aukian kieto zegoen hura ez zen Lasku.

Gorputzez bai, baina haren arima Vignemalen gelditu zen betiko.

Nerabe ginela elkartu zinen gure kuadrillara. Begiak itxi eta patillak perfektu moztuta eta Loquilloren tankerako tupe antzeko batekin ikusten zaitut Pol-Pol kanpoan elkartzen ginen taldetxora batuta.

Gogoan ditut, oraindik, Fiat Punto beltzean egiten genituen

GOGOAN DUZU LAINOA SARTU ETA PORTILLOIN BUELTA EMAN BEHAR IZAN GENUENeko HURA?

irteeratxoak Kashbaden lehen kaseta entzunez; "Beti nahi izan dut aske bizitzea, nire hegala zabaldu eta hegan joatea, ez nago isolaturik, bakarrik habiatik noa...".

Bateko kontzerturen batera, besteko ez dakit zer

DJ entzutera, sagardotegira, Baskonia animatzera edo Conilera oporretan. Tipo polifazetikoa zinen, artista...

Kirolerako ere abila. Duatloi, triatloi, mendi-lasterketa, maratoi... beti antxintxika. Mendiak erakartzen zintuen aspaldion, eta eskiak jantzita izanez gero, are eta hobeto. Aneto ere pendiente gelditu zaigu, Lasku. Gogoan duzu lainoa sartu eta Portilloin buelta eman behar izan genueneko hura?

Hala ere, beti izango ditugu San Lorentzo, hain gustuko zenuen mendia, eta Vignemale. Betirako eraman zintuen Vignemale. Ez diot gorrotorik Vignemaleri, zure istripua gertatu zenetik begi ezberdinez begiratzen diodan arren: nola gorrotatu hain ederra den tontor hori.

Mendiko botekin edo eskiekin, baina zin dagit joango garela kuadrillakook Vignemalera eta hango tontorrean topa egingo dugula Ron Santa Teresa Kas Naranjarekin eta behingoagatik barkatuko dizugula boterik jarri ez izana...

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Batzeko ariketa

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN

HTTPS://LABUR.EUS/LUKKF

'BERRIA' -N ARGITARATUA

Teresa del Valle antropologoak Korrika euskararen aldeko ekintza sinboliko garrantzitsua zela azpimarratu zuen 1988an argitaraturiko *Korrika: rituales de la lengua en el espacio* lanean (Korrika: hizkuntzaren erritualak espazioan). Tartean, nabarmendu zuen euskararen alde egiteko ez ezik lurraldetasuna markatzeko ere balio zuela 1980ko hamarkadan sorturiko herri ekimenak. Izan ere, lasterketa beraren pean Euskal Herriko zazpi probintzietan zehar

egiten zuten (eta dute) korrika milaka herritarrek, eta ibilbideak herriari forma ematen dio. [...]

Ezberdina izanagatik, antzeko pentsamendu bat sortu dit Euskaraldiak: Euskal Herriko txoko askotan ikusteak kanpainak, eta, berteak berte, haren webgunean dagoen mapari begiratzeak. Erakusten baitu, herriz herri, non parte hartuko dugun ariketa sozial erraldoi horretan: koloretako puntuak ikus daitezke Zuberoako, Arabako, Nafarroa Garaiko, Baxenabarreko, Lapurdiko, Bizkaiko eta Gipuzkoako txoko askotan. Eta, beraz, *ahobizi* eta *belarriprest* txapak berdin

erabili ahal izango ditugu Portugaleten, Tuteran, Maulen eta Azpeitian.

Pentsamendu eta sentimendu bera sorrarazi dizkit Euskaraldiaren leloak ere: *Batu egingo gaitu*. Batuko gaituelako, euskaraz umetatik dakigunak eta beranduago ikasi dutenak, hango eta hemengoak, hitz egin zein ulertu bakarrik egiten dutenak. [...]

11 egunerako prestatu dute esperimendua, baina ohiturak aldatzeko esperantzarekin. Ederra litzateke, euskara ahoratzeko bakarrik ez, elkarrekin aritzeko ere hartuko bagenu ohitura.

Post gehiago 7. orrialdean.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goiztz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa
arduraduna Igone Osinaga.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Poltsa bakoitza da garrasi isil bat injustiziaren aurrean"

EGOITZ ZABALA AITA MENNI OSPITALEKO ELKARTASUN PROIEKTUEN ARDURADUNA

Eneko Azkarate ARRASATE

Zaporeak gobernu kanpoko erakundeak 35 udalerritan abiatu du kanpaina bat, Grezian dauden Siriako errefuxiatuendako arropak jasotzeko. Debagoienean, Aita Mennin jaso dituzte.

Duela urte bi Siriako errefuxiatuak Europara heltzen hasi zirenean, elkartasun uholdea sortu zen han eta hemen, eta Aita Mennin 18.000 kilo arropa batu zituzten.

Orduan, guk geuk bakarrik egin genuen. Orain, Zaporeak elkartearen bitartez. Euskal Herri mailan egin da eta 35 herritan ari gara batzen. Duela urte bi negua zen, urtarrila, Grezia elurretan zen... Jende asko etorri zen arropak ekartzera.

Zenbat jaso duzue oraingoan?

Ez dugu zenbaketarik egin oraindik –eguen goizean egin da elkarrizketa–, baina jende asko etorri da, guk uste genuena baino askoz gehiago; akaso, bikoitza. Gainditu egin ditugu aurreikuspenak. Benetan itzela izan da



Egoitz Zabala, Aita Mennin ospitaleko elkartasun proiektuen arduraduna, jantzi zuri batean, arropak jaso dituztenak erakusten. XABIER URZELAI

erantzuna. Hona propio etorri egin behar da jendea, ez gaude herri baten erdian.

Zein arropa klase batu duzue?

Zaporeak elkarteak boluntarioak Grezian izan ziren duela hilabete batzuk

eta ikusi zituzten biltegiak hutsik. Eta negua datorrenez, gizonezkoendako, emakumezkoendako eta umeendako neguko arropak jaso ditugu.

Ze jende mota etorri da?

Denetik, estilo ezberdinekoa, eta toki ezberdinetatik, ez bakarrik Arrasate, baita Eibar, Bergara, Antzuola edo Aramaiotik ere. Horrelako kanpainak batu egiten gaituzte. Polita da jendearekin egotea, ze eskertu egiten du horrelako kanpainak antolatzea. Poltsa bakoitza da garrasi isil moduko bat injustizia honen aurrean.

Duela bi urte, egoera dramatikoagoa zen?

Ez nuke esango. Gertatzen da hedabideen agendaren erdi-erdian izan zela gaia. Orain, gaia ahaztuta dagoela ematen du, badirudi Sirian ez dagoela gerrarik, ezta siriar errefuxiatu ere. Baina arazoa hor dago eta arropa biltegiak ez ezik elikagaiak ere hutsik daude.

Noiz eroango duzue arropa eta zein toki zehaztutara bidaliko da? Badakizue?

Zaporeak elkarteak eroango du arropa kamioi batean Donostiara. Badakigu han goraino dabilzala lanez, ze erantzuna Euskal Herri osoan, beti bezala, sekulakoa izan da. Azaroaren 26an eta 27an Greziarantz aterako dira, negua heldu aurretik arropak bertan izan ditzaten. Orain arroparekin egin dugun bezala, aurrerago elikagaien kanpaina egingo dugu.

HAU BE BADOGU!

#53DA traola indarrarekin dator



Durangoko Azokaren aurkezpen ofiziala egin dute aste honetan, eta dagoeneko hainbat eta hainbat erabiltzaile hasi dira #53DA eta #DAaskodira traolak erabiltzen:

@gerediaga: "Orain hutsik dagoena, laster erakusleizoz eta jendez beteta ikusiko dugu. Desiatzen #53DA heltzeko!"

Euskaraldia, 'trending topic' aste osoan

Gaur abiatu da hamaika egunetan egingo den ariketa soziala, baina aste osoan zehar #euskaraldia, #ahobizi eta #belarriprest traolak aipatuenetakoak izan dira:

@enekuttun: "Badakit txapa batek ez zaituela euskaldunago egingo, baina ez dakizu ze poza emango didan zuri txaparekin ikusteak, euskararen unibertsoan zaudenaren seinale baita! Animatu! #Euskaraldia".

ITURRI ONETIK

Aralarren edertasuna iruditan

Aralar, mundua leku den lurra dokumental estreinatu berria apurka-apurka erakusten ari dira herririk herri eta abenduaren 11n Antzuolara helduko da. Egileek, gainera, Besaide mendi elkartearen eskutik Arrasatera ere eroan nahi dute. Aralarren egiten dabilzan baso-pisten gaia jorratzen dute, besteak beste, eta Besaideko inguruarekin, pistekin eta bestelakoekin gertatzen ari den azaleratu nahiko luke Mondragoeko mendi elkarteak dokumentalarekin eta osteko mahai-inguruarekin.

ALBISTE IZAN ZEN



2013-11-16

Oñatiko Zuazola Institutuak 50 urte bete zituen

Duela bost urte bete zituen Oñatiko Zuazola Institutuak 50 urte, eta urteurrena ospatzeko ekitaldian elkartu ziren urte askotariko ikasle, irakasle eta gurasoak, erakundeetako ordezkariekin batera. Urte askoan zuzendari izandako Malen Imazek adierazi zuen oñatiarrendako "izugarritzko aukera" izan zela "batxilergoa herrian ikasi ahal izatea". 1963-1964 ikasturteko irakasle Elena Valbuena eta Juan Jose Iraola omendu zituzten ekitaldian.

ZUZENKETA

2014ko Behobia-Donostian laugarren postua lortu zuen Ritxar Fernadez oñatiarak; debagoiendar batek lasterketa ospetsu horretan inoiz lortu duen sailkapen eta denborarik onena (1.01.39) lortu zuela genion aurreko astean sail honetan. Ez da zuzena, ordea. Antonio Merino antzuolarrak bigarren postua lortu zuen 1997an (1.00.57). Antonio Perez irabazlearengandik hiru segundora ailegatu zuen helmugara. Diego Garcia azkoitiarra hirugarren izan zen. Urte hartako podiuma osatu zuen hirukoa, batera samar heldu zuen Boulevardeko azkeneko zuzenera.



lako manifestazioa, Maalako Arrabalean barrena. XABI GOROSTIDI

Gizonezkoen jarreraren garrantzia, jo puntuan

Udaleko Berdintasun Sailak eta herriko talde feministek prest dute Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguneko egitaraua. Aurten, arreta berezia jarri nahi izan dute eraso matxistak amaitzeko gizonezkoen egin dezaketen horretan

Xabi Gorostidi ARRASATE

"Aurtengo ekitaldiari begira egindako bilera batean argi ikusi genuen bazela garaia gizonezkoen galdetzeko euren papera zein den. Bada ordua hausnarketa egin dezaten, benetan, egoera aldatzea nahi badute. Beraz, leloa gizonezkoentzako galdera bat izatea erabaki genuen", azaldu du Ekin Emakumeak Elkartereko Jasone Giraldoak.

Leloak honela dio: *Mota guztietako indarkeria matxisten aurrean: zu non zaude?*

Eta jarraian, hiru aukera zehazten ditu: *Konplizea naiz, Isilik Geratzen naiz eta Kontrako jarrera aktiboa daukat.* Gizonezkoek hausnarketa hori egiteak egoera aldatzen lagundu deza-keela uste dute.

Justiziaren "ardura"

Baina fokua ez dute soilik gizonezkoengan jarriko. Honela azaldu du Jasone Giraldoak zein beste aspektutan zentratuko

diren: "Uste genuen motz gelditzen ginela gizonezkoen bakkarrik galdera hori eginda. Ikusten genuen azken urtean zehar izandako indarkeria matxisten inguruko sententzien eragin-kortasun falta ere salatu behar genuela. Nolabait, justiziari eskatu behar zaiola honetan gurtian duen erantzukizuna".

Manifestazioa eta gehiago

Domekan, urteroko manifestazioa egingo dute Arrasateko kaleetan zehar, eta horren amaieran irakurriko duten testuan oihartzuna izango du justiziaren erantzukizunak. Besteak beste, gogora ekarriko dute 2018an Euskal Herrian erailak izan diren zazpi emakumeek erasotzaileen

ERASO MATXISTEN AURREAN GIZONEK KONTRAKO JARRERA AKTIBOA HARTZEA DU HELBURU LELOAK

aurkako salaketak jarrita zituztela, eta, ondorioz, justiziak ez duela ondo funtzionatu.

Manifestazioaz gain, zapatu goizean doako autodefentsa feminista tailerra egingo dute Emakume Txokoan, eta hilaren 28an, *Alardeak ukatutako plaza* liburuaren aurkezpena egingo dute Kulturaten.

Asteburuko eraso salaketa

Pottogorriak, Emakumeen Mundu Martxa eta Jaiki taldeek feminismoaren aurka izandako erasoak salatu dituzte. Hain zuzen, Jaiki taldearen pintaketen eta kartelen aurka egindako ekintzak salatu dituzte. *Feminismoa* hitza ezabatzea eta horren orde *henbrismoa* eta halako hitzak margotzea eraso larritzat jo dute, eta gogorarazi nahi izan dute ez direla etxean geratuko, euren ustez Arrasaten gertatutakoa eraso matxista delako eta horrelako jarrerak indarkeria edo erailketa matxisten aurrakari direlako.



ARRASATEKO UDALA

Botoen %40rekin irabazle

Jose Maria Arizmendiarieta plaza izan da ikurrinaren kokalekua aukeratzeko boto gehien erakarri dituena. Guztira, 181 arrasatearrek eman dute botoa, era honetara banatuta: Jose Maria Arizmendiarieta plaza 74 boto, Herriko Plaza 61 boto, Biteri plaza 24 boto eta Seber Altube 22 boto. "Lehenbailehen" jartzeko asmoa du Udalak.



NIRE USTEZ

IBON ARRUPE

Bidegorririk nahi dugu?

Bilbon zoritxarreko istripu bat gertatu zen pasa den astean, baina Arrasaten ere gertatu zitekeen: Autonomia kalean, kamioi batek zapalduta txirringulak bat hil zen.

Arrasaten ere antzeko arrisku egoerak maiz sufritzen ditugu. Badirudi denok bat egiten dugula bizikletaren erabilera sustatzearrekin –baldintza seguru eta egokietan–, baina, asmoak egia bihurtzeko orduan, arazo ugari daude. Kaleetan haurrentzako tokia egiteak hainbat tentsio sortzen ditu, batez ere, espazio faltarengatik. Motordun ibilgailuen erabilzaile askok entzun ere ez dute egin nahi autoentzako zirkulazio errailak kentzearen aukera; zer esanik ez aparkaleku plazak murriztearena.

"Kaltzadan doako aparkaleku gehiago behar da!" edo "Gipuzkoa etorbideko bi errailak mantendu behar dira!" aldarririk entzuten ditugu nonahi. Zoritxarrez, Bilbokoa moduko istripuek krudelki erakusten digute hil ala bizikoa dela errezeloei aurre egitea eta bidegorrien sarea zabaltzea. Hala bada, modu kolektiboan erabaki behar dugu; Etxaluze-Maala Ekobulebarrean, Araba etorbidean edo Muxibar-San Frantzisko tartean horixe egitea.

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion Astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia:
umeak, gazteak eta helduak
Arreta psikologikoa
genero indarkerian

Laguntza eskolarrak
Estimulazio goiztiarra
Logopedia
Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

Ondarroan desagertutako arrantzalearen berririk ez

Domeka goizaldean, 02:30 aldera, lagun batekin arrantzan ari zela desagertu zen 44 urteko arrasatear bat. Orduak, haren bila aritu dira Gurutze Gorriko, Itsaso Salbamenduko eta Ertzaintzako erreskate taldeko kideak, baina emaitzarik gabe

Xabi Gorostidi ARRASATE

Aurreko zapatutik domekarako gauean, 02:30 aldera, 44 urteko arrasatear bat –R.M. inisialak dituena– desagertu zen Ondarroako kai-muturrean arrantzan zebilenean.

Harekin batera zegoen lagun batek eman zuen abisua. Arrantzan zebiltzan lekutik aldentu zen une batez, eta itzuli zenean bere laguna falta zela ohartu zen. Kanabera bertan zegoen, baina lagunaren arrastorik ez.

Une hartan, bilaketa-operatiboa jarri zuen martxan Ertzaintzak, urpekariekin, helikopteroarekin eta baita Gurutze Gorriko kideekin.

Desagertutako arrasatearra askotan joaten zen arrantzan egitera.

Bilaketa lanak, emaitzarik gabe

Domekan, arrantzalearen jaka aurkitu zuten, eta gune hartan zentratu zituzten bilaketa lanak, hasiera batean. Ostean, Mutriku eta Saturraran aldean ere egin zituzten miatze lanak. Amaieran, argi faltaren eraginez, bilaketa bertan behera utzi zuten, hurrengo egunera arte.

Astelehen goizean, itsasbeherarekin, hasi ziren desagertuaren bila: urpekariak Ondarroako portuan, eta itsasontzietan zihozenak inguruko arroketan.

Baina orduak aurrera egin ahala, bilaketa eremua zabalduz joan ziren, Lekeitio alderantz, eta itsasoan barrena ere bai. "Orduak aurrera egin ahala, bilaketa eremua handituz doa, eta horrek gauzak zailtzen ditu", azaldu du Ondarroako Gurutze Gorriko zuzendari Miguel Angel Anakabek. Martitzenean, eguaztenean eta eguenean, bilaketa lanak egiten jarraitu dute Gurutze Gorriko, Itsaso Salbamenduko eta Ertzaintzako erreskate taldeko kideek, baina, GOIENAKo erredakzioa itxi orduko, ez da 44 urteko arrasatearraren berririk, eta ez dute zehaztu noiz arte jarraituko duten bila.

Zuberoako otarreak eskatzeko aukera, abenduaren 10era arte

Zuberoako ikastolek prest dituzte Gabonetako otarreak. Aurtun ere bi jarri dituzte aukeran –Ahuzki eta Irati–, ondorengo hiru helburuekin: ikastolen finantziazioan laguntzea, euskarak Zuberoan duen presentzia handitzea eta bertako ekoizleen produktuak ezagutaraztea. Eskariak www.ikaskoli.eus webgunean egin behar dira.

EUSKARALDIA

Mintzodromoa, esperientziak partekatzeko

Eguaztenean, hilak 28, Euskaldian bizi izandako lehen esperientziak partekatzeko aukera izango da. 18:00etan izango da, Loramendi gelan.

Bestalde, gogoratu egun hauetan txapa agerian izatearen garrantzia, eta segi hizkuntza ohiturak iraultzen.

OHARRAK

Ekin Emakumeen eskutik, hitzaldia

Gaixotasunak genero ikuspegitik lantzearen onurak jorratuko dituzte astelehenean. Hitzordua, Jokin Zaitegi gelan, 18:30ean.

'Iragana astintzen' zikloko azken hitzaldia

Hilaren 27an izango da, eta Maixel Iparragirrek eta Joseba Garitaonaindiak *Malben irakaspenak* izango dituzte hizpide.

Azaroko ate irekiak Usaetxeko Ludotekan

Urteurrena egiten duela ikusita, bertan egingo dute hileko azken osteguneko ate ireki jardunaldia. Ospakizun festa egingo dute, 17:00etatik 19:30era, 3 eta 11 urte bitarteko haurrentzat.





Kike Zurutuza, azaroaren 15ean Kulturateko areto nagusian egindako ekitaldian. AMAIA ZABALA

Duela 40 urte pasatakoa memorian iltzatu dadin

1978ko azaroaren 15ean, Komando Antikapitalistetako bi kide eta herritar bat hil zituen Guardia Zibilak, tiroz. Komandoko hirugarren kide zen Kike Zurutuza bizirik atera zen eta 40. urteurrenean bere bizipenak kontatu zituen arrasatearren aurrean

Xabi Gorostidi ARRASATE

Biolentziak Arrasate ziprztindu zuen 1978ko azaroaren 15ean. Komando Antikapitalistetako hiru kidek –Roberto Aranburu arrasatearra, Jose Maria Iturriotz *Zapa* legorretarra eta Kike Zurutuza azpeitiarra– Guardia Zibilak Aretxabaletan zuen kuartela metrailatu zuten arratsalde hartan. Kuarteleko agenteek ere

tiroz erantzun zieten, eta hiru kideek ihesaldia hasi zuten. Arrasaterantz jo zuten auto batean, eta, herrian zirela, Udala plaza inguruan, auto-ilara bat harrapatu zuten. Momentu hartan, euren aurkako tiroketa hasi zuten kalez jantzita zihoazen guardia zibil batzuek, eta, ondorioz, Roberto Aranburu eta Jose Maria Iturriotz hil ziren.

Kike Zurutuzak lau tiro jaso zituen, baina bizia salbatzea lortu zuen. Honela gogoratzen du tiroketa hura: "Armarik eduki gabe, eta aurrez abisatu gabe egin ziguten tiro. Roberto autotik kanpo zegoen, etxerako bidean, eta *Zapa* eta ni, berriz, auto barruan: hura gidatzen eta ni atzealdean. Ez zen inongo enfrentamendurik izan, eta atze-

tik egin ziguten tiro. Atzealdean nengoenez, nik jaso nituen lehen tiroak. Lau jaso nituen, guztira, horietako bat bizkarrean, eta horrek garbi uzten du ez zela inongo enfrentamendurik gertatu. Bestela, euri begira egongo nintzen, eta tiroak ez zidan bizkarrean emango".

Bigarren tiroketa

Baina, tamalez, tiroak ez ziren hor amaitu. Arrasateko kuarteleko Guardia Zibilak tiroketatik gertu zeuden, eta, handik minutu gutxira, beste tiroketa bat hasi zuten. Aretxabaletako agenteak komando bateko kideekin nahastu zituzten –kalez jantzita zeudelako eta armak zituztelako–, eta, tiroketaren ondorioz, hiru zauritu eta hildako bat izan ziren.

Bizia galdu zuena Emili Larrea Arrasateko baserritarra izan zen. Gaur egun etxeak dauden inguru horretan zegoen baserrian bizi zen, eta lepo aldean jaso zuen bala baten eraginez hil zen. Hiru seme-alabaren ama zen.

"Bigarren tiroketa hasi zenean, ni lurtean nengoenez, guardia zibil batek armaz apuntatzen ninduela. *Zapa* hilda zegoen, eta autoaren beste aldean Roberto ere bai. Arrasateko guardia zibilak tiroka hasi ziren jende multzo handi bat zegoen eremuan. Herritar asko zeuden gure inguruan, tiroketaren ondorioz zer gertatu zen jakitera hurbildu zirenak. Emili hil zuten; beraz, ez nuke *zorte ona* espresioa erabili nahi. Baina oso garbi daukat triskantza handiagoa egiteko aukera handiak izan zirela bigarren tiroketa hartan. Ez zen luzea izan, baina tiro bolada hartan jende kopuru handiagoa kaltetu ahal izan zuten".

Zurutuza preso hartu eta larri zaurituta eraman zuten Gasteizko Santiago Apostol ospitalera. "Tiro baten eraginez, birika heren kendu behar izan zidaten. 72 egun pasa nituen bertan. Ostean, Madrilgo espetxe-ospitale-ra lekualdatu ninduten, eta ia beste bi hilabete igaro nituen bertan. Gertakarien uean, ihes eginda nengoenez, langile borrokarekin lotutako ekintza batenatik. Kausa horregatik zortzi urteko espetxealdia bete nuen, baina Arrasateko aferagatik ez zidaten kargurik ere hartu. Zerbaitegatik izango zen".

Aitortza falta Arrasaten

Pasa den eguenerako, oroimen ekitaldia antolatu zuen EH Belduk Arrasaten. Zurutuza bertan izan zen, eta eskerrak eman zizkion Arrasateko herriari. "Batzuen sufrimendua amaitu gabe" dagoela ere nabarmendu zuen; komandoan lau kide zirelako, eta horietako batek –arrasatearra dena– ihes eginda jarraitzen duelako.

Iturriotzen eta Aranbururen gertukoak ere bertan izan ziren. Aranbururen gertukoek GOIENARI azaldu diote hamarkada hauetan zehar euren hildakoez ez dutela beste batzuek besteko aitortzarik izan; ez Udalaren partetik, ezta herriko ordezkari politikoen partetik. "Duela gutxira arte, ez da apenas aitortzarik izan, bazen garaia memoria lantzen hasteko; hau ere Arrasateko historiaren parte delako".

DUELA 40 URTE BIZITAKOAK GOGORA EKARTZEKO EKITALDIA EGIN ZUTEN PASA DEN AZAROAREN 15EAN

Txatxilipurdik prest du Jostailu Truke Azokaren egutegia

Abenduaren 15ean, Jostailu Truke Azoka egingo dute Txatxilipurdiko lagunek, erabiltzen ez diren jostailuak beste batzuekin aldatu ahal izateko.

Asteazkenean hasi ziren jostailu bilketekin, eta hona hemen aurretik geratzen diren bilketa egunen zerrenda: gaur, egubakoitza, San Antolin parkean; martitzenean Usaetxe plazan;

asteazkenean, Arimazubi plazan; eta barikuan, hilaren 30ean, Herriko Plazan. Bilketa guztiak 17:00etatik 18:30eara bitartean izango dira. Abenduan ere hiru bilketa egingo dituzte azoka egin aurretik: 11n Santa Marinako ludotekan, 12an Arimazubi plazan eta 13an Seber Altube plazan edo Biteri plazan –eguraldiaren arabera–.

Behin jostailu guztiak batuta, azoka abenduaren 15ean egingo dute, Biteri plazan, 11:00etatik 13:00etara.

OHARRAK

Mo(ndra)vember

Mendi irteera, talde argazkia, bazkaria eta kontzertua izango dituzte bihar.

Etxezarreta proiektua

Asteazkenean, bigarren eta azken ordainketa egin zion Udalak familiari.

Pentsiodunak

Astelehenean, 12:00etan, Herriko Plazan batuko dira.

Zaborra ez dela ondo sailkatzen frogatu du herritar batek

Aurreko asteburuan, bolo-bolo ibili zen Arimazubi plazako zakkarrontzi batzuetatik hondakinak jasotzen ari zen kale-garbitzaile baten bideoa, hondakin guztiak poltsa berean sartu zituelako. Polemikaren harira, herritar batek argazki batzuk bidali dizkio Goienari, Arrasateko zakkarrontzietan zaborra ez dela batera ondo sailkatzen erakusteko.

Ouka dendak saria jaso du Gipuzkoako Bazkundearengandik

Emakumezkoen eta gizonezkoen moda jorratzen dituen dendak saria jaso du Gipuzkoako Bazkundearen Gipuzkoar Merkataritza Enpresa Sarien 26. edizioa. Kudeaketa ereduagatik, ekintzaile espirtuagatik, ekimenagatik, enpresan ezarritako teknologiangatik eta bezeroengana zuzentzeko eragatik jaso du sari preziatua.

EAJk kode etiko bat nahi du udal politikarientzat

Egungo araudian gabezia bat nabaritzen dute Udaleko politikariek jokabide zalantzarriak dituztenean neurriak hartzeko orduan. Bestalde, nabarmendu dute EAJK ez duela emakumeen aurkako biolentzia sekula baliatuko joko politikorako

Xabi Gorostidi ARRASATE

Azken osoko bilkuran, hautsak harrotu ziren Oscar Garciak jasotako salaketa baten harira. Oposizioak salatu zuenez, kasu hartan ez zen eraso matxisten aurkako protokoloa "beste batzuetan bezala bete", eta gai horrekin izandako jokabidea argitu nahi izan du Arrasateko EAJk. "Guk arduraz jokatu dugu beti. Alderdi serio bat gara, eta une oro teknikari adituen aholkuak jarraitu ditugu", azaldu zuen Maria Ubarretxena alkatetik, eguaztenean egindako prentsa agerraldian. Gai horrekin lotuta, erantzukizunez jokatzeko eskatu zien gainontzeko alderdiei: "Gai garrantzitsu honetan erantzukizuna eskatzen dugu. Argi utzi nahiko nuke EAJk ez duela sekula emakumeen aurkako biolentzia joko politikorako erabiliko".

Kode etikoa

Aipatutako kasu horren harira, EAJren udal taldeak argi ikusi du kode etiko baten beharra, udal ordezkari batek "jokabide zalantzarriak" dituztenean aplikatu ahal izateko.

"Kasu honetan, argi geratu da gabezia bat daukagula. Udaleko politikari batek etikoki zalantzarria den jokabide bat badu: arau-hauste bat, salaketa bat, trafikoko arau-hauste bat... Horien aurrean nola jokatu jakiteko, kode etiko bat artikulatzea proposatzen dugu. Eusko Jaurlaritzan, Foru Aldundian eta udal batzuetan indarrean daude kode etiko batzuk, eta antzerako bat nahi genuke Arrasaterentzat ere".

Indarrean dauden kode horietako bat oinarri hartuta, Arrasateko errealitatera egokitzen den araudi berria egin nahi dute gainontzeko alderdiekin batera. "Zirriborro bat lantzen ari gara, eta laster, mahai gainean jarriko dugu".

OHARRAK

Audience-en kontzertua, gaur, Irati tabernan
Gernikarrak hirukote formatuan etorriko dira Arrasatera.

Ines Bengoaren ipuin kontaketa, hilaren 27an
Kulturaten izango da, 18:00etan, eta 4 urtetik gorakoentzat.

Bi trikitilari Euskal Herriko ordezkari Getxon
Bertan egingo da Nazioarteko Trikiti Jaialdia, eta Amets Ormaetxea eta Irati Gutierrez arrasatearrak han izango dira.

Arrasate Musikal eta Santa Zezilia
Ekintzak antolatuta dituzte gaurko, biharko eta etziko.

Azaroaren 9tik 25era



ERRESERBATU ZURE TRIPONTZIAK MENUA!

Jatetxe guztietan botila 1 aukeratu:
Sagardoa, Txakolina edo Arabar Errioxako Ardoa
Uha, Aalea eta BEZA barm

28€
* BEZA barm

#DEBABARRENA
www.debabarrenaturismo.com

Erreserbatu zure Tripontziak, esperientziaren berri sare sozialetan eta irabazi sari bikainak!
ANIMATU ETA PARTE HARTU, TRIPONTZIAK

AZITAIN Erretegia - Elbar

- Debabarreneko sasoko barazkien menestra
- Kantauriko bakailhoa piperradarekin
- Eusko Label azpitzena garbidoarekin
- Etxeko gazta-tarta Mendaroko bokolate urtsarekin

Azain 6 - T.: 943 12 18 54

BORDATXO Jatetxea - Deba

- Urtsandiko onddo Royala sasiko ziza kremarekin
- Amankasiko perloi zopa marinatutako erara
- Aitzola baserriko behi-saltatsa libean erreta
- Paribela Bordatxo erara Mendaroko bokolatearekin

Zesteroak plaza 1-2 - T.: 943 02 93 76

BELAUSTEGI Jatetxea - Elgoibar

- Etxeko aperitiboa
- Zalebako txakolina Ondarroako janburu eta piperekin
- Mutriko txakolina euren tintan
- Euskaltzemi azpitzenarekin egindako brobetak sasoko barazkiekin
- Mendaroko bokolatearekin egindako lingotsa platano moussarekin eta baserriko pikuen izozkarekin

San Miguel gaina, 44 - T.: 943 74 31 02

HOSTAL ITZIAR Jatetxea - Deba

- Donose baserriko barazkiak beraz, Olabe baserriko arrautzeekin
- Olo-petax, Fytsch bokolatearekin egindako maizta mermelarekin
- Belosoro baserriko Angus behi biribilla tipula karamolizatuekin
- Mendaroko bokolate-trufak

Itziar gaina, z/g - T.: 943 19 90 61

MENDIOLA Jatetxea - Ermua

- Alkorta bakailoa entsalada Debabarreneko barazki-eskalibadaren gainean
- Lumagoti hostorea Jokin Jaunaren onddo saltatsarekin
- Zigoa sasoko zankomarekin, Sagamiña bokolonez egindako olo errearekin eta Berano Txiki baserriko aza saltatsarekin
- Euskaltzemi saltatsak txerriaren baxan erreta, Arabako pababere gainean
- Maizta gazta-moussoa Mendaroko bokolatearekin eta kakao-omelletearekin

Erdikale 19 - T.: 846 08 00 86

KANALA jatetxea - Deba

- Etxeko Uzkanga baserriko kalabazarekin egindako krema
- Lasturko Kortaberi baserriko barazki eta Fytscheko arralez egindako zopa
- Geoparko legatx-kokotea egur-ikatzeke bingarrotan erreta
- Eusko Label baltzez betetako piperrak euren zakuaz eta Uzkanga baserriko tomatez egindako saltats
- Mendaroko bokolateko tarta bananaz

Itziar suzioa, 2 - T.: 943 19 90 35

PIKUA jatetxea - Mutriku

- Kantauriko hegalariez egindako entsalada
- Geoparko arralez egindako etxeko zopa
- Kantauriko legatza saltza berdean, arrautza egostarekin eta zainzurleka
- Olosoro baserriko entrekota parillan erreta
- Mendaroko bokolatez egindako brownie bokolatearekin

Laranga suzioa z/g - T.: 943 60 32 42
*Azaroaren 19tik aurrera Itziar

URGAIN jatetxea - Deba

- Ondo eta Geoparko arralez egindako krokotak
- Perrebako-entsalada epela
- Kantauriko arrain- eta itsaski-krema
- Geoparko legatza edo rapa plumban panadera pestekin, edo Eusko Label entrekota
- Sagatx-hostorea Mendaroko bokolateko moussarekin

Hendarza, 5 - T.: 943 19 11 01

LASTURKO taberna - Deba

- Bakailoa entsalada epela eta "olabe baserriko arrautza ekologiko" trijiluz homituko Lasturko Taloa "J.J. Getariko Mokorra bokolin kopaz lagundurik
- Kantauri itsasoko legatx-zerri parrizan, sasoko eta bertako barazki biganduekin "J.J. Getariko Mokorra bokolin kopaz lagundurik
- Bertako sagaraz egindako krema eta onddo perrebakoz osaturiko Euskaltzemi azpitzena
- Mendaroko bokolatez gaztatutako egindako etxeko surnedi-tarta

San Nikolas Plaza - Lastur - T.: 943 19 90 33








EUSKARALDIA



Lihoari buruzko dokumentalaren irudi bat. ARTEMAN

Lihoari eta txarribodei buruzko lanak, prest

Astelehenean emango dituzte bi dokumentalak, Euskaraldia dela-eta antolatutakoen artean. 'Antzinako Aramaio' ekimenaren barruan egindako lanak dira, garai bateko irudiak eta zeregin horiek ezagun dituzten herritarren testigantzak biltzen dituztenak

Julen Iriondo ARAMAIO

Museo etnografikotik herriko irudi zahar batzuk errekupearatu eta, horiek digitalizatuta, bi dokumental osatzea erabaki zuen Udalak, *Aintzinako Aramaio* ekimenaren barruan: bata, lihoaren lanketaren gainekoa, eta txarribodei buruzkoa bestea. Inguruan ohikoak ziren jarduerak, oraindik egiten dena, bigarrenaren kasuan.

"Lihoaren lanketa Aramaion egiten zela 60 urtetik gora dira, eta irudietan prozesua nolakoa zen ikusten da. Irudiei laguntzeko, elkarrizketatu ditugu Sebastiana Balantzategi eta Fermín Etxebarria, eta kontatu dituzte euren oroitzapenak, nola ereiten zen lihoa, nola jaso, nola ateratzen zen haria, nola eramaten zioten Eskoriatzako ehule bati eta izarak eta bestelako oihalak egin...", dio Euskara teknikari Rosa Mondragonek.

Txarribodei buruzko lanari dagokionez, berriz, irudietan agertzen zen toki berera jo dute

testigantza bila, Etxaguen auzora, Jesus Astola, Benedicta Elortza eta Etor Goikoetxearekin egoteko: "Tradizio honen bila-kaera ikus daiteke euren kontakizunean, nola bizi zuten umetan eta zenbat aldatu den tresneria aldetik, prozesu aldetik, eta abar".

Astelehenean 17:30ean izango da emanaldia –hamabost minutuko iraupena du bakoitzak–, kultura etxean, eta, ondoren, Udalaren webgunean eta Youtubeko kanalean jarriko dituzte.

Aramaioko askotariko ondarea jasotzeko ekimen horren barruan, hurrengo egingo duten lana da Lagun Artean dantza taldearen historia jasoko duena; Mikel Serrato aramaioarrak egingo

**EGINGO DUTEN
HURRENGO LANA
LAGUN ARTEAN
DANTZA TALDEARI
BURUZKOA IZANGO DA**

du: "Eta espero dugu datozen urteetan ere beste lan batzuekin jarraipena izatea ekimen honek, berez materiala badago eta", dio Mondragonek.

Gainerako ekintzak

Bi ikus-entzunezkoekin batera, kultura etxean egingo diren beste hainbat ekintza ere sartu dituzte Euskaraldiarekin bat eginez antolatutako egitarauan: domeka honetan Huts Teatroa konpainiaren *Hozkailua* antzez-lana egongo da ikusgai, 19:00etan –sarrera, doan–; eguaztenean, 18:30ean, *Mai da bai (eta ezetzik ez dago)* dokumentala emango dute –Garabidek ekoiztua, Eider Ballina zuzendarien artean duena–, maputxeen errealitateari buruzkoa; hilaren 30ean, barikua, bikoizketa lehiaketako eszenaratzera izango da, 17:30ean hasita gazteenek eta 18:30ean 12 urtetik gorakoek; azkenik, domekan, abenduak 2, herri lasterketa egingo dute, hau plazan hasita, 12:00etan.

Kantua eta bertsoa ere izango dira asteburu honetan herrian

Bertxoko sariketako saioa egongo da gaur Zabolán, eta Bizente Goikoetxea abesbatzarena domekan elizan

J.I. ARAMAIO

Eguenean izan zen Santa Zezilia, eta data seinalatua dela-eta emanaldia egingo du Bizente Goikoetxea abesbatzak domekan; San Martin elizan izango da, 12:30ean.

Aurretik, gaur bertan –barikua–, Bertxoko sariketako hirugarren kanporaketa jokatu da Zabolako elkartearen. Aramaioar bat ere ariko da, gainera, kantuan: Martin Abarrategi. Harekin batera, finalerako txartel bila abestuko dutenak dira Mikel Martin, Xabi Antia eta

Beñat Garaio. 19:30ean hasiko da saioa.

Aitor Ugarte, sailkatuta

Azaroaren 29ko Gasteizko Hala Bedi tabernako finalerako txartela dagoeneko baduena Aitor Ugarte da. Sariketako bigarren kanporaketan abestu zuen, aurreko barikuan, eta aramaioarra eta Unai Anda izan ziren entzuleen bertsolari gustukoena. Arabako Bertsozale Elkartek eta Hala Bedi Irratiak antolatzen duten sariketaren finalean sei bertsolari ariko dira.

Markel Uriarteren hitzaldia, bihar, Orixolek antolatuta

Markel Uriarte aretxabaletarrak hitzaldia egingo du bihar –zapatua–, 19:00etan, kultura etxean, Orixolek antolatuta. Bizikletarekin, modalitate ugari ezagutzen ditu Uriarterek, eta bere buruari jarri ohi dizkion erronkei buruz jardungo du: nola sortzen diren, zerk motibatzen duen, nola prestatzen den... Bideo bat ere eman go dute.

Indarkeria matxista salatzen, domeka eguerdian

Indarkeria Matxistaren Kontra Eguna dela-eta, bilkura egingo da plazan, 12:30ean, *Inoiz, inori, inon* leloarekin, Udalak, Laia Eskolak, Itur Zuri elkarteak eta Aramaio talde feministak antolatuta; azken biek adostutako adierazpena irakuriko dute bilkura ostean. Txarra moia udaletxean eta kultura etxean eskura daiteke.



OILAGOR ELKARTEA

Jesus Mari Gonzalez nagusi

Aurreko zapatuan jokatu zen Oilagor elkarteak antolatutako oilagor txapelketa; guztira, zazpi oilagor bota zituzten ehiztariek.

Jesus Mari Gonzalez *Goizale* izan zen txapeladuna, bi oilagorrek. Gorka Astondoa izan zen bigarrena, oilagor batekin, eta, kopuru bera ehizatuta, Endika Gardoki hirugarrena.

Biktimak babesteko konpromisoak hartzen

Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunarekin bat egiteko dei egin dute Udalak eta herriko talde feministek, eta horren bueltan antolatutako ekitaldietan parte hartzera gonbidatu dituzte herritarrik; elkarretaratzea domeka eguerdian izango da

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Indarkeria matxistaren biktimek duten erreparazio eskubidean jarri du begia Eudelek aurten azaroaren 25aren bueltan, eta Aretxabaletako Udalak bat egin du horrekin. "Udal ordezkariak eta feministak ados agertu gara", jakinarazi du Ongizate Saileko zinegotzi Karmele Uribarrik. Adierazpen horrek dioenez, "ezinbestekoa da ematea ahotsa biktimei, autoritatea beraien lekukotzari eta egiazkotasuna bizi izandako indarkeriari buruz egiten duten errelatoari".

Udalak hainbat ekarpen egin dizkio adierazpen horri, bukatu berri duen II. Berdintasun Planean hartutako konpromisoak oinarri hartuta. Honako hauek dira horietako batzuk: zerbitzuak hobetzen lagundu; bizirik atera diren emakumei entzun, segurtasun neurriak diseinatzeko; emakumeen ondoan egon; ekimen kolektiboek laguntza eman; biktimen salaketa prozesuetan laguntza eman; indarkeria matxistaren biktimen aldeko aitoren publikoak egin; eta elkarlanean jardun mugimendu feministako ordezkariekin.

Oposizioen iritzia

EH Bilduko Ion Albizuren esanetan, konpromiso zehatzak



lax, Aretxabaletan egindako elkarretaratzea. M.A.

hartzeko garaia iritsi da. "Manifestuan, konpromisoak hartzea baino nahiago dugu guk Berdintasun Planean lotzea horiek". Plan horren gainean kontu asko dituztela esateko gaineratu du, eta osoko bilkurara iristen denean helduko diotela eztabaida horri: "Agintaldi honetan egon den utzikeria, adibidez". Gaineratu du egindako plana "ederra" dela, baina baliabideak behar dituela horrek: "Ezin da oraingo baliabideekin, 2015ko aurrekontuaren erdiarekin gura dute-eta aurrera egin dezan".

Luis Mariano Gomez zinegotziak ere babesa erakutsi dio Eudelen adierazpen instituzionalari, baina aukera berdintasuna bermatu beharra nabarmendu du: "Soldata eta erantzukizun ezberdintasunak murriztu, esaterako. Bestetik, zaintza zerbitzua ematen duten enpresak zaindu behar dituzte erakundeek, bertako langileen baldintzak bermatzeko. Langile horietako batzuen esanak oinarri hartuta Bergarako epaitegian salaketa bat jarri dugu oraintsu, lege urraketa bat dagoelakoan".

"Lau urterako Berdintasun Plan zoragarria egin dugu"

KARMELE URIBARRI ONGIZATE SAILEKO ZINEGOTZIA

II. Berdintasun Plana bukatu berri dute.

Plana eginda dago, ezta?

Bai; kosta zaigu, baina bukatuta dago. Lagun asko elkartu gara: udal teknikariak, politikariak, feministak, herriko hainbat eragile... Eta guztion ekarpenak jaso, adostu eta aurrekontuak zehaztu behar izan dira. Hiru zirriborro egin ditugu, baina lana bidalita dago Emakundera. Haren oniritzia jasotakoan, osoko bilkuran aurkeztuko ditugu.

Kostatu egin da, baina plan osatua egin duzue, ala?

Bai, bai. Osatua da, ahots eta iritzi mordoak jaso ditugulako; ekarpen guztiak bildu eta forma eman gura izan diegu. Argi genuen adostasuna behar zuela planak, datorren agintaldian, edozein izanda ere gobernuan dagoena, aurrera eramanez.



M.A.

Hortaz, lanaren emaitzarekin gustura?

Oso pozik nago, benetan ere. Ondo zehaztuta dago guztia —ekintzak, aurrekontua...—, zeharkakotasuna errespetatu da eta ikuspegi asko daude jasota. Plana zoragarria da.

Zelan eroango da aurrera?

Lau urterako da, urtarrilean hasita. Eta, horretarako, berdintasun aholkularitza bat hartuko da, erreferente izango den pertsona bat izan dezagun lanean Udalean.

Egitaraua

Azaroak 23, egubakoitza

• **19:00** Antzerkia: *Frida*; Arkupen. Sarrera: 4 euro.

Azaroak 25, domeka

• **13:00** Elkarretaratzea, Herriko Plazan.

• **18:00** Film emanaldia — *Te doy mis ojos*—, solasaldia eta mokadutxoak; udaletxe zaharrean.

Abenduak 1, zapatua

• **10:00-14:00 eta 16:00-20:00** Autodefentsa ikastaroa; Ibarra kiroldegian. Izena aurrez eman behar da —azken eguna azaroaren 27a da—: Arkupe edo berdintasuna@aretxabaleta.eus.

Pentsio duinak eskean

Basotxo erretiratuen elkarteko kideek gogorarazi gura dute, oraindik ere, astelehenero elkartzen direla pentsio duinak eskatzeko —argazkian, azaroaren 19an egindakoa—, beste herri askotan legez. Hala, erretiratuen aldarrikapenarekin bat datozen herritar guztiak gonbidatu gura dituzte Herriko Plazan egiten diren elkarretaratze horietara.



BASOTXO

Bi peoi kontratatuko ditu Udalak sei hilabeterako

Lanbideren Enplegua Sustatzeko Programaren baitan kontratatuko ditu Udalak bi peoi. Baldintza nagusiak hauek dira: lan barik egotea; Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egotea; eta Aretxabaletan erroldatuta egotea. Lanbiden eman behar da izena; azken eguna azaroaren 30a da. Argibideak Udalaren webgunean daude.

Zibereskubideen lanketari agur esango diote jaialdiarekin

Interneten dituzten eskubideen eta betebeharren gainean lanean jardun dute nerabeek, eta gaur, jai giroan emango diote bukaera horri. Ipuin kontaketa izango dute umek Algara ludotekan (17:00); eta gazteek, *scratch* eta bideo jokoen programazio ikastaroak, Arkupen (17:00-18:30). Bukatzeko, murala egingo dute, plazan, DJ batek girotuta (18:00).

"Agintaldi erosoia izan da eta gustura sentitu naiz"

MIREN LOREA LANA PSE-EE-KO ZINEGOTZIA

Udalbatza osatzen duten kide sozialista bakarra da, eta "pozik" dago lau urteok eman dutenarekin; berriro ere errepikatuko lukeela gaineratu du

Mirari Altube ARETXABALETA

Arrasate eta Gasteiz artean bizi da eta lau urteotan zinegotzi izan da Aretxabaletan.

Agintaldia bukatzeaz dago; zelako balorazioa egiten duzu?

Oso positiboa. Alderdi guztien arteko harremana samurra eta uneorokoa izan da, eta agintaldi benetan erosoia; oso gustura sentitu naiz. Udal Gobernu Batzordean alderdi guztietako bozeramaileak izan gara, eta hori ez da ohikoa herri guztietan. Ondo egindako lanarekin eta errespetuan oinarritutako harremanekin geratzen naiz.

Zuk bazenuen eskarmentua udal jardunean; izan ere, Arrasaten izan zinen zinegotzi hainbat urtetan. Horrek lagundu egin dizu?

Bai, horixe. Bi agintaldi egin nituen Arrasaten, eta asko ikasi nuen. Batetik, herri handiagoa delako, jardun gehiagorekin, eta bestetik, garai gogorak tokatu zitzaizkidalako, bizkartzainen garaia. Hortaz, bai, asko lagundu dit han ikasitako guztiak.

EAJrekin batera Udal Gobernu osatu du Alderdi Sozialistak; zelakoa izan da harremana?

Adeitsua eta atsegina, bai politika kontuetan, bai harreman pertsonalari dagokionez. Eztabaida eta elkarriketa samurrak izan ditugu, talde-lan zoragarria; hortaz, ez dut beste berbarik: oso atsegina.

Eta oposizioko taldeekin zelan moldatu zara?

Egia esan, lehen esandakoa errepikatu behar dut: oposizio-koekin ere ondo moldatu naiz bai politikari dagokionez, bai harreman pertsonalei dagokionez. Herri eta udal txikia izanda, ez da egon inolako arazorik eta gai guztiak landu ditugu errespetu handiarekin. Osoko bilkuretan ere gai gehienak adostasun handiarekin onartu izan ditugu, bakoitzak bere ekarpenxoak egin arren eta bere iritzia agertu.



Miren Lorea Lana, Aretxabaletako udalbatzako zinegotzia. MIREN LOREA LANA

"IRITZI EZBERDINAK IZAN DIRA MAHAI GAINEAN, BAINA TALKARIK ETA LISKARRIK EZ"

Baina alderdien artean eztabaida sorrarazi duten gaiak ere izan dira mahai gainean; Katalunia, esaterako...

Bai, iritzi ezberdinak izan dira, baina talkarik eta liskarrik ez. Udalbatza osatzen dugun guztiok zentzudunak gara; hortaz, ez da egon arazorik.

Lau urteotan egindako edo lortutako zerbaitek eman dizu aparteko poztasunik?

Poztasuna guztiak, ezingo nuke aipatu zapore gaziko ezer. Berrintasun Plana ibili dugu esku artean orain, eta hori onartu gurako nuke; izan ere, datozen lau urteetarako plana izango da. Nik uste dut hemendik eta maiztzerara artean behin betiko bukatu eta onartuko dugula.

Berrintasun Plan horrekin gustura geratu zara?

Bai; nik uste oso ondo jaso dela han guztia eta asmatu dugula.

Aholkularitza eman digun enpresa bat izan dugu eta oso ondo egin dugu lan; ahots asko jaso dira, gainera. Baina onartutakoan, herritarrek esan beharko dute gustuko duten.

Eta arantzaxoren bat geratu zaizu, zerbait egin barik geratu delako, adibidez?

Plan Orokorra ezin izan dugu abian jarri beste lehentasun batzuk izan ditugulako; hurrengo baterako geratu da.

Gainerakoan, lehentasunak ondo finkatu direla uste duzu?

Bai. Beti daude gauzak egiteko, eta bukatzeko ere geratu dira; Deba ibai alboko pasealekua, esaterako. Baina, orokorrean, zentzuz landu dira gaiak.

Ez zara Aretxabaletan bizi; baduzu harremanik herritarrekin?

Arrasate eta Gasteiz artean bizi naiz, baina astero nator gobernu batzordeetara. Eta herritarrek gerturatu izan zaizkit kontu batekin edo bestearekin; hori bai, beti jarrera egokiarekin.

Maiatzeko hauteskundeetan pentsatzen hasi zara?

Ez; alderdi bakoitzak bere denborak ditu eta gu ez gara hasi. Ni neu indartsu nago, eta pozik jarraituko nuke.

EUSKARALDIA



Miriam Urkia, Aretxabaletan. MIRARI ALTUBE

Hausnarketarako unea ere eskainiko du Euskaraldia

Miriam Urkia euskaltzain osoak eta Kike Amonarriz soziolinguistak solasaldi bana eskainiko dute Arkupen

Mirari Altube ARETXABALETA

Abian da Euskaraldia. Eta horrekin bat egin duten aretxabaletarren kopurua gora eta gora doa; dagoeneko 1.300era gerturatu da. Izena emateko eperik, gainera, ez dute itxiko; hortaz, Loramendira joan besterik ez dago horretarako.

'Biotzbizi'-ak eta 'buruprest'-ak

Jai giroan emango diote hasiera ekimenari gaur. Baina astean jarraipena izango dute ekitaldiek; hala, hitzaldi interesgarri bi izango dira. Aurten euskaltzain oso izendatu duten Miriam Urkia aretxabaletarrak Euskaltzaindiaren hiztegia oinarri hartuta kontu-kontari jardungo du martitzenean, Arkupen (19:00): "Hitzaldia baino gehiago, solasaldia izan dadin gurako nuke", adierazi du, eta gaineratu: "Euskaltzaindiaren hiztegia aitzakia izango da euskara zenbat, zelan

eta zertarako erabiltzen dugun ikusteko; gazteleraren menpe bizi garelako erakusteko, batetik, eta euskalkiak/batua eztabaidak zentzu handirik ez daukala erakusteko, bestetik". Ohiturak aldatzea ez dela samurra dio: "Euskaraldiaren aitzakia ona da gogoeta sustatzeko. Ez da bakarrik *ahobizi* edo *belarriprest*, *bihotzbizi* eta *buruprest* ere beharrezkoak direla uste dut, eta ez 11 egunetan bakarrik".

Kike Amonarriz kontu-kontari

Kike Amonarriz txanda hartuko dio eguaztenean (19:00). Euskaraldia zer den eta zergatik datorren orain argituko du; dagoeneko asko lortu duela uste du: "Elkarlan bat sortzea lortu du gizarte eragileen eta instituzioen artean, eta lortu du herrietan aktibatzea aspaldian horrenbesteko indarrarekin aktibatugabe zegoen mugimendu bat".

Gaztaina-saltzailea hainbat egunetan Aretxarteri esker

Azken urteotan lez, gaztaina-saltzailea gerturatu da herrira, Aretxarteri merkatarien elkarrekin gonbidatuta. Atzo egon zen lehenengoz eta beste bi aldiz ere etorriko da: azaroaren 29an eta abenduaren 5ean. Iluntze partean, herriko kaleetan ibiliko da, eta Aretxartereko bezeroek debalde jan ahal izango dituzte, jasotako txarteltxoak trukaturatu.

Atxabalta Mugiren bulegoa Ibarra kiroldegian dago

Durana kalean izan du bulegoa orain arte Atxabalta Mugi ekimenak, baina hemendik aurrera Ibarra kiroldegira (943 03 98 42) jo beharko dute horien erabiltzaileek. Han hartuko ditu Maialen Alkorta aholkulariak. Herritarren artean jarduera fisikoa sustatzea helburu duen ekimena da Atxabalta Mugi eta edonori dago zabalik.

Antzinako Aretxabaleta ezagutzeko erakusketa

Aretxabaletako Udaleko Kultura Sailak antolatuta, 18 argazkirekin osatutako argazki zaharren erakusketa jarri dute herriko kaleetan zehar. Horrekin batera, bisita gidatuak egiten ari dira; domekan, 10:30ean, plazatik hasita izango da hurrengo

Imanol Beloki ARETXABAETA

Aretxabaletako Udaleko Kultura Sailak sustatuta, argazki zaharrak jarri dituzte Aretxabaletako kaleetan zehar. Guztira, hamazortzi daude, eta herritarrek lehengo Aretxabaletaren eta gaur egungoaren arteko konparaketa egiteko helburuarekin jarri dituzte. Hala, ekimenak harrera ona izan duela adierazi dute antolatzaileek.

Joxe Migel Uribarren Kultura zinegotziak adierazi du erakusketa zergatik jarri duten: "Faltan igartzen genuen Aretxabaleta nola osatzen zen lehen eta nola dagoen momentu honetan adieraztea. Aldaketa nabarmena da, eta argazkietan garbi ikusten da. Hori horrela, Udal Artxibotik kanpora atera nahi izan ditugu, herritarrei erakusteko".

Erakusketaz gain, bisitak

Antzinako Aretxabaleta erakusten duten erretratuak kaleetan jartzeaz batera, bisita gidatuak ere antolatu dituzte. Pasa den domekan izan zuten lehenengoa, eta herritarren harrera ona izan zutela adierazi dute antolatzaileek. Hurrengo, berriz, domeka honetan izango da, 10:30ean, plazan batu eta handik hasita historia ezberdinak ezagutzeko asmoz.

Udal Artxiboaren garrantzia

Udal Argazki Artxibotik egin dute aukeraketa, eta, gehiago jartzeko aukera dagoen arren, kostu handia duela adierazi du historia kontuetan aditua den Aitor Antxiak Antxia aretxabaletarrak: "Argazki gehiago ere jarri ditzakegu, baina bakoitzak 2.000 eurotik gorako kostua du. Horrez gain, 11.000 argazki inguru daude Aretxabaletako Udal Artxiboan, eta jende dezente joaten da hauek ikustera. Kanpotik etorritakoak asko etortzen dira; esaterako, Argentinatik eta Kolonbiatik, arbasoen bila.



Aitor Antxia, Aretxabaletako argazki zaharren bisita gidatua egiten. IMANOL SORIANO

Hala, herritarrei eskaera egin nahi diegu etxean dituzten argazki zaharrak bertara eraman, eta eskaneatzen uzteko. Gero, originala bueltan eramango dugula bermatzen dugu, beraienak direlako".

Uholdea gogorarazteko plaka

Argazkiez gain, plaka bat ere jarri dute elizaren atzeko aldean. 1942ko abuztuan -San Agustin egunean- izandako uholdean, ur-maila noraino iritsi zen jakiteko jarri dute plaka.

"Herriko eliza guztien historia jaso dut"

AITOR ANTIXIA LETURIA
HISTORIA KONTUETAN ADITUA

Argazki zaharrei jarraitutako bisita gidatuak egiteaz gain, Aitor Antxia Leturia aretxabaletarrak liburuetan ere jasotzen ditu herriko historia kontuak.

Zein libururekin zabilta orain?

Aretxabaletako eliza guztien historia batzen duen liburua amaitu berri dut. Liburu mardula izango da, zuzenketak egiten nabil orain. Ia 400 orrialde ditu, argazki eta guzti.



MIRARI ALTUBE

Galartzako dorretxearen gaineko zerbait ere baduzu esku artean, ezta?

Aranzadiko Alfredo Moraza laguna dut, eta hark badu lan bat egina, eta nik horren laburpen bat egiteko baimena dut. Hirugarren batekin ere banabil, Aretxabaletako eskolen historia jaso nahian. **Horiek, noizko?** Ikusi egin behar. Kontua da horiek argitaratzeko finantzaketa lortzea.

Loramendi elkarteak jostailu erakusketa antolatu du

Azaroaren 29an eta 30ean, 17:00etan hasita, hiru begirale izango dira behar duenari azalpenak ematen

I.B ARETXABAETA

Loramendi elkarteak antolatuta, azaroaren 29an eta 30ean, jolas erakusketa izango da Mojen komentuan. 17:00etatik 19:00etara bitartean, mota askotariko jolasak egongo dira bertan ikusgai.

Batez ere, jolas kooperatiboak izango dira. Lehiakortasun jarrerak gutxitzea dute helburu, eta, talde giroan, balio ezberdinen lanketa ahalbidetzen dute. Haurrengan agresibitatea apaldu, lagun giroa sortu eta komunikazioa bultzatzen dute, besteak

beste. Hori horrela, horiek ezagutzeko eta probatzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen diren herritarrek.

Gainera, hiru begirale egongo dira beharra dutenei laguntzeko; jolasen ezaugarriak azaltzeko eta hauek probatuz azalpenak emateko. Hori horrela, haurrek heldu baten laguntzarekin joan beharko dute, eta herriko familiak animatu nahi dituzte antolatzaileek. Batetik, jolas ezberdinak, berriak... ezagutzeko, eta, bestetik, Gabonetarako ideiak hartzeko.



AZ VISUAL MEDIA

Gabonetako iragarkia grabatzen

Pasa den asteburuan, AZ Visual Mediakoak Aretxarte Elkartearentzat Gabonetako iragarkia grabatzen izan ziren Aretxabaletako kaleetan zehar. Iaz, Freddie Mercury izan zen, eta aurten, Carles Puigdemont izango da herritarrek herrian erostera bultzatzen. Hala, domeka goizean, azken grabaketak egiten izango dira Durana kalean.

Udazkenari agur esango diote Kurtzebarrikoek

Azaroaren 29an, *Udazkenari agur* jaia ospatuko dute Kurtzebarri eskolakoek. Iturri gorri pilotalekuan 17:30ean batuta, honako hau izango da egitaraua: Txalapartarien emanaldia, Lekaixo saioa, *Udazken kantari: Denok kantari!* saioa, seigarren mailakoen talo tailerra amandreen laguntzarekin, eta mahai inguruan; buzkantzak, gaztainak, sagardoa... izango dira.

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel: 943 79 08 07
ARETXABAETA



Eskoriatzako, San Asensioko eta Urduñako bandak batera, zapatuan eskainitako topaketan. ENERITZ KORUJO

Urduñako topaketan, banden zikloa ixten

San Asentzión eta Eskoriatzan topaketa eginda, joan den zapatuan zikloa itxi zuen Eskoriatzako Bandak, Urduñan egindako topaketarekin. Gaur, berriz, Santa Zezilia egunaren bueltako kontzertua eskainiko dute Zaldibar antzokian, 20:00etan

Imanol Beloki ESKORIATZA

Atzo izan zen Santa Zezilia, musikariaren zaindariaren eguna, eta, horren bueltan, kontzertua eskainiko dute gaur Beheko Errota Eskoriatzako Musika Eskolako bandako musikariek, Zaldibar antzokian, 20:00etan.

Jesus Urrutia bandako zuzendariaren gidaritzapean eskainiko duten lehenengo kontzertua izango da, eta herritarrek gonbidatu nahi dituzte bertan izango den emanaldira.

Batuta aldaketa

Aspaldi adierazi bazuten arren, Angel Bañares bandako zuzendariak kargua utzi, eta Jesus Urrutiak hartu zion erreleboa. Hala, ofizialki egiteko, emanaldiaren lehenengo pieza Bañaresekin eskainiko dute bandako musikariek, eta hortik aurrerakoak Jesus Urrutiaren gidaritzapean eskainiko dituzte. Honela, Jesus Urrutia Eskoriatzako bandako zuzendariaren lehenengo kontzertua izango da.

Santa Zeziliaren omenez herriko bandak emandako udazkeneko kontzertua doakoa izango da, eta, besteak beste, honako pieza hauek eskainiko dituzte: *African Symphony*, *Coliseum*, *Arraunlariak*...

Urduñako topaketa

Eskoriatzako, San Asensioko eta Urduñako bandek hainbat topaketa egiten dituzte; banda guztiak elkartu, eta musika oinarri izanda asteburu eder bat pasatzeko eta elkarren arteko harremanak sendotzeko asmoz. Hori horrela, pasa den zapatuan, Urduñan egin zuten, hirugarren urtez, topaketa. 2016an, San Asentzión; iaz, Eskoriatzan; eta pasa den astebu-

**JESUS URRUTIA
ZUZENDARIAREKIN
ESKAINIKO DUTEN
LEHEN KONTZERTUA
IZANGO DA GAURKOA**

ruan, Urduñan egin zuten. Oso ondo pasatu zutela adierazi du Eneritz Korujo Eskoriatzako bandako kideak: "Goiza kalejirarekin hasi genuen, banda bakoitza herriko puntu batetik hasita. Hala, plazan elkartu ginen, eta bertan bi pieza eskaini genituen hiru bandok batera; gutxi gorabehera, 100 musikari elkartu ginen. Guztiok batera bazkaldu, eta 19:00etan, berriz, kontzertua eskaini genuen. Banda bakoitzak bi pieza jo zituen, eta hirurok batera beste hiru jo genituen, Jesus Urrutiaren gidaritzapean".

Topaketarekin segitzeko asmoz

Eskoriatzako bandako 30 musikari izan ziren Urduñan, eta, hiru herrietan topaketa eginda, zikloari amaiera eman diote. Hala ere, egitasmo horrekin jarraitu nahi dute, eta, eguna zehaztu barik duten arren, datorren urtean San Asentzión batzeko asmoa dutela adierazi dute.



Udal ordezkariak, parte-hartzaileak eta epaimahaikideak. I.B

Pintxo Lehiaketako irabazlea, Urrestillaren 'Kokotxa-nel'

Eskoriatzako Udalak antolatutako Pintxo Lehiaketak eman duenarekin pozik agertu dira antolatzaileak

I.B. ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak antolatutako III. Pintxo Lehiaketako irabazlea Urrestilla tabernako *Kokotxa-nel* pintxoia izan da. Hori horrela, 300 euro eta Buztinate elkarteok egindako trofeoa jaso ditu Leire Errastik, Urrestillako ugazabak.

Umore puntuarekin asmatutako izena duen pintxoia egiteko, kokotxa erabili du Errastik osagai nagusi bezala, eta, horrez gain, tenpura-irina, perrexila, berakatza, piperra, tipula, ogia eta patata erabili ditu. Esan beharra dago Akeita eta Miren-

txu tabernekek ere parte hartu dutela, eta haien pintxo bereziekin disfrutatzeke aukera ere izan dute herritarrek.

Antolatzaileak, "pozik"

Herritarren partaidetza ona izan dela adierazi dute antolatzaileek. Honela azaldu du Eneritz Zubiak, Ibarraundiko teknikariak: "Pozik gaude lehiaketak eman duenarekin. Hiru tabernak soilik hartu dute parte, baina jendeak erantzun egin du. Datorren urtera begira, gustatuko litzazuke berriz antolatzea, baina ea partaidetza handiagoa dagoen..."



ALBERTO GARRO

Gaztaina erreak Jose Aranan

Azaroaren 14an, gaztaina erre eguna ospatu zuten Arizmendi Ikastolako Jose Arana gunean. Lau aitonak eta hainbat gurasok elkarlanean prestatu zituzten gaztainak, eta arratsalde ederra pasa zuten bertan batu zirenek. Batetik, gaztainak jaten, eta bestetik, dantzatzen. Eguraldi bikaina eta giro aparta izan zuten, gainera.

Indarkeria matxista gaitzesteko ekintza ugari

Domekan izango da Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna, eta, Udalak deituta, elkarretaratzea egingo dute, plazan, 12:00etan. Horrez gain, martitzenean hitzaldia eta asteburuan gaztelekuko nerabeen ekintzak izango dira, besteak beste

Imanol Beloki ESKORIATZA

Azaroaren 25a da Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna, eta, horren bueltan, hainbat ekintza izango dira datorren astean Eskoriatzan. Asteon, bestalde, Bertha Gaztelumendik zuzendutako *Volar* izeneko dokumentalaren proiektioa izan da, Zaldibar antzokian.

Herritarrek eguaztenean ikusi ahal izan zuten ikus-entzuzkoak indarkeria jasan duten bederatzik emakumeren testigantzak jasotzen ditu, eta lan horren helburua da testigantzen bitartez indarkeriazko jokaerak aldatzea eta herritarrak kontzientziatzea. Hala, proiektioaren ostean, Asociacion de Mujeres al Cuadrado elkarteak bi kidek solasaldia eskaini zuten. Aholkuak eman zituzten, genero berdintasuna eta indarkeriarik gabeko jendartea errealtitatean izan daitezkeen, eta ez utopia.

Elkarretaratzea domekan

Domekarako, 12:00etarako, elkarretaratzea deitu dute Eskoriatzako Udalak, Feminista Taldeak eta Gu Denon Elkartek. Hain zuzen, Fernando Eskoriatza plazan izango da, eta Udaleko ordezkari politikoez herritarrak gonbidatu nahi dituzte Indarkeria Matxistaren Kontra-



Eskoriatzako gaztelekuan margotu berri duten murala. ESKORIATZAKO GAZTELEKUA

ko Egunarekin bat egitera. Horrekin batera, pankarta bat egingo dute, gertatu diren indarkeria matxista datuekin, eta, elkarretaratzea amaitzean, pankarta herriko sarrerako zubian jarriko dute.

Tratu txarren gaineko hitzaldia

Martitzenean, berriz, *Tratu txarrak, erasotzailearen profila* izeneko hitzaldia izango da, 18:00etan, kultura etxean. Elebitan izango den saioa Euskadiko Birgizarteratze Institututuko Jorge Porraseskainiko du.

degian, Soloarte taldearen aurka.

Ohorezko gazte mailako Eskoriatza taldeak, bestalde, Auzoak De Zierbena taldearen aurka jokatu du, zapatuan, 16:00etan, Zierbenan, eta senior mailako emakumezkoek, berriz, Lauburu Ibarra taldearen kontra jokatu du, gaur, 21:15ean, Eskoriatzan. Azkenengo bi urteetako liga txapelaren kontrako partidua, Gipuzkoako kopako finalerdiko joaneko partidua izango da.

Eskoriatza areto futbol taldea, goiko postuei begira

Pasa den astean, etxetik kanpo irabazi zuen Euskal Ligan ari den Eskoriatza areto futbol taldeak, Hegalariak taldearen aurka, 1-2. Aste honetan ere hiru puntuen bila irtengo dira kantxara Molinaren mutilak, sailkapeneko goiko postuetan sartzeko asmoz. Hori horrela, zapatuan 16:30ean jokatu dute partidua, Manuel Muñoz kirol-

Gaztelekuko ekintzak

Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunarekin bat eginez, hainbat ekintza antolatu dituzte gaztelekuko nerabeek. Zapatuan, 18:00etan, Gaztelekuko gazte nagusienek feminismoa zer den azalduko diete gazteenei, merendola baten bueltan.

Domekan, aldiz, 18:00etan, txoko hezkidetzaila inauguratu dute, eta, ostean, trikiti doinuak beteta egongo den kontzertua eskainiko du Gona Gorriak, Eskoriatzako neska gazteek osatutako taldeak.

Txerrikumeak taldeak kontzertua eskainiko du Inkernun

Atxorrotx Kultura Elkartek antolatuta, Txerrikumeak izeneko Aretxabaletako punk-rock taldeak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, Inkernu tabernan. Emanaldia 22:30ean hasiko da, eta aretxabaletarrek *Todo va bien* izeneko diskoaren kantuak eskainiko dituzte ohol-tza gainean, baita bertsioren bat edo beste ere.



Gatz-bidea egin aurretik herriko historiaren gaineko azalpenak entzuten. PILAR ETXANIZ

Gatz-bidearekin bat egin dute Debagoieneko Agijupens-koek

Bidezidorra berreskuratzeko egindako lana aitortu zuten, herriko historia ezagutu eta bidea oinez eginez

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Debagoieneko Agijupens Erretiratuen eta Pentsiodunen Elkarteak *Gatz-bidea, Leintz lotzen* proiektuarekin bat egin dute. Horretarako, azaroaren 14an, pasa den eguaztenean, Gatzagatik Eskoriatzarako bidea egin zuten. Bide batez, bidezidorra berreskuratzeko egin duten lana aitortu zuten.

Gatzaga eta Eskoriatza batzen dituen bidezidorra egiteko lanak auzolanean eginda daude, eta gatzagarren ondare hori berreskuratzeko eta herria bailararekin lotuz mugikortasuna hobetzea du helburu. Hala, Agijupens erretiratu eta pentsiodunen elkarteak adierazi dute balio handiko lana izan dela: "Gatzagatik Eskoriatzarako egin diren lan hauek balio handia daukela uste dugu. Nagusien parte hartzea, berriz, eredugarria da, demostratzen baitu adinean au-

rrera egin arren gure aletxoak ipini dezakegula, proiektu sozialerako aktiboki parte hartuz eta, era berean, belaunaldien arteko harremanak sendotuz", adierazi du elkarteak Pilar Etxanizek.

Toki Eder elkarte txalotu

Agijupens elkarteak Leintz Gatzagako herri-komunitatearen lana baloratu eta txalotu gura izan dute, eta, bide batez, Leintz Gatzagako Toki Eder erretiratuen elkarteari eskerrak eman eta haien inplikazioa aitortu.

Hala, azaroaren 14an, *Gatz-bidea*, lau kilometrotik gorako bidea egin zuten, salda goxoa hartu ondoren. "Toki Eder erretiratuen elkarteak kide Eugenio Otxoak herriko historia azaldu zigun bertatik bertara, eta, ondoren, ibilaldia egin genuen, giro ezin hobean. Eskerrak eman nahi dizkiegu egin ziguten harrekatik".

Gaztainuzketa mendi etxeak itxiko dituzte abenduaren 24an

Arlaban gainean dauden Gaztainuzketa mendi etxeak alokairuan izan dituzte Alex Gorosarik eta Ane Zubillagak, lau urtez.

Gatzagako Udalaren jabetza-koak diren mendi etxeak abenduaren 24an utziko dituzte Gorosarik eta Zubillagak. Luzaizko aukera izan arren, uztea erabaki dute; hori horrela, Udalak bi hilabetez itxiko ditu

mendi etxeak, inbentarioa egin, eta berriz enkantean ipintzeko. Honela adierazi du Juanito Bengoa alkateak: "Inbentario lanekin itxi aurretik hasi nahi dugu. Konponketak egingo ditugu, eta, behar bezala uzten dugunean, lehiaketara aterako dugu. Aste Santurako zabalik izatea nahiko genuke, baina eskatzaileak baldintza batzuk bete beharko ditu, aurrerago zehaztuko ditugunak. Informazio gehiago nahi duenak udaletxera 943 71 47 46 telefonora deitu dezake".

Lanean, emakumeen ahalduntzearen alde

Antzuolako emakume talde feministak, Andramanuelak, urtebete daramatza emakumeen ahalduntzearen alde lanean eta indarkeria matxista salatzen. Domekan, indarkeria matxistaren aurka protesta egingo dute antzuolarrek

Maidar Arregi ANTZUOLA

Andramanuelak emakume talde feminista urtebete bakarrik daraman arren lanean, urte eman korra izan dela kontatu du Josune Martinezek, taldeko kideak. "Urte honetan zentratu gara, batez ere, emakumeen aurkako erasoak salatzen. Horren aurrean antzuolarren babesa jaso dugu eta parte hartze polita sumatu dugu. *La Manada* auziak eragindako erantzuna, adibidez, hor dago. Hainbat elkarretaratze egin genituen, eta herritar asko eta asko kalera irten dira gurekin batera hura salatzen. Erantzun polita izan zela uste dut".

Esku artean, baina, greba feministaren gaia dutela aurreratu dio GOIENARI emakume talde feministako kideak: "Bailara mailan, elkargune bat sortu guran gabiltza eta Martxoaren 8ari begira emakumeon greba antolatu gura dugu. Abenduaren 14aren bueltan –zehazteke dago oraindik eguna– batzar irekia egin gura dugu, eta greba antolatzeke taldea sortu gura dugu Antzuolan".

Emakumeen Mundu Martxa

Martinezek esan du Emakumeen Mundu Martxako Protokoloan sartzeko eztabaida mahai gainean duela Antzuolako emaku-



laz eginiko elkarretaratzea Herriko Plazan. ANDRAMANUELAK

EMAKUMEEN GREBA ANTOLATZEKO BATZAR IREKIA EGINGO DUTE ABENDUAN

me talde feministak. Helburua indarrak batzea dela dio Andramanuelak taldeko kideak: "Erailketak izan direnean Euskal Herrian kalera irten gara eta hor ere sentitu dugu herri-tarren babesa oso handia izan

dela. Horregatik, eta erantzun bateratu baten bila, Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxako Protokoloan sartu edo ez erabakitzen ari gara une honetan. Eztabaida irekia da, antzuolar orori irekia dagoena".

Elkarretaratzea

Azaroaren 25ean, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna izango da. Hala, domekan, elkarretaratzea egingo dute, Herriko Plazan, eguerdiko ordu batean, *Ez gae danok!* lelopean.

Ukitu feminista Euskaraldian

Andramanuelak taldeko kideek azaldu dute azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean Euskaraldiarekin bat egingo dutela; alegia, feminismoa eta euskara elkarren eskutik bizi izango dutela.

Emakumeen ahalduntzea

Hamaika egun horietan, emakumeen ahalduntzea presente izan gura dute.



Emakume talde feministak bat egin du Euskaraldiarekin. ANDRAMANUELAK

EUSKARALDIA



OLALDE ELKARTEA

Olalde ere, Euskaraldiarekin bat

Euskaraldiaren uholde geldiezinak bete-bete harrapatu ditu Antzuolako hainbat eragile, herritar eta elkarte. Olalde pilota elkarteko kideek ere Euskaraldiarekin bat egiten dutela ozen adierazteko, talde argazkia atera dute herriko pilotalekuan. Elkarteko kide eta pilotariak aukeratu dituzte euren rola eta hamaika egunez ohiturak aldatzeko ahalegina egingo dute.

EUSKARALDIA



LANDATXOPE ELKARTEA

Landatxopen ere, rola banatuta

Gaurtik abenduaren 3ra bitartean herrian egingo diren ekimenekin bat egingo dute Landatxoeko kideek ere. Elkarte zabala da Landatxope eta bertan askotariko identitateak eta sentsibilizazioak batzen direla kontuan izanik, ariketa emankorra eta garrantzitsua egingo dute. Behin Euskaraldia amaituta ohitura berri horiei eustea dutela asmo diote.

Garbiketa eta peoi lanak egiteko bi pertsona behar dira

Udalak Antzuolan erroldatutako bi lagun kontratatuko ditu hiru hilabeterako: batak Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jaso behar du; bestea familia karga duen emakumea izan behar da. Eskaera Lanbideren bidez egin behar da eta hori egiteko epea azaroaren 26an bukatzen da. Informazio gehiago, Goiena.eus/antzuola helbidean.

Aurtengo 'Tripontzia' ekimenerako txartelak salgai daude

GEDk eta Kontseiluak aurten ere *Tripontzia* ekimena abian dute eta txartelak salgai daude. Gabilondo harategian, Amaia, Nerea eta Klikatu dendetan daude salgai. Bestalde, Kalebarren-go zubian ere postua jarriko dute Antzuolako GED taldeko kideek azaroaren 23an eta 30ean eta abenduaren 5ean, hurrenez hurren.

EUSKARALDIA



EUSKARA ARDATZ
•
DEBAGOIENEKO
'AHOBIZI' ETA
'BELARRIPREST'-AK
•
11 EGUN BAINO GEHIAGO
•
EGITARAUA
•
"HASTERA GOAZ"

XABIER URTZELAI

@cenarro
cold forming specialists

Euskaraldiarekin bat!



Haurrak ere euskara euren egunerokoan ardatz bihurtzeko prest. IMANOL SORIANO

Simetriatik asimetriara, euskara ardatz bihurtuz

Gaur hasita, 11 egunez, euskara norbanakoen bizitzaren zentralitatera eramatea helburu, Euskaraldiak 'ahobizi'-ekin eta 'belarriprest'-ekin beteko ditu herriak. Ariketa soziologikoak, baina, hamabigarren egunetik aurrera behar du izan eragina

Jokin Etxebarría DEBAGOIENA

Lazkao Txikiri galdetu zioten behin: "Euskararen alde zer egin behar dugu, Joxe Migel? Eta hark, harrituta, erantzun: "Zer egingo dugu, ba... hitz egin!". Gure hizkuntza ohiturak aldatzeko gonbita egiten zigun bertolari txiki handiak eta proposamen berarekin dator Euskaraldia ekimena.

Hain zuzen, konplexu guztiak gainetik kendu eta euskara ardatz bilakatzeko 11 egun daude aurretik, gaurtik hasita, *ahobizi* edo *belarriprest* izanda, hizkuntza norbanakoen bizitzaren zentralitatera eramanda.

Azken txanpa egundokoa izan da, euskararen olatura igo nahi izan dute askok eta Arrasaten eta Oñatin, adibidez, bakoitzak egindako hautua identifikatzeko balio duten txapak agortu egin ziren eta gehiago eskatu behar izan zituzten. Aurreikuspenak gainditu egin ditu ibarrean Euskaraldiak. "Izen ematea handia izan da, zalantzarik gabe, bai hasieratik, udalerriei dagokienez, 400 herri batzordetik gora eratu baitira, eta baita herritarren izen ematei dagokienez ere.

Baina gure benetako ariketa orain hasten da". Arrate Illaro Euskaraldiko koordinatzailearen hitzak dira. Izan ere, izena ematea bada pauso garrantzitsu bat, baina gure egunerokoan euskarari lehenetasuna ematea ez da horren erraza.

2017ko martxo ezker

Urte eta erdi baino gehiago da ekimena diseinatu, ekarpenak jaso eta komunikazio lanketa guztia egiten hasi zirenetik. Lazko azaroaren 23an aurkeztu zuten ekimena, eta, ordutik hona, atxikimendu pila jaso eta aurrerapausoak bata bestearen atzetik eman ditu Euskaraldiak. "Hala ere, Lasarten, Agurainen eta Egia auzoan [Donostia], adibidez, aktibazio dinamikak lehena egin zituzten eta hori da Euskaraldiaren oinarri eta abiapuntua", dio Arrate Illarok.

Euskararen ezagutza maila handitzeko lan eskerga egin izan da orain arte, baina, agian, erabilerari ez zaio askorik erreparatu eta gaur egun alde handia dago bi esparru horien artean. "Egotetik egitera badago jauzi handi bat eta 11 egun hauek



ekidegroup

EUSKARALDIA rekin bat

www.ekide.es

Ingeniaritza + fabrikazioa



Kontrol tresnak



Ikusmen artifiziala



BLACK FRIDAY

azaroak 22 23 24

Musakola z/g ARRASATE • Tel.: 943 71 10 30

BEZa

oparituko dizugu

produktu Elektroniko eta Etxetresna Elektrikoetan



ARRASATE

EUSKARALDIA

11 EGUN

EUSKARAZ

DEBAGOIENEAN IA 12.000 LAGUNEK EMAN DUTE IZENA ETA GEHIENAK 'AHOBIZI' IZANGO DIRA

'HAMAICA'-K BADAUKA ADIERA BEREZIA EUSKARAZ, 'ASKO' ERE ADIERAZTEN DUELAKO

AURREIKUSPENAK GAINDITU ETA HERRI BATZUETAN TXAPA GEHIAGO ESKATU BEHAR IZAN DITUZTE

EUSKARAREN EZAGUTZA MAILAREN ETA ERABILPENAREN ARTEAN ALDE HANDIA DAGO GAUR EGUN

egitera bultzatu behar duen nolabaiteko ariketa soziala behar dute izan", adierazi du Iker Agirrek, Arrasateko Euskaraldiko koordinatzaileak.

Hamaika-k badauka adiera berezia euskaraz, *asko* ere adierazten duelako. Hamaika zenbakiarekin jokatu nahi izan da horregatik, eta baita herrietako eta nazional mailako hamaikakoak sortu ere. Leintz Gatzagaren kasua, baina, nahiko bitxia da: herri txikia izanda, hamaikakorik ez dute egin. Hala ere, herritarren zati handi batek ekimenarekin bat egingo du.

196.000 izen emate

Irailaren 20an ireki zen *ahobizi* edo *belarriprest* moduan izena emateko epea. Hala ere, herri batzuetan, Euskaraldiak irauten duen egunen barruan ere egongo da izena emateko aukera. Bergaran, adibidez, azaroaren 27 arte dute zabalik epea. Hala ere, datu ofizialen arabera, Euskal Herri osoan 196.000 lagunek agertu dute, era batera edo bestera, ariketa sozial honetan parte hartzeko gogoia. Horietatik, %74k eman dute *ahobizi* modu-

ra jarduteko izena eta %26 ariketara *belarriprest* rolean.

Gipuzkoan izan dira izen emate gehien: 84.000, guztira. Parlaideen ezaugarriari dagokienez, izena eman dutenen %63 emakumezkoak izan direla azpimarratu dute, eta, adin tarreak kontuan hartuta, 36 eta 45 urte artekoak dira gehiengo: %28.

Debagoienari dagokionez, ia 12.000 lagunek eman dute izena. Eta Euskal Herrian gertatu antzera, gehienak *ahobizi* paperean ariketara dira.

11 egun izango dituzte izena eman duten guztiek euren eta inguruko hizkuntza ohiturak aldatzen saiatu eta simetriatik asimetriara eramaten. Hau da, hizkuntza gutxitua nagusira egokitu, eta, beti galtzaile atera beharrean, txikiarendako espazioak bilatzen saiatu eta asimetriarantz, denen egunerokotasunean, euskarari behar duen lekua eman. Barruak astindu eta hamabigarren egunetik aurrera ere, euskara ardatz bilakatu dadin; bestela, Amets Arzallusek dioen moduan, 11 egun hauek kosmetika hutsean geldituko baitira.

Ez etsi, euskaraz eutsi

Hizkuntza ohiturak aldatzerik badago, baina aldaketa horiek adostuta eta besteekin batera egin behar dira. Errotuen dauden ohiturek, jendeak gertu-gertukoekin dituen horiek, arreta eta lanketa bereziak eskatzen dituzte. Lehen pausoa da *ahobizi* edo *belarriprest* izateko gertu egotea.

- **Ahobizi-a:** Azaldu ingurukoei zein erabaki hartu duzun, 11 egunetan euskaraz egingo diezula euskara ulertzen duten guztiei, eta ezezagunei lehen hitzak euskaraz egingo dizkiezula, baita hurrengoak ere, euskara ulertzen badute, behintzat. Hurbilekoekin hasi eta ekin inertiari apurtzeari. Gonbidatu lagun eta ondokoekin ariketa honetan parte hartzera eta elkartrukatu bizi izan dituzun eta bizitzen ari zaren esperientziak beste parte hartzaileekin. Aztertu aurreiritziak nola gainditu ditzakezun eta baztertu itzazu, euskaraz ezustekoz beteko zaituelako. Eta, batez ere, zailtasunen aurrean ez etsi, euskaraz eutsi. Helburuak lortu edo ez, saiatzea merezi duelako, zabaldu ate berriak euskarari.
- **Belarriprest-a:** Jokaera aktiboa eduki eta adierazi solaskideei euskara jasotzeko prest zaudela. Zuri euskaraz egiteko eskatu eta zuk zeuk ere horrela egin nahi eta ahal bestetan. Baliatu gainontzeko *ahobizi* eta *belarriprest*-ekin izango dituzun topaketa eta elkarguneak esperientziak trukatzeko. Tarteka, elkarrizketa elebidunak sor daitezke; egoera bakoitzean zuk nahi duzun hizkuntza erabili, baina eskatu euskaldunei zuri euskaraz egiteko. Zure euskara euskararik onena dela sinistu eta kontuan hartu praktikatzeko delako erraztasuna lortu eta eroso sentitzeko bidea. Ariketa honen bidean hamaika lorpen eta beste horrenbeste zailtasun topatuko dituzu, baina ez etsi!, aurreiritziak atzean utzi eta zabaldu zaituz euskarara.

Goizper Group
Elkarlanean garatzen

Gure aktiborik garrantzitsuenak dira. Ingurune sozialarekin konpromisoa eta gure jatorriak mantentzea dira gure baloreak. Garapen profesional eta sozialak dira Goizperko proiektu guztien helburu nagusiak.

EUSKARALDIA

www.goizper.com      Tel. 943 786 000

Debagoieneko hamaikakoan ere, ahoetatik belarrietara




**JON
UGARTEBURU
ANTZUOLA**

"Aukera polita da ohiturak aldatzeko eta gaztelaniaz egiten dugun horiekin euskaraz egiten saiatzeko. Barrerak apurtzen joatea garrantzitsua da eta Euskaraldiarekin hori lortuko dugu. Elkarrizketa elebidunak mantentzea nekeza izango da, baina txapek lagunduko digute horretan. Hamaika egunotan lortzen duguna aurrerantzean mantentzea erronka polita izango da".



**MIREN
DIAZ DE GEREÑU
ESKORIATZA**

"Euskaraldia onuragarria izango da denontzat. eta euskarari bultzada emateko balioko du, baita harremanak eguneratzeko ere. Txapa jasotzera joan nintzean, espero ez nuen jende asko ikusi nuen, eta, egia esan, asko poztu nintzen. Nire inguruan, erdaraz egiteko ohitura handia daukat, baina txapak aldean edukitzeak lagunduko dit ohitura horiek aldatzen".



**JULIA
PAJARES
BERGARA**

"Malagakoa naiz eta, askotan, zaila egiten zait euskaraz hitz egitea. Hau inizatiba ona da euskaraz mintzapraktika egiteko eta gehiago ikasteko. Nire mutil-lagunarekin gaztelaniaz egiten dut gehiena, eta ez dugu euskaraz egiteko ohiturarik, baina Euskaraldiarekin hori aldatzea espero dugu. Bergaran oso motibatuta eta ilusionatuta ikusten dut jendea".



**HARITZ
GALLASTEGI
ELGETA**

"Elgetan bizi naiz, eta Bilbon egiten dut lan. Bi errealitate oso ezberdin dira, eta, batez ere, Bilbora begira hartu dut rol hau. Euskararen kontua askoz motelago doa han, oso gutxi entzuten da oraindik, eta jendea horretara bultzatzen saiatuko naiz; ahalegintzen denari indar apur bat ematen. Elgetan ere badago zer hobetu, noski, baina Bilbokoa beste kontu bat da".



**JOXU
ARANA
BERGARA**

"Hizkuntza ohitura kontua da eta ohiturak aldatzea ez dan lan sinplea. Euskaraldiak aukera aproposa uzten digu horretarako. Ni ia %100ean bizi ninteke euskaraz, baina zenbait taldetan gaztelaniarako joera dugu. Niretzat, pertsonalki, kontzientziario ariketa bat izango da, eta esfortzua egingo dut normalean erdarara jotzen dutan horiekin euskaraz tinko mantentzeko".

Zugandik gertu Bertakoak

ausolan

Kongregazio erlijiosoa

Egoitzak

Ikastetxeak

Garbikuntza

Enpresak

Ospitaleak

Euskaraldiarekin bat!

LANA

Elkarrekin euskararen alde

www.lana.eu



**GOIO
ARRIETA**
ARETXABAETA

"Hasiera batean, *ahobizi*-a nintzen, baina rolez aldatzea erabaki nuen, beste batzuei laguntzeko eta euskaraz egitera animatzeko asmoarekin. Izan ere, *belarriprest*-ek garrantzi handia dute Euskaraldian. Garai batean, nire lagunekin gaztelaniaz egiten nuen, eta familian ere bai. Gaur egun, ordea, gehiena euskaraz egiten dut eta nire egunerokoan *ahobizi*-a naizela esan daiteke".



**NEREA
MARURI**
LEINTZ GATZAGA

"Euskaraz bizi nahi dugunontzat, baliagarria eta aproposa izango da Euskaraldia. Gatzagan ere badu bultzada baten beharra euskaraz, eta ohiturak aldatzeko balioko digu honek. Izan ere, oraindik asko dira euskaraz egin ditzakegun solasaldiak eta gaztelaniaz egiten ditugunak. Kontzientziak astintzeko eta erabiltzen dugun hizkuntzaz jabetzeko balioko digu".



**CLAUDIA
DI PASCUALE**
ARRASATE

"Duela 11 urte Arrasatera etorri nintzenetik, euskaraz jakin gura izan dut, eta ama izan nintzenean, are gehiago. Egunerokoan, kafetegian, etxean eta kalean ikasi dut euskara, nire kabuz. Haurrekin beti egiten dut euskaraz eta jende nagusiarekin batzuetan kostatzen zaidan arren, euskaraz egiten saiatzen naiz beti. Urteko 365 egunak nire Euskaraldia pertsonala dira".



**IGONE
OSINAGA**
ARAMAIO

"Alkatea etorri zitzaidan hamaikakoaren parte izan nahi ote nuen proposatzera. Onartu egin nuen, eta, orduetik, Euskaraldiarekin konprometituta nago. Nire egunerokotasunaren zati handiena euskaraz egiten dudana arren, badaude gaztelaniaz egiten ditudan elkarriketak ere, eta horiek aldatzen saiatuko naiz. Ekimen honek lagunduko dit ohitura horiek aldatzen".



**DAVID
VERNAZA**
OÑATI

"Duela hamazazpi urte etorri nintzen Ekuadortik, eta zortzi urte daramatzat euskara ikasten. Etxean eta lanean euskaraz egiten dut. Bi lagun kuadrilla ditut, Ekuadorkoa eta Oñatikoa. Lehenengoan, gaztelaniaz egiten dut; bigarrenean, euskaraz. Euskaraldian, espero dut gehiago ikastea, eta ea Ekuadorko lagunak ere euskara ikasten hasten diren; hori izango da erronka".



**SONIA
MIRANDA**
ELGETA

"Elgetan gehiena euskaraz egiten da, eta ikasi beharra sentitu nuen. Ume txiki bat daukat, eta hau aukera ona da euskaraz gehiago hitz egiteko berarekin. Erabaki nuen une oro euskaraz egitea, eta orain, nahiko ondo hitz egiten dut. Hala ere, ez naiz ausartu *ahobizi* izaten. Euskaraldia garrantzitsua da euskarari bultzada emateko, baina norberak egin behar du esfortzua".

Grupo ULMA, S. Coop. Garagaltza Auzoa 51, 22 P.K. 20560 Oñati (Gipuzkoa) T 943 25 03 00 www.ulma.com grupoulma@ulma.com

Hamaika egun baino hamaika aldiz gehiago!

- Antzerkia
- Bisita gidatuak
- Euskararen kriseilua
- Euskararen eguna
- Kantu-jira
- Afari-tertulia

Euskaraldia 11 egun euskaraz

OÑATI dabilen herria



Arrasateko kuadrilla, Biziprest egunean. GOIENA



Aramaioko bikoizketa lehiaketa. GOIENA



Antzuolako erretiratuak, atxikimendua erakusten. GOIENA



Aretxabaletako merkatariek ere Euskaraldia hauspotu zuten. GOIENA



Virgina Imazen hitzaldian parte hartu zutenetako batzuk. GOIENA

Hamaika egun hauetan baino askoz gehiagotan

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra arteko epealdiaz gain, askoz aurretik hasi ziren bailarako eragileak Euskaraldiaren gaineko ekintzak egiten, Euskaraldia hauspotzen: aurkezpenak, hitzaldiak, atxikimenduak, lehiaketak, argazki saioak, ikastaroak...

EUSKARA SENDOTZEKO
BESTE URRATS BAT

EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ

Eskerrik asko herritar eta entitate sustatzaile guztioi!

JMA EUSKARARI ATEAK ZABALTZEN

AGENDA

EGUBAKOITZA 23

ARETXABALETA

17:00 Musika eskolako jaialdia eta txokolate-jana, Herriko Plazan.

ARETXABALETA

19:00 Hasierako ekitaldia, herriko Hamaikakoarekin, Herriko Plazan.

ESKORIATZA

19:00 Hasierako ekitaldia, Fernando Eskoriatza plazan. Ostein, argazki erraldoia.

ANTZUOLA

19:30 Hasierako ekitaldia, Zurrategi plazan.

ZAPATUA 24

ARRASATE

10:00 Muruparta Eguna, Muru gainean, Ttakun taldekoekin.

DOMEKA 25

ARAMAIO

19:00 *Hozkailua* antzezlan, kultura etxean.

ASTELEHENA 26

ARAMAIO

17:30 Lihori eta txarribodei buruzko bideoak, kultura etxean.

MARTITZENA 27

ARETXABALETA

19:00 Miriam Urkia euskaltzain oso aretxabaletarraren berbaldia Arkupen.

EGUAZTENA 28

ARRASATE

18:00 *Mintzodromoa* delako ekitaldia, Euskaraldian izandako bizipenak partekatzeko, Loramendi gelan.

ARAMAIO

18:30 Maputxeen errealitateari buruzko ikus-entzunezkoa, kultura etxean.

ARETXABALETA

19:00 Kike Amonarrizen berbaldia, kultura etxean.



Ahobizi eta Belarripres, Elgetako sarreran. LARRAITZ ZEBERIO

EGUENA 29

ARETXABALETA

18:30 Udaletxe zaharrean, topaketa.

ANTZUOLA

19:30 Bertso-poteoa, Beheko auzotik hasita.

EGUBAKOITZA 30

ARAMAIO

17:30 Bikoizketa lehiaketa, 8 urtetik gorakoendako, kultura etxean.

ARETXABALETA

22:00 Manez Eta Kobreak taldearen kontzertua, Arkupen.

ZAPATUA 1

ANTZUOLA

11:30 *Izan dute eraginik genero rolek hitanoaren erabileran Antzuolan?* hitzaldia Olanan etxean.

DOMEKA 2

ARAMAIO

12:00 Herri lasterketa, adinaren arabera, Bizente Goikoetxea plazan.

ELGETA

13:00 Herriko kantuzaleek kalejira egingo dute, Mendizaleen plazatik abiatuta.

ASTELEHENA 3

ESKORIATZA

12:30 Euskaraldiaren Herri Eguna. Taloak, dantza herrikoiak, Euskaraldian grabatutako bideoaren erakustaldia eta kantu bazkaria, Fernando Eskoriatza plazan.

ANTZUOLA

12:30 Eskolako umeek *flashmob*-a egingo dute, Euskaraldiaren omenez, Zurrategi plazan.

ESKORIATZA

17:00 Euskaraldiaren itxiera ekitaldia: buruhandiak, txokolate-jana, *Euskaraldiaren bizipenak*, *aulki baten gainean* bideo emanaldia eta Hamaikakoari agurra.

OÑATI

19:00 *Ez dok hiru* antzezlan, Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreekin. Euskal musikaren benetako istorioa kontatuko dute, Santa Ana antzokian, debalde.

ESKORIATZA

19:00 Tio Teronen Semeak taldearen *Festamentua* ikuskizuna. Umorea, musika eta dantza bateratzen dituen emanaldia, Fernando Eskoriatza plazan.

EUSKARA GURE LAN TRESNA

FAGOR 
ARRASATE

Euskara gure hizkuntza eta eguneroko erronka



EUSKARALDIAREKIN BAT!

*Hamaita egunez,
euskara ahoan!*



Bergara ●
metagra
 México ● Group

**HAMAIIKA EGUNEZ,
 EUSKARA AHOAN!**

EZ DUGU FAMILIA ASMATU
 BAINA BAI HURA ERAMATEKO AUTOA.



**CITROËN
 BERLINGO
 BERRIA**
 BERLINGOREN
 SORTZAILEEK EGINA



EUSKARALDIA
 11 EGUNEZ EUSKARAZ



Oñatiko sare feministako kideak, Eltzian duten lokalean. AMAIA TXINTXURRETA

Tulipanak landatuko dituzte elkarretaratzean

Oñatiko sare feministako kideek tulipanen bulbak, loreontziak eta lurra eramango dituzte domekako elkarretaratzera eta herritarrekin batera landatuko dituzte, 13:00etan, Foruen plazan. Zainduz gero, loratuta egongo dira Martxoaren 8rako

Oihana Elortza OÑATI

Margotutako harriekin eta lurrean landatuko dituzten landareekin instalazio bat egingo dute domekan herriko sare feministako kideek. Plazan egingo duten elkarretaratze "aktiboan" izango da, 13:00etan, *Guk planto* lelopean.

Tulipanak zaindu

Asteazken zehar hitzaldiak, proiektzioak eta film emanaldiak egin dituzte, besteak beste, Udalarekin batera azaroaren 25aren bueltan antolatutako ekintzen artean. Eta asteburuan hiru ekitaldi nagusi egingo dituzte: Egun Morea, harrien eta landareen instalazioa Santa Ana pareko lorategietan eta plazan egingo den elkarretaratzea.

Egun Morea "gozatzeko" eguna izango dela aurreratu dute Pototak taldekoek: "Planifikatu, antolatu, pentsatu, landu, ekin, borrokatu... oso garrantzitsuak dira, eta baita, bidean, elkarrekin ondo pasatzeko tarteark harreza ere".

Egun Morea da zapatua

Hauxe da Pototak talde feministak antolatu duen Egun Morearen egitaraua.

- **11:00etan**, dantza tailerra. Zubikoa kiroldegian.
- **14:30ean**, bazkaria. Antixena gaztetxean.
- **18:00etan**, Bertxortan emanaldia. Gaztetxean.
- **22:00etan**, kontzertuak gaztetxean. Taldeak: Kabbalah eta Gora Etorri.
- **01:00etan**, musika emanaldia Arrano tabernan. Taldeak: BassAgain eta. Selekhtha's DJ.

Domekan, sare feministako kideek eskuz margotutako harriak kolokatuko dituzte Santa Ana antzoki pareko lorategietan. Ez dituzte edonola jarriko. "Espiral moduko bat sortuko dugu, mugimendua irudikatuz, eta, tartean Martxoaren 8rako loratuta egongo diren tulipanen bulbak landatuko ditugu. Herriarren artean ere banatuko ditugu tuberkuluak plazako elkarretaratzean", dio sare feministako Maria Pilar Urteagak. Hiru mahai jarriko dituzte plazan, 13:00etan, eta bakoitzak bere landarea landatu ahal izango du loreontzian eta gero, etxera eramanez ahal izango du eta zaindu, Martxoaren 8rako loratuta egon dadin. Azaroaren 25a eta Martxoaren 8a lotuko dituen ekintza izango da hau.

Astelehenean, *Nagore* filma proiektatuko dute, Enpresagintza Fakultatean, 18:00etan, eta eguaztenean, berriz, Berdintasun Kontseilua osatzeko bilera egongo da.



Lourdes Idoiaga, kontu hartzailearen txostena eskuan duela, prentsurrekoan. E.A.

EAJk dio kale garbiketa zerbitzu berria ez dela "hain merkea"

Esan du EH Bilduk kaleratutako informazioa "zuzendu beharra" duela, "herritarrek kostu erreala jakiteko"

O.E. OÑATI

Kale garbiketa zerbitzua pluri-fikatzeagatik Udal Gobernuak eman dituen datuak ez direla zuzenak esan du EAJk, "informazio partziala" bakarrik eman duela gaineratuz. Lourdes Idoiaga bozeramaileak eguen goizean adierazi zuen moduan, EAJk txosten bat eskatu zion kontu hartzaileari, garbiketa zerbitzu berriaren kostuak jakiteko, eta txosten horrek "ez du inolaz ere aipatzen kostu berriak FCCrenak baino %30 merkeago direnik. Txostenak dio 2017ko kostu erreala 560.600 eurokoa izan dela

eta FCCk eskainitakoarena 567.300 eurokoa. Beraz, aurrez-koa%1eko da".

Adierazi dute Udal Gobernuak zortzi langileren kostuak hartu dituela kontuan, baina hamaika daudela kontratatuta. Horrez gain, makinerian inbertitu diren 258.583 euroak ezkutatu izana leporatu dio, "aurreko sistemaren baitan FCCk bere gain hartzen zituenak". Kalte-ordainak ere izan dituzte hizpide jeltzaleek, eta gaineratu dute oraingo sistema amortizatze hamarkadak beharko direla eta ez urte eta lau hilabete.

Oñatiko dendetan ere erabil daiteke 'Merkatari' aplikazioa

Txanda dendarien elkarteko 50 merkatarik parte hartuko dute ekimenean; tribial jolasa ere antolatu dute

O.E. OÑATI

Merkatari aplikazioa telefono mugikorrera jaitziz gero, herriko dendarien promozioak eta eskaintzak ikusteko aukera dago. Ez da online salmenta egiteko aplikazioa, baina, dendariarekin harremanetan jarrita, produktu hori erreserbatzeko aukera dute erosleek. "Merkatariendako erakuslehoi erraldoia" izango da.

Hiru hilabetez proiektua merkatariekin landu eta garatu ostean, erabilgarri dago herritarrendako. Txanda dendarien elkarteko 50 merkatarik parte

hartuko dute ekimenean. Guztiak dendak eta zerbitzuak dira.

Saria egongo da

Herritarrengana heldu gura dute orain, eta, horretarako, komunikazio kanpaina abiaraziko dute. Aplikazioa deskargatzen duten oñatiarren artean, aste bukaera pasa bat zozketatuko dute. Gainera, tribial jolasa egingo dute abenduaren 15ean, eta ekintzak, herriko eragile ezberdinekin: erretiratuekin, ikastetxeekin, musika eskolarekin, ludotekarekin eta kirol elkarteekin.

"Beharrezkoa ikusten dut Movember ekimena"

JON MANUEL MOVEMBER OÑATI

Bibotea utzi du azaroan eta aurten ere joango da Movember mugimenduak antolatu duen urteko afarira; duela sei urte operatu zuten eta barrabil bat kendu zioten

Oihana Elortza OÑATI

Jon Manuel oñatiarrak 37 urte ditu. 2012an, barrabiletako baten kokkor bat zuela konturatu zen. Hamabost egunera, ebakuntza egin zioten.

Noiz eta nola antzeman zizuten minbizia barrabiletan?

Duela sei urte, 2012an, kokkor bat sentitu nuen barrabiletako batean, dutxatzen ari nintzen bitartean. Emazteari esan nion, eta medikuarengana joatea pentsatu genuen. Kokkor hori ez zela handia esan zigun hark, hamar milimetrokoa zen, eta itxaroteko esan, handitzen zen edo ez ikusteko.

Minik ematen zizun?

Ez, ez dut inoiz minik eduki. Baina erabaki genuen beste mediku batengana joan eta haren iritzia ere jakitea.

Eta, zer esan zizuen beste medikuak?

Txikia zela esan zigun hark ere, baina operatzeko gomendatu zigun. Pentsatu, eta hori egitea erabaki genuen. Hamabost egunera ebakuntza egina zidaten, barrabil bat kenduta.

Zein emaitza izan zuen biopsiak?

Kokkorra eta inguruak garbi zeuden, baina, handitzen utziz gero, txarra izango zela. Minbizia izango zen ondorioa.

Garaiz tratatu zenuten, orduan.

Bai. Eta, egia esan, harrezkero, ez dut arazorik izan. Barrabila bera kendu zidaten, oso-oso, eta baita inguruko konduktuak ere. Orduetik hona, ez dut proba gehiagorik egin. Prostata zaintzera noanean egingo dizkirate gehiago. Horixe da medikuek esandakoa.

Barrabil bakarria duzu harrezkero?

Kendu zidatena ordezkatzeko protesia jartzea erabaki nuen, eta horixe daukat, protesia. Ez dit batere molestutzen, egunero bizitza normal egiten dut, ez dut trabarik edo mugarik sentitzen, eta, egia esan, gusturago. Barrabil bat kenduta,



Jon Manuel oñatiarra Portu plazan astelehen goizean. O.E.

"10 MILIMETROKO KOXKORRA ANTZEMAN NUEN BARRABILEAN, DUTXATZEN ARI NINTZELA"

gure arduretako bat zen ea horrek guraso izateko aukerak mugatuko ote zizkigun edo ez. Baina ez da horrela izan. Alaba bat dugu eta oso pozik gaude. **Senideren batek izan du horrelakorik aurretik edo zuk izan eta gero?** Ez. Egia da niri hau antzeman eta gero, probak egin dizkietela anaiari eta aitari. Ez dute ezer. Eta nire aurretik ez zuen inork eduki, ez.

Eta zure inguruan? Ezagutu duzu zuk izan duzun berdina edo antzerakoa izan duen beste inor?

Ba, egia esan, oso gutxi, inor ez esatearren. Markel Irizarrena denok ezagutzen dugu, hori eza-guna da. Errezeloa dut lankidaren bati inoiz analisisien ostean zerbait komentatu edo esan ote zioten, baina ez nago ziur. Egia esan, ez dut beste inor ezagutu barrabiletako minbizia izan duenik.

Bibotea utzi duzu zuk ere azaroan. Zer iruditzen zaizu Movember mugimendua?

Ondo iruditzen zait, eta beharrezkoa. Uste dut, gainera, urtetik urtera gero eta gehiagok uzten dugula bibotea. Egia da azken urteetan egonkortu egin dela afarirako elkartzaren garenon taldea, baina kalean ikusten dira oñatiarrak bibotearekin, bai.

Itsulapikoak jarri dituzue aurten ere hainbat tokitan, ikerkuntzarako dirua batzeko, eta herriko hiru bizartegiek bat egin dute aurten ere mugimendurekin.

Itsulapiko horietan batzen den dirua gaitz honi buruz ikerketak egiteko izango da hori. Jon, Sesiñena eta Igone bizartegiek, berriz, bibote kurioa izaten laguntzen digute. Tarteka bizartegietara joan eta bibotea txukun apaintzen laguntzen digute, mantenu lanak egiten dizkigute. Lan hori, gainera, doan egiten dute hilabete honetan, azaroan. **Noiz dira talde argazkia eta afaria?** Zapatuan 19:00etan elkartuko gara Ongi tabernan poteoa has-teko, eta 20:00etan aterako dugu talde argazkia, plazan. Afaria Iturritxon da, 22:00etan.

Kiroldegia eta Olaitturrik tokia dute Gobernuaren aurrekontuan

22.151.000 euroko aurrekontu proposamena egin dio Udal Gobernuak oposizioari. Aztertzen ari da EAJ

O.E. OÑATI

Aurreko urtean onartu ohi ditu datorreneko aurrekontuak Oñatiko Udalak, eta aurten ere asmo hori dute udalbatza osatzen duten bi alderdiek. Abenduaren 5eko osoko bilkuran eztabaidatuko dituzte. Data horri begira, Udal Gobernuak aurrekontuaren aurrerapena pasa dio aste honetan oposizioari.

Plazako kioskoa

22.151.000 euroko aurrekontua da 2019rako Udal Gobernuak proposatu duena. "Aurrekontu oreakatua", euren esanetan. "612.000 euroko aurrezki arrunta aurreikusten da". Inbertsioei dagokienez, "estrategikoak diren proiektuen azterketa eta lanke-ta fasea burutu ostean, exekuziorako fasean sartzea" dagokielarik adierazi dute, eta horretarako "oinarri sendoa" dutela esan, "azken urteetan egindako kudeaketak Udala egoera ekonomiko sendo batera ekarri" duela gaineratuz. Esaterako, kiroldegiorako (2.500.000 euro) eta Olaitturrikako (1.000.000) gordeko dituzte diru partidak. Araozko ostatua (250.000 euro) eta plazako kioskoaren proiektua

(20.000 euro) ere zerrendan sartu dituzte.

Datorren urterako jaso dituen beste asmoen artean, Herritarren Arreta Zerbitzua zabaltzeko proiektua du (150.000 euro), "zerbitzu publikoen alde egindako apustuari jarraiki". Mugikortasunari lotuta dio "esfortzu handia" egin duela Udalak azken urte hauetan herriko bidegorri sarea osatzen, eta emaitza onak eman dituela: "Lan guztia borobiltzeko, Oñatiko Gerriko Berdea formal-ki izendatu eta katalogatzea gertatzen zaigu 2019rako". Basogintzaren "herriko errealitatea ahalik eta modu zehatzenean" aztertuko dutela ere aurreratuko dute. Berdintasun atalean lanean jarraituko dutela gaineratu dute, eta eskerrak eman dizkiete partaidetzako aurrekontuak posible egin dituztenei. Gastuei dagokienez, indartu egin dituzte giza larrialdietarako diru laguntzak eta laguntza psikosoziala.

Oposizioa, EAJ, aztertzen ari da Udal Gobernuaren txostena, eta euren proposamenekin batera alderatzen. Alde biek adostuta duten egutegiari jarraiki, azaroaren 29an euren txostena pasako diote Udal Gobernuari.



NIRE USTEZ

AINHOA NEGERUELA

Astelehenero

Superheroi bat daramate ambulanzian. Laneko istripua izan du. Hegan zebilela zazpigarren solairuko leiho baten kontra jo eta erori egin da. Ez du ondo ikusten eta adinarekin erreflexuak galtzen ere hasi da. Larrialdietako itxaron-pasilloan utzi dute, ohatila batean etzanda, eskuak eta kapa ohatilatik zintzilik dituela. Hamabi orduz, behintzat, zain egon beharko du gela bat egokitu arte, hormigoizko zubiak eraiki behar baitira tren bat azkar pasa dadin eta ez baitago ongizaterako dirurik.

Alboan, aurrera eta atzera dabilkiona antsietateak jota dago. Zirkuko laban jaurtitzaila da. Aspaldi diagnostikatu zioten Parkinson gaixotasuna baina lanean jarraitu behar izan du. Dardara bikoitza sentitzen du labana jaurti behar duen bakoitzean, kontrolaezinak biak. Eta, azkenean, gaur lankideari zintzurra erdibitu dio jaurtiketa bakarrarekin. Ez du lanera itzuli nahi, baina kotizatzen jarraitu beharra dauka.

Edonorena izan daitekeen eta berakatz usaineko eskuak dituen amona malabarista begira dute. Zutitu eta hurbildu egin zaie.

"Astelehenero, 12:00etan, plazan", esan die.

Bederatzigarrena izango den esperantzarekin

Denboraldia hasi zenetik ez dute partidu bakarra ere galdu Aitor Ugarteren mutilek. Bihar, sailkapenean bigarren postuan dagoen Donosti Dolphinsen bisita jasoko dute Zubikoan eta oñatiarrak bederatzigarren garaipenaren bila irtengo dira kantxara

Maialen Regueiro OÑATI

Irailaren 16an jokatu zuen Mekalki Aloña Mendik denboraldiko lehen partidua Oiartzungo Saskilagunak taldearen aurka. Ordutik hona, bi hilabete pasa dira, eta, epe horretan, oñatiarrek beste zazpi norgehiagoka jokatu dituzte eta ez dute bat ere galdu; alegia, zortzitik zortzi garaipen lortu dituzte. Bihar, 18:00etan, Donosti Dolphins taldearen bisita jasoko dute Aitor Ugarteren mutilek, Zubikoan.

Taldea gogotsu dago

Ugarteren mutilak gogotsu daude biharko norgehiagokari beira. Izan ere, "jokalariak kon-



Mekalki Aloña Mendiko jokalaria bat baloiarekin. IMANOL SORIANO

tziente dira biharko garaipenak duen garrantziak, eta jokatzeko gogotsu eta ilusioz daude". Zubikoan jokatzearen garrantzia ere azpimarratu du Ugarterek: "Bigarrenaren aurka etxean jokatzeko motibazio gehigarri bat da". Etxean partidu onak egin dituzte orain arte eta biharko ere maila berekoa izatea espero du Ugarterek. "Kantxara gerturazten diren zaleek saskibaloia ulertzen dute eta partiduaren momentu garrantzitsuenetan animoak jasotzea asko eskertzen dugu".

Bolada ona

Ugarterek adierazi duenez, aurreko denboraldia hasi zenean, emaitza onak lortzea kostatu egin zitzaizkien, nahiz eta partiduak jokatu ahala hobera egin zuten. "Aurten, aldiz, hasieratik hasi gara partidu onak jokatzeko eta indartsu egoten". Mekalki Aloña Mendikoei jokatu dituzten azkenengo bi partiduak ez dira hain onak izan, baina Ugarterek adierazi du taldea hazi egin dela. Are gehiago, kategoriatik gorago edo beherago, ez dago horrelako marka ona lortu duen tal-

derik. Aurreko denboraldietan, gorabeherak izan ditu saskibaloitalde oñatiarrak, baina dagoeneko jokalaria zein entrenatzaileek ondo ezagutzen dute elkar, urte batzuk daramatzate eta elkarrekin lanean. Hala, biharko ira-baziz gero, bederatzigarrena jarraian izango da Mekalki Aloña Mendiko mutilentzat.

Aurkari gogorra biharko

Donosti Dolphins taldeak denboraldi onak egin izan ditu azken urteetan eta beti mantendu da goiko postuetan. Talde ona da eta jokalaria onak ditu. Are gehiago, denboraldi batzuetan igoera fasea jokatzeko lortu du, baina lortu ez duen kasuetan txapelketa hori jokatzeko lehian izan da. Hala, oñatiarrek ondo ezagutzen dute talde donostiarra, eta baita dituen jokalaria garrantzitsuak ere. Ugarterek hauxe adierazi du: "Beraiek jokaturako partiduko zati bat ikusteko aukera izan dut eta horrek kontuan izateko xehetasun batzuk eman dizkit". Biharko norgehiagokari begira, entrenatzaile oñatiarrak argi du bere mutilek partidu ona egin beharko dutela.

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukakideak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe Industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

ARRASATE

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Uretzatzeko sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45



Inagarkia jami nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zentekira.

Indarkeria matxista gertu bizi dela irudikatuko dute

Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna dela-eta Martxanerek biolentzia mota ezberdinak irudikatzeke ekintza egingo dute etzi; Udalak erasotuei gogoratu die gizarte zerbitzuetako ateak zabalik daudela: "Konpromiso gabe etorri gurera, zure nahia errespetatuko da beti"

Jokin Bereziartua BERGARA

Guztiok gara erasotuak. Zurekin gaude. Denon ardura da. Hori xe da Udalak indarkeria matxistaren aurka antolatu duen kanpainaren leloa. Agerikoak diren biolentziekin batera, ikusiezina direnak ere aintzat hartu behar direla dio kanpainak, izebergaren metaforarekin.

Aurten, bereziki, gizonengan jarri dute fokua, emakumeei burla iraingarritik erailtzerainoko biolentzia-motak zerrendatzen dituen triptiko bat aterata, erasotzaileari begirako termometro batekin irudikatuta. Horrez gain, erantzukizuna gizarte osoak duela nabarmendu dute: "Emakume zein gizon, erasotuari babesa eman behar diogu eta ezin ditugu inola ere baimendu eraso zein gutxiespenak. Bergaran ez dira jarreara matxistak onartzen!".

Zerbitzuetako ateak zabalik

Eta kanpainarekin batera, gogora ekarri diete indarkeria jasaten duten emakumeei gizarte zerbitzuetako ateak erabat daudela zabalik: "Etorri gurera, inongo konpromisorik gabe. Ez dago salaketa jarri beharrik, eta konfidentzialtasuna bermatuta duzu. Informazioa eta behar duzun laguntza eskainiko zaiz-



lax, euriari aurre eginez, San Martin plazan egin zuten akelarre feminista. GOIENA

kizu; zure nahia errespetatuko da, beti".

Ekintza domeka eguerdian

Martxanerek ekintza berezi bat antolatu dute domekarako (14:00): "Indarkeria matxistaren alderdi ezberdinak irudikatuko ditugu kalean, espiral forman. Jende ilara bat osatuko dugu, herriko jendearekin osatuta egongo dena. Begiak estalita izango dituzte, eta eskuak *odolez* bustiko dizkiegu. Bitartean, hainbat indarkeria motaren testigantzak irakurriko ditugu altuan", aurrera-

tu dute. Indarkeria matxista oso gertu dagoela irudikatuko dute: "Jendartean errotuta dagoen ideia bat da indarkeria gugandik kanpo dagoela, beste nonbaiten gertatzen dela. Horregatik, irudikatu nahi dugu modu batean edo bestean indarkeria matxista gure gorputzetatik pasatzen dela, eta konplizeak garela edo, behintzat, ardura dugula. Kiribil barruan geldituko diren pertsonak ezkutuan geldituko dira –indarkeria ikusezina– eta gainazalean dagoena ageriko indarkeria moduan erakutsiko dugu".

GORA ETA BEHERA



O.E.

Kale katuak direla-eta landaredia kendu nahi



Matxiategiko Cristo Obrero deritzen atarteetako bizilagun batzuk kezkatuta daude kale-katuak ugaldu direnez osasun publikorako arriskutsuak izan daitezkeelako. Landaredia kentzea gura dute.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.

Bergararren Arreta Zerbitzurako bulego elektronikoa, martxan

Martxan dago Bergararren Arreta Zerbitzua (B@Z) izango denaren bulego elektronikoa. Udaltxean dagoen makina horren bitartez, hainbat tramite egin ahalko dira –makina 27.310 euro kostatu da–. Udalaren webgune-ko *Herritarren postontzia* atariko tramiteez gain, nortasun agiria-ekin errolda agiria ateratzeko aukera dago. Beste tramite batzuk Izenpe txartelarekin edo nortasun agiri elektronikoarekin egin daitezke: ordainagiriak eskuratu, isunak ikusi... Egunero egongo da erabilgarri, 06:00etatik 22:00etara, eta zerbitzua osotasunean otsailean zabalduko dute. Orduan, "eskarmentu handiko" lau udal langile egongo dira bertan lanean.

Matxiategiko plaza bat berritzen ari dira, merkataritza sustatzeko

Matxiategi kaleko 5. eta 7. atar-teen arteko plaza aldatzen ari dira. Lan hauek egingo dituzte, besteak beste: egurrezko pergola jarri erdian, egurrezko eserlekuekin; irisgarritasuna bermatzeko sestrak egokitu; atarietara eta lokaletara gaur egun dagoen saltoa kendu; drainatze berriak egin; argi instalazioa berritu; eta galtzada-harri berria jarri. Lanek hiru hilabete iraungo dute –hasita daude–, eta, ezusterik ezean, azaroan bertan bukatuko dira. Artzamendi enpresak du lanaren ardura eta aurrekontua 74.415 euro da –BEZa barne–. Jaur-laritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak 30.330 euroko diru-laguntza eman du.

**TELEIXA
BILTEGIAK**

**Eraikuntza
materialak**

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com

Proiektuak - Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak - Eskailerak -
Leihoak - Tarimak -
Egur lanak

21
K
KALITATEA
Enpresa Inprimatu V90/025



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA



Patxi Larrañaga idazlea, bihar aurkeztuko duen liburuarekin. A.E.

Baserriak eta abizenak, jatorria ezagutu guran

Patxi Larrañaga ikerlariak Bergarako leinuen gainean aztertzen jarraitzen du. Bihar, 11:30ean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 'Abizenak, leinuak eta oinetxeak' liburuaren bigarren zatia aurkeztuko du; Ramon Martin eta Ibon Telleria izango ditu alboan

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA Patxi Larrañagak Bergarako oinetxeen eta abizenen gaineko azterketarekin jarraitzen du. Hain zuzen, bihar, azterketa horren bigarren zatia aurkeztuko du: *Abizenak, leinuak eta oinetxeak* liburua.

2017ko ekainean aurkeztu zuen lehenengo liburua; bigarren liburu honek Eduegi-Gorosabel abizenak hartuko ditu. 11:30ean izango da aurkezpena, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

42 oinetxe jaso ditu

"Aztertu ditut 42 oinetxe. Oinetxe horiek izen bereko abizenaren sorleku dira. Gertatzen dena da gaur egun abizen horietako

batzuk dagoeneko ez direla baserri horretan bizi diren familiakoenak edo galdu egin direla", azaldu du Larrañaga idazleak.

Horren adibide, adibidez, Eduegi abizena dela dio: "Gaur egun galduta dagoen abizena da, baina, aztertu dudaren arabera, orain dela 300 bat urte, Eduegi baserrian bizi zirenek abizen hori zuten".

Elkoro abizena, adibidez, Bergaran "oso ezaguna" dela dio Larrañagak, baina "baserrian bizi direnek" ez dutela abizen hori gaineratu du.

Mantendu diren abizenak

Mantendu diren baserri eta abizen batzuk badaudela dio La-

arrañagak: "Garitano, Arando... Azken abizen horrek, adibidez, 500 urte baino gehiago ditu". Liburuan, gainera, oinetxearen izenaren abizena mantentzen duen familiaren zuzaintza genealogikoa egin duela gaineratu du Larrañagak.

Zein abizen da erabiliena?

Bergarak oinetxe asko dituela dio Larrañagak: "Nik uste dut Gipuzkoan mailan baserrien izenean jatorria duten abizen gehien dituen herria dela. 100 abizen baino gehiago daude".

Bergaran gehien erabiltzen den abizena zein den galdetuta, zera erantzun du, barrezka: "Nire... Larrañaga da gehien era-

biltzen den abizena. Era berean, bi baserri daude Larrañaga izenarekin eta horiek dira Larrañaga abizenaren jatorria".

Baserri zaharrena zein den galdetuta dio "oso zaila" dela hori jakitea.

Hirugarren liburuan lanean

Bergararen sorreraren 750. mendeurren ospatzen dela aprobeztatu nahi izan dute liburuaren aurkezpena egiteko: "Eskatu zidaten ea aurten egingo nuen aurkezpena", dio Larrañagak. Bigarrena eginda, hirugarrenarekin lanean diharduela gaineratu du: "2019 amaieran aurkeztu gurako nuke hurrengoa: *I-Z* arteko oinetxeak eta abizenak batuko nituzke hirugarren horretan: Irarraga eta Zupide arteko abizenak".

Lehenengo liburuan, Abbrain-Buruñondo abizenak jaso zituen. Nabarmendu behar da argitaratu zituen liburu guztiak saldu zirela hilabeteko epean. Bihar aurkeztuko duen liburua 15 euroren truke jarriko du salgai: aurkezpenean bertan, eta Idatzi, Jolas, Tximeleta, Zangitu estankoa eta Pol-pol tabernan.

Aurkezpena, lagunekin

Oñatiko Protokolo artxiboan, Bergarako Udal Artxiboan eta Olaso fundazioko artxibo pribatuan bilatzen du informazioa Larrañagak. Liburu artean "lagun handiak" egin ditu, "maisua" direnak, haren hitzetan. Hain zuzen, biharko aurkezpenean ondoan izango ditu bi "maisua": Gipuzkoako Probintziako artxiboko Ramon Martin Sukiak *Bergarako historiaren puzzlea osatzen* hitzaldia egingo du; eta Ibon Telleria arkitektoak *Baserrien adina-Dendrokronologia* izango du berbagai.

DanobatGroup taldeak Euskararen Eguneko lehiaketa du abian

Euskara aldean, erabili lanean lelopean abiatu du DanobatGroup taldeak Euskararen Egunean harrera antolatuta duten lehiaketa. Bergarako kooperatibak sorreratik izan du euskararekiko sentsibilizazioa; bai langileei begira eta baita gizarteari begira ere. Hala, bide horri jarraituta antolatuta dute Euskararen Eguneko lehiaketa.

Edonork parte har dezake lehiaketan; abenduaren 3ko 23:59an amaituko da lehiaketan parte hartzeko epea. Hain zuzen, info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2018.html orrialdean dagoen galdetgia bete behar da parte hartzeko. Galdetegian agertzen diren galderen erantzunak *Danobatgroup.eus* atarian aurki daitezke. Galdetgia bete eta bidali ondoren, parte hartzaileak landetxe batean aste bukaera pasatzeko zozketan parte hartuko du. Galdetegiak sei galdera ditu: horrez gain, hitz teknikoaren itzulpenen ariketa bat ere jasotzen du.

Abenduaren 21ean entregatu behar dira Gabonetako postalak

Gure Ametsa elkarteak Gabonetako postalak XIV. lehiaketa antolatuta du. 3 eta 12 urte bitarteko gazteei zuzendutako lehiaketa izango da. Gabonei buruzko marrazkiak egin beharko dituzte eta abenduaren 21erako -19:00etatik 21:00etara- Gure Ametsan entregatu. Sariak abenduaren 22an banatuko dituzte, 12:30ean, San Antonioko plazan.


DANOBATGROUP

HARTU PARTE DANOBATGROUPen EUSKARAREN EGUNEKO LEHIAKETAN!

Sartu lehiaketako estekan, ezagutu euskara arioko gure ekimenak eta irabazi **bi gaueko egonaldia bi laguntzat**



<https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2018.html>

*Parte hartzeko azken eguna: 2018ko abenduak 3

euskara
aldean,
erabili
lanean

DANOBATGROUP KOOP. E. | DANOBAT KOOP. E. | GOIMEK KOOP. E. | GOITI KOOP. E. | IDEKO KOOP. E. | LATZ KOOP. E. | SORALUCE KOOP. E.

"Banoa, urte hasierarako jakingo dugu alkategaia"

AGURNE BARRUSO EH BILDU-KO BOZERAMAILEA

Oposizioan egin duen azken agintaldi hau "iluna eta opakua" izan dela dio: "Gobernuak ez du elkarlanerako inongo aukerarik eman; harremana adeitsua baina hotza izan da"

Jokin Bereziartua BERGARA

1987an, lehenengoz bozkatu zuen egunean, izan zen zinegotzi lehen aldiz eta ordutik hona hainbat agintalditan izan da Udalean, gobernuan –alkate ere bai, 2007 eta 2011 artean– eta oposizioan. Diputazioan ere ardurak izan zituen 2011-2015 agintaldian. Baina Agurne Barrusok lehen lerroa utziko du, "nahikoa" egin duela sinetsita. Alkategaia aukeratze-ko prozesua urtarrilean amaituko dela esan zuen *Harira*-n.

Bazoaz lehen lerrotik. Zergatik?

Banoa, nire fasea bukatu delako. Agintaldia azken txanpan dago, eta Agurne [politikaria] ere bai.

Eta zein izango da alkategaia?

Aste honetan sortuko da hauteskundeetarako lantaldea, bereziki, EH Bildutik horren gertu ez dagoen jendearekin. Hor diseinatuko da prozesu osoa, hortik aterako dira programa eta zerrendak. Prozesua urte hasierarako amaitzea gura dugu. **Uste duzu alkatetza berreskuratu ahal izango duela EH Bilduk?**

Uste dut irabazi dezakegula. Bergaran EAJ eta EH Bildu oso parekatuta daude; zerrenda eta programa onekin balantza hori gure aldera etor liteke. Aukerak ikusten ditut irabazteko.

Nola egin du lan Udal Gobernuak?

Agintaldi beltza izan da. Informazio aldetik oso modu opakuan jokatu dute; gehienetan, Udalaren asmoen gaineko gure informazio iturria zuek izan zarete, komunikabideak. Opakutasun horretatik dator, gure ikuspegitik, modu inprobisatuan kudeatu izanaren sentsazioa. Proiektuak txanpiñoen moduan irten dira, eta ez dakigu aurretik ze lanke-za izaten duten. Eta elkarlanerako ez da egon aukerarik. Harremanak adeitsuak baina hotzak dira. Ez dago naturaltasunik.

Zein izan da EH Bilduk lau urteotan herriari egin dion ekarpena?

Proposamen asko egin ditugu. Adibidez, iazko aurrekontuaren



Agurne Barruso, Goiena telebistako platoon, *Harira* saioan. JAGOBA DOMINGO

"ALDAKETA POTOLOAK LAU URTETAN GAUZATU NAHI IZATEA IZAN ZEN AGINTALDI HARTAKO AKATS HANDIENA"

negoziazioan proposatu genuen Bergarako behar nagusiak identifikatzeko azterketa bat egitea; esan ziguten egingo zela, bereziki ikuspegi sozioekonomikotik, baina ez da ezer egin. Herritarrek ez dute aukera izan gure ekarpenak baloratzeko, ez dutelako ibilbiderik izan. Gobernuak hasieratik moztu ditu.

Azken osoko bilkura lau ordu eta erdikoa izan zen. Zer gertatzen da?

Gertatzen dena da udal batzordeak espedienteak tramitatzera mugatu direla. Batzorde bat bestearen atzetik jarri dute eta denbora mugatua da. Horregatik, osoko bilkurak dira udaletxean politikarion arteko eztabaidarako gune bakarrak. Mila bider eskatu dugu gaien araberrako lan-mahaiak osatu daitezela, baina ezer ez. Bada, erregu eta galderen puntuan edozein gai plazara daitekeenez, aukera hori

baliatzen dugu bilkurak beldurgarri bihurtzera arte.

Goazen proiektuetara. Nola ikusten duzue Gobernuaren izarra dena, seminarioko aparkalekua?

Aparkalekuak sortzea ez dugu gaizki ikusten, baina Mugikortasun Plan batean kokatu nahiko genuke. Informazioa dosi txikietan jasotzen ari gara; hasieran, ez genekien ezer, gerora enteratu ginen zenbat plaza izango zituen, ondoren jakin genuen hasieran baino 400.000 euro gehiago balioko duela, ingurua urbanizatzeko proiektua egitea ahaztu zitzaielako... Proiektua bere osotasunean baloratzea oso zaila zaigu, informazioa eskasa eta oso aldakorra izan delako.

Seminarixoa aretoari eman zaion erabilerarekin pozik zaudete? Gустura zaudete programazioarekin?

Seminarixoa kultura baliabide soil moduan kudeatzen ari da Gobernuak, eta, horretan parte hartu gura dutenen ekarpenak jasoko balira, programazioa hobea izango litzateke. Adibidez, oso antzerki gutxi egon da, eta aretoa horretarako oso aproposa da. Zinemarena beste hutsune garbi bat da: irekiera atzeratu eta atzeratu dabilta.

Antzuolan eta Elgetan haserre daude Agorrosin erabiltzeko gehiago ordaindu behar dutelako. Zein iritzi duzu gai horren gainean?

Udalen arteko akordioa behar da, herritarrek ez dezaten ezberdin ordaindu, eta hiru udalek egin beharko liokete aurre defizitari, Mizpirualderekin egiten den moduan, era proportzionatua. Agorrosinek 700.000 euroko defizita sortzen du urtero eta hori bergararrok ordaintzen dugu, kiroldegia erabili edo ez. 2007an alkate sartu nintzenean, sarrera bakarra zegoen denontzat; agintaldi hartan sortu genituen ez-errolatu eta errolatu kontzeptuak, uste genuelako zerbitzu askotan hobetsi behar zela Bergaran errolatuta daudenen erabilera. Saiatu ginen Antzuolako eta Elgetako udalekin akordatzeko, baina ez genuen lortu.

Goazen atzera. Alkate izan zineneko ze oroitzen gordetzen duzu?

Oso oroitzapen ona daukat. Bergarako askotariko eremuak ezagutu nituen, jende mordo. Konturatu nintzen Bergara oso herri eskertua dela eraikitzeke asmoz lan egiten duzunean; eragileekin lan egitea erraza da. Hori bai, arantza potolo bat geratu zitzaidan eskolen arteko gatazkagatik. Hori izan zen itzal handiena, baina beti gailentzen da onena. **2011-2015 agintaldian Bilduk nagusitasunez gobernatu zuen eskualdean eta Diputazioan. Zergatik galdu ziren hauteskundeak gero?** 2011n gatazka armatua fase erabakigarrian zegoen, eta ilusio handia piztu zen Euskal Herrian. Bultzada hori ezinbestekoa izan zen halako nagusitasunez irabazteko. 2011n asko geunden ilegalizatuta eta zoritxar hartatik ezohiko zerrendak osatu ziren. Oso positiboa izan zen, oso jende ona egon zen. Gauza gehiegi egin nahi izatea izan zen akats handiena.

Zer esan gura duzu horrekin?

Seguruenik, ez ginela gizartearen erritmora joan. Oso sakonak eta potoloak ziren aldaketak –hondakinen afera konpontzea eta zerga bilketa aldatzea, kasulau urtetan gauzatu gura izan genituen, eta, akaso, beste era bateko prozesuak eskatzen zizutuzten. Joan egin ginen eta herritarrek ez ziren atzetik etorri. Horri gehitu behar zaio agintaldi osoan EAJk, PSE-EEk eta Vocento taldeak gure aurka egin zuten lana; ikaragarria izan zen, erasoak egunerokoak ziren.



NIRE USTEZ

AINHOA
NARBAIZA IRIZAR

750 urteren ertzak

Urteurren borobilarekin gora eta behera gabiltza aurten. Herriko historiari garrantzia eman izan diot nik ere, dokumentu zaharrak begiratu eta aitona-amonen altzoan kontu kontari aritzea gustatu izan zait. Baina, iraganaz zer kontatu eta kontaktzen ez dugunaren inguruan kezkatuta nago azkenaldian, eta hor galderak: eskola materialetan, kale-izenetan, Wikipedian edo turismo gidetan, gizonezkoak izan behar al dira protagonista bakarrak? Beste lurralde batzuen konkista eta genozidioa bultzatu zuten pertsonaiak, herrian monolito batean gogoratzeko modukoak al dira? Noren begiradatik eta zer berreskuratu nahi dugu iraganetik?

Ospakizunetan mozkortu baino lehen, has gaitzen memoria berrikusten, pertsona/kolektibo ikusezinen esperientziak errekonozitzen eta espazio publikoan gogoratzen. Herritar xume, emakume, langile, baserritar, etorkin edota herri mugimenduei ere herriko historian leku bat dagokigula uste dut. Dagoeneko, heroi eta jauntxoek aspertuta gaude; gure birramamen iragana ezagutu nahi dugu, haien bizimodua, ukenduak, minak eta borroak ere gogoratu nahi ditugu.

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Rezustak etxean hasiko du 'maratoia', domekan

Hamalau jardunaldi izango dituen Eskuz Binakako Txapelketa Debagoienara iritsiko da domekan. Elezkano II.ak eta Rezustak Irribarriaren eta Zabaletaren kontra neurtuko dituzte indarrak Bergaran; pilotariak konforme daude materialarekin

Xabier Urzelai BERGARA

"Beñat, badakit nirekin bikotea osatu gura duzula, baina...", dio Irribarriak, barrez, argazkiak egiteko argazkilariek pilotariak apur bat mareatu ostean. Rezustak irribarre batekin erantzun dio; lagunak dira, nahiz eta domekan kontrario izango diren. Eta, gainera, Bergarakoa pozik dago txapelketan izango duen bikotekidearekin: "Iaz moduan, aurtun ere Elezkano eta biok elkarrekin jarri gaituzte, eta oso gustura nago. Lagunak gara, eta ondo ezagutzen dugu elkar", dio. Aurretik hamalau jardunaldi izango dituzte, txapelketa luzee-na: "Txapelketa hau indarra




Zabaleta, Irribarria, Elezkano eta Rezusta, atzoko material aukeraketan. X.U.

hartzen dabil, eta, gainera, atzelariondako modukoa da. Buruz burukoan eta lau terdikoan geroago eta zailago dugu nabarmen-entzea, baina eskuz binakakoan atzelarion lana garrantzitsua izaten da, eta lan txukuna egin gura dut".

Indarrak gordetzea komeni

Maratoia bezala da eskuz binakakoa, eta indarrak neurtu egin behar dira. Hain zuzen, Rezustak ondo daki txapelketa amaierara fresko iristeak duen garrantzia; izan ere, iaz ligaxkan indartsuenak izan eta gero, finalera bidean beherakada izan zuten eta finalean, behetik gora zihozten Ezkurdiak eta Zabale-tak 9 tantotan utzi zituzten: "Baina hasieratik komeni da partidu onak egin eta puntuak batzen hastea, lehenengo helburua lau onenen artean egotea izan behar delako".

Jaialdia 17:00etan hasiko dute. Lehenengo partiduan, Retegi Bik eta Jaunarenak Etxeberrria eta Erostarbe izango dituzte aurrean. Hirugarrenean, Dariok eta Martinezek Ugaldere eta Irustaren kontra jokatu dute.



Jokin Etxabe. AEVOLO CICLYNG TEAM

Jokin Etxabek erretiroa hartu du

Azken urteak neoprofesional moduan egin ditu Lokatzako harrobiko Jokin Etxabe ziklista bergararrak. Amateur mailan txukun jardun eta gero, kanpora joateko erabakia hartu zuen, hemengo taldeetan ez zuelako saltoa emateko aukerarik ikusten: "Ez da erabaki erraza izan, baina agur esateko ordua da, ez dut-eta erreta edo haserre amaitu gura", adierazi du.

ZATOZ PEUGEOT RIFTER BERRIA EZAGUTZERA ETORMOBIL BERGARARA

PEUGEOT i-Cockpit®
ULTRAMODULAGARRIA
Zenith® SABAIA
MOTION & EMOTION



Peugeot Rifter berriak estilo dotore eta boteretsua dauka. Barrualde moderno eta teknologikoa, motor berritzaileak eta zortzi martxako abiadura-kaxa automatiko berria; horrekin guztiarekin, esperientzia guztiz berria bizi izango duzu. Peugeot i-Cockpit®-rekin, gidatze arinagoa eta intuitiboagoa izango duzu, bolante trinkoari, Head-Up Display-ri eta 20,32 cm-ko (8") ukimen-pantaila handiari esker. Senti ezazu errepidean egoera kontrolpean daukazula, eta Advanced Grip Control-er disfruta ezazu, matrizitate hobea bermatzeko. Peugeot Rifter berriak konektagarritasun handia dakar: 3D nabigazioa konektatua, Mirror Screen funtzioa, Peugeot Connect zerbitzuak eta poltsikoko telefonoen indukzio bidezko kargatzea. Eta gidatze seguruagoaz goza dezazun, azken belaunaldiko gidatze-loguntzak erabil itzazu.

Peugeot Rifter berria: kontsumo mistoa (l/100 km): 4,1-5,7. CO₂ igorpenak (g/km): 109-131.

ETORMOBIL BERGARA. Olabarrena auzoa, z/g • 20570 Bergara • Tel.: 943 10 17 17
ETORMOBIL EIBAR. Otaola Etorb.,22 • 20600 Eibar • Tel.: 943 20 09 66
ZIORLA AUTOAK. Santa Maña, 19 • 48215 Iurreta-Durango • Tel.: 946 21 71 30

www.etormobil.com



Ander Errasti eta Sonia De la Maza, Maite eta Jon seme-alabekin lanean. ANDER ERRASTI

Irakurtzeko eta idazteko gaitasunak lantzen

Errasti-De la Maza familiak 'Herensugeen itzulera' ipuina idatzi du; gaur aurkeztuko dute, kultura etxean, 18:00etan, 'Herensugeen itzulera. Atera barruan daramazun heroia' izenburupean. Euskarazko, gaztelarazko eta ingelesezko bertsiok egin dituzte

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA Denbora librea familian, elkarrekin, pasatzeko modua aurkitu du Errasti-De la Maza familiak. *Herensugeen itzulera* ipuina idatzi dute elkarrekin: aitak, amak eta seme-alabek.

Ander Errastik hainbat liburu idatzi zituen 2009-2014 bitartean -kudeaketa industrialari buruzkoak-. Hala, Jon eta Maite seme-alabek zera galdetu zioten behin, bazkalorduan: "Zergatik ez dugu liburu bat elkarrekin idazten?". Nik esan nien denbora asko behar zela horretarako, eta hobe zela ipuin bat idaztea. Hala hasi ginen proiektuarekin", gogora ekarri du Errastik.

Ideen mapa eta ilustrazioak

Buruan zeukaten ideia horiek mapa batean islatu zituzten lehenengo: "Zer gertatuko den, pertsonaiak identifikatu, euren garapena egin...". Horrez gain, ilustrazio batzuk egin zituzten eta istorioa 14 kapitulutan banatu zuten.

Kapitulu bakoitzaren deskribapena ere egin zuten, eta istorioaren eta pertsonaien arabera nahi zituzten ilustrazioak identifikatzen zituzten.

Irakurzaletasuna bultzatu

Umeek irakurtzeko eta idazteko zaletasuna txikitatik dutela dio: "Bere garaian erabaki genuen etxean telebistatik ez izatea; hala, denbora libre hori beste zerbait egiten pasa dute. Adibidez, marrazteko zaletasun handia dute; eta horrez gain, beti ikusi izan gaituzte irakurtzen eta idazten", dio Errastik.

Errastik ipuineko zirriborroak egiten zituen; ondoren, Jon eta Maitek marrazkia lantzen zuten; eta, azkenik, aitak buka-

tzen zuen. "Marrazkiak noiz egiten nituen? Hegaldietan. Lan kontuengatik bidaiatzea tokatzen zait, eta denbora hori aprobetxatzen dut marrazteko", dio.

Bi urteko lana izan da *Herensugeen itzulera* ipuina idaztea. Hiru ipuin atera dituzte: euskara-ingelesa, euskara-gaztelera eta gaztelera-ingelesa. Astean bertan jaso dituzte etxean liburuak -autoekoiztu egin dute-. "Oso pozik" geratu dira emaitzarekin.

Durangon egongo dira

40 orrialdeko ipuina da gaur aurkeztuko dutena, kultura etxean, 18:00etan. 8-12 urte bitartekoendako lana da. Horrez gain, abenduaren 8an, 15:00etan, Durangoko Azokako *Xaguganbara* txokoa aurkeztuko dute lana. "Ipuin honetan, Jonen pisu handiagoa izan du. Mutiko arrunt batek misio bat izango du: dragoi batzuen aurka borrokatzea. Bada, dagoeneko bigarren lanean dihardugu eta neskatila izango da heroia", azaldu du.

DURANGOKO AZOKAN IZANGO DIRA, XAGUGANBARA TXOKOAN, ABENDUAREN 8AN

Amodiozko gutunak eta esaldiak idazteko epea zabalik dago

Jardunek aurkeztu du lehiaketa; gutunak urtarrilaren 6rako aurkeztu behar dira eta esaldiak, 24rako

A.E. BERGARA

Jardun euskara elkarteak aurkeztu du 27. aldiz antolatu duen Amodiozko Gutunen Lehiaketa. Lehiaketan parte har dezake 2004an edo lehenago jaiotako edonork. Lan guztiak jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz idatzitakoak izan beharko dute. DIN A4 orrian aurkeztu beharko dira, eskuz edo ordenagailuz idatzita. Gutunak aurkezteko azkeneko eguna 2019ko urtarrilaren 6a izango da. Gutunak bidali beharko dira Jardunek Bergarako Errotalde

jauregian duen lokalera; edo amodiozkogutunak@gmail.com helbidera.

Ibilbide motzagoa du esaldien lehiaketak: hirugarren aldiz antolatu dute. Edonork parte har dezake eta pertsona bakoitzak gura beste esaldi idatz ditzake. Amodiozko esaldia Whatshappez edo mezuz bidal daiteke 605 71 24 69 telefono zenbakira edo posta elektronikoz amodiozkogutunak@gmail.com helbidera, 2019ko urtarrilaren 24a baino lehen. 500 eta 100 euroko sariak jasoko dituzte irabazleek.



IMANOL SORIANO

Bandaren diskoa, festa giroan

Domekan aurkeztu zuen Musika Bandak *Bergarako ereserkia eta elkarteen martxak II* diskoa. Berezia izan zen kontzertua, Bitorianatxo eta Bergarako erraldoiak agertu ziren eta; ereserkiari ahotsa Aitzol Mujikak jarri zion. Diskoa salgai dago liburutegian eta Udaleko Kultura Zerbitzuan, 5 euroren truke. Hain zuzen ere, 12 pieza jasotzen ditu.

Bi ipuin kontaketa saio egingo dituzte datorren astean

Azaroaren 27an, martitzena, Maite Francok helduendako ipuinak kontaketa saioa Udal Liburutegian. 19:00etan izango da hitzordua. Egubakoitzean, aldiz, hilaren 30ean, gaztetxo txanda izango da. Mirian Mendoza ipuin kontalaria Udal Liburutegian izango da, 18:00etan. Aipatutako bi saioak euskaraz izango dira.

'Esnatu' abestiaren bideoklipa aurkeztu du Nomadak taldeak

Nomadak talde bergararrak *Esnatu* abestia aurkeztu du, eta baita horren bideoklipa ere. "Erortzen bagara goizero, esnatu behar gara gauero" mezuarekin dator indarberrituta abestia. "Bizi garen gizartean etengabe ematen dizkigute arrazoiak dena bertan behera uzteko. Aurrera egiteko mezua zabaldu nahi dugu", diote taldekideek.

EUSKARALDIA

Euskaraldian lehenengo urratsak, elkarrekin

Elgetako 'ahobizi' eta 'belarriprest' guztiak gonbidatuta daude gaur iluntzean plazan elkartzera. Festa giroan eta Euskaraldirako gomendioekin emango diogu hasiera hizkuntza ohituretan eragitea helburu duen hamaika eguneko ariketa kolektiboari

Goiena komunitatea

Euskaraldia Batzordea / ELGETA

"Hemen da Euskaraldia, eta, merezi duen harrera egiteko, suziriak, musika, argazkiak eta luntxa izango ditugu gaur iluntzean, Elgetan. 18:00etatik aurrera izango gara plazan Euskaraldiak hilabeteotan emandakoak jasotzen dituzten argazkiekin eta *ahobizi* zein *belarriprest* roletan izena eman dutenendako azken gomendioekin. Ekitaldi nagusia 19:00etan egingo dugu; izan ere, talde argazkia ateratzea dugu helburu, eta horrekin batera Euskaraldiaren hasiera adierazteko suziriak botatzea. Elgetan, oraingoz, hirurehun bat lagunek eman dute izena *ahobizi* edo *belarriprest* izateko.

Horrekin batera, hainbat taldek agertu dute atxikimendua: Maala guraso elkarteak, Elgetako EH Bilduk, Kantsatzeke mendi taldeak, udal langileek... Eta Herri Eskolan ere ekintza bereziak egin dituzte gaur.

Txapak jasotzeko prest

Txapak jasotzeko dituzten herritarrek jakin behar dute liburutegian dituztela prest. Plazan ere banatuko ditugu gaur iluntzeko ekitaldian".




Eskolako ikasle, irakasle eta guraso taldeak bat egin du Euskaraldiarekin. L.Z.



Kantsatzeke mendi taldeak domekan Udaltxera egindako irteera. KANTZATZEKE

Manolo Cainzosek eguaztenean aurkeztuko du liburua

Badira hiru urte Txema Barrantiarekin batera Udal Artxiboa txukuntzeko lanetan hasi zela. Zeregin hori bide izan da Elgetako historiaren inguruko aurkikuntza berriak egiteko. *Elgeta lehen eta orain* liburuan jaso ditu gehienak. Aurkikuntza nagusien berri emango du eguaztenean, 19:00etan, udaletxeko areto nagusian.



Manolo Cainzos, liburu berriarekin. L.Z.

Domekan, indarkeria matxista gaitzesteko elkarretaratzea

Elgetako Emakume Taldeak eta Elgetako Udalak 13:00etan plazan egitekoa den elkarretaratzean parte hartzera deitu dituzte herritarrek. Indarkeria matxistaren eraginez zazpi emakume hil dituzte urte honetan Euskal Herrian. Hilotzak irudikatzeaz gain, arazoaren larritasuna agerian jartzeko hainbat datu ipiniko dituzte ikusgai paneletan.

Pintxo lehiaketako publikoaren saria ere Haizea tabernarentzat

Boto-emaileek horrela erabakita, Haizea tabernako *Haize goxua* pintxoak jaso du aurten publikoaren saria. Hala, epaimahai ofizialaren iritziarekin bat datoz bezeroak. Antolatzaileek adierazi dute lehia estua izan dela Maialde landetxeko pintxoarekin. Argazki lehiaketako sariari dagokionez, Maitena Mañarikuak irabazi du.

PILOTA TXAPELKETA

AZKEN EMAITZAK

Haritz Gallastegi-Oskar Askasibar / Gorka Bolinaga-Sergio Bouzas **18-10**
 Haritz Gallastegi-Oskar Askasibar / Mikel Elkoro-Iñaki Ugarteburu **18-07**
 Alberto Telleria-Anjel Ibarluzea / Gorka Bolinaga-Sergio Bouzas **13-18**
 Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta / Alain Valle-Eneko Ormaetxea **15-18**
 Mikel Beretxinaga-Ibon Unzetabarrenetxea / Andoni Elorza-Oskar Sarasua **15-18**
Jardunaldi berria: Gaurko hiru partidu daude iragarrita, 18:30ean hasita.

OHARRAK

Ipuinen ordua

Gaur, umeendako hiru saio liburutegian, 17:00etan hasita.

Herrixa Dantzan

Domekan, 19:00etan, Espaloia kafe antzokian.

Plastiko bilteta

Nekazaritzaatik sortutako plastikoak biltzeko zerbitzua, martitzenean. Eskaera egiteko, deitu 943 76 25 47 telefonora.




"Gurean ere gerta daiteke"

SASKIBALOIA Joan den zapatuan, EBA mailako Santurtziren eta Muren arteko partidua amaitutakoan, talde bizkaitarreko kirol zuzendariak ustez eraso egin zion epaileari. Debagoieneko taldeetako zuzendariekin eta epaileekin izan da GOIENA

Xabier Urzelai ARRASATE

Joan den zapatuko ustezko gertaera negargarriak hautsak harrotu ditu. EBako epaile Paul Urbanok salatu du partidua amaitutakoan, aparkalekuan, Santurtziko kirol zuzendariak eraso egin ziola -MUK 56-69 irabazi zuen-. Klub bizkaitarrak hiru egun behar izan ditu ohar bat argitaratzeko, eta bertan, gertaera gaitzetsi beharrean, epaileak esandakoa gezurra dela adierazi du. Gertaera horrek epaitegian bere bidea egingo du, baina posible da halakorik Debagoienean gertatzea?




GORKA ALARCIA
EPAILE OHIA

"Gurean oso esperientzia desatseginak bizi izan ditut"

"Noski gerta daitekeela halako kasu bat gurean. Ni bost urtez kategoria txikitako epailea izan naiz, eta oso esperientzia desatseginak bizi izan ditut. Orain, Ointxe! barruan nago, iaz utzi nion partidua epaitzeari, baina, hala ere, garbi esango dizut ondo dakidala garai batean zer zen Iturripera epaile moduan etortzea. Eta ez Iturripera bakarrik, Eskoriatzara, Oñatira... Egia da Santurtziko oso gertaera larria dela, eraso bat izan da tartean, eta Debagoienean nik ez dut horren muturreko egoerarik bizi izan, baina kantxetan denetik entzun behar izan dut. Harmailetan burua galtzen duen jendea dago, sekulakoa da, eta

kluben barruan ere... Askok kantxan izaten duten jarreraren gaineko hausnarketa egin behar lukete, azken urteotan saskibaloiak futbolaren tankera hartu du eta. Eta, horren aurrean, hezkuntza eta zigor gogorrak, ez dago besterik".



FERNANDO RASO ESKORIATZAKO
KIROL ZUZENDARIA

"Eskoriatzan hausnarketa egin genuen egoera aldatzeko"

"Nik uste dut gurean, behintzat, gauzak asko aldatu direla, arazo horren gainean lanketa egin dugula. Batetik, gurasoei urte hasierako batzarrean garbi uzten diegu klubean ze jarrera ez ditugun onartzen, arazo asko harmailetatik etortzen dira eta. Ez bazara kapaz zure seme-alabaren taldea behar den moduan animatzeko, geratu zaitez etxean. Nik onartzen dut entrenatzaile moduan epaileekin sarritan izan ditudala eztabaidak, baina heldua egiten zaren neurrian gauzak beste modu batean egiten dituzu, beste paxada batekin.

Bestalde, duela urte batzuk, klubeko kideok bagenuen sentsazio arraro bat: epaileak partidua aurretik gurekiko jarrera ezkorrekin ikusten genituen. Jarri ginen euren lekuan eta konturatu ginen gure partetik ere ez genuela bertsiorik onena erakusten, eta epaileen gaineko berbaldi batzuk antolatu eta

luntxa antolatu genuen eurekin. Horrek lagundu zuen gure arteko harremana sendotzen".




MARIAN MELLADO SORALUCE
BKE-KO PRESIDENTEA

"Halakoak ezin dira onartu, inondik inora"

"Nik ez dut uste gure kantxetan halako gertaerarik errepika daitekeenik; epaileak dioena egia bada, oso muturreko egoera izan da. Halakoak ezin dira onartu, inondik inora. Eztabaidak eta halakoak ikusi izan ditugu, beti egoten da gurasoren bat tonua besteek baino gehiago altxatzen duena... Baina hortik eta epaile bat erasotzera, nik ez dut sekula halakorik bizi izan. Hori ez da kirola.

Horren harira, klubean, jokalarien gainean egoten gara zenbait jarrera aldatzeko, baina arazoak, askotan, gurasoen aldetik etortzen dira".



OIHANE AGIRRE OINTXE!-KO
PRESIDENTEA

"Esperientzia honetatik ikasi egin behar dugu"


"Zorionez, asteburuan Santurtziren bizi izandako ustezko gertaera



Santurtziren eta Muren arteko partidua une bat, joan den zapatuan. SANTURTZI KE

oso gauza ezohikoa da saskibaloian. Hala ere, uste dugu esperientzia horretatik ikasi egin behar dugula, eta, esaterako, EBako partiduetan epaileei babes handiagoa eskainiko diegu klubetik.

Horretaz gain, guk kantxan eta harmailetan gertatzen dena bereizi egiten dugu. Kantxan joko-arau batzuk daude, eta jendeak, orokorrean, arau horiek bete egiten ditu. Klubetik, gainera, zorrotz lantzen dugun gaia da, errespetua, kiroltasuna... Eta, arau horiek bete ezean, gainera, epaileak zigorrak jartzeko aukera du. Harmailetan gertatzen dena, berriz, zailagoa da kontrolatzen, eta, normalean, hortik etortzen dira arazoak".



JON GURIDI ALOÑA MENDIKO
SASKIBALOI SAILEKO PRESIDENTEA

"Buila egiten dabilzan horien ondoan jartzen gara, baretu daitezen"

"Bai, gure harmailetan ere bizi izan ditugu esperientzia desatseginak, nahiz eta ez diren Santurtziren gertatutakoaren mailara iritsi. Gainera, EBA moduko kategoria batean bi epaile izaten dituzte eta kantxan bertan bi lagun izanda hanka-sartzeak egitea zailagoa izaten da. Baina gureak bezalako kategorietan epaile bakarra egoten da, eta pertsona bakarrak ezinezkoa du kantxan gertatzen den guztia ikustea. Hala, askotan, harmailetatik jokaldiak hobeto ikusten

dira, eta erabakiak kontrakoak direnean jendea berotzen joaten da. Bada, gutxi batzuk izaten dira buila egiten dutenak, eta, halakoetan, zuzendaritzako ordezkariaren bat euren ondoan esertzen da, presio apur bat egiteko, eta baretu daitezen eskatzeko".



ALAIN ANTON
SASKIBALOI EPAILEA

"Epailea ez dago kantxetatik kanpora justizia egiteko"

"Santurtziko gertaeraren harira, badago asko harritzen nauen kontu bat. Izan ere, gerta daiteke jokalariei batek, berotan, pultsazioak topera dituztenean, halako zerbait egitea; txarto dago, baina ulergarriagoa izan daiteke. Hala ere, partidua amaitutakoan, jendea dutxatu ostean, hotzean... Horrek beste zerbait erakusten du.

Bestalde, halakoak, normalean, urrun entzuten ditugu, eta, sarritan, beste kirol jarduera batzuetan. Baina, saskibaloian izan dela ikusten duzunean, gertaera izan den kantxa ezagutzen duzunean, epailea nor den dakizunean... konturatzen zara gertu izan dela. Egia da halako muturreko gertaerak ez ditugula egunerokotasunean bizi izaten, baina urtean 40-60 partidua epaitzen dituzunean, bakarren bat beti okertzen zaizu. Zein den konponbidea? Galdera ona da hori, baina gizartera zabaldu beharko litzateke".

"Oviedo eta Reala, klub gisa, oso antzekoak dira"

ANDONI UGARTE OVIEDO B TALDEKO JOKALARIA

FUTBOLA Oñatiarra ondo moldatu da Oviedoko klubera; jokatzeko dabil eta gol bat ere sartu du jada; Realeko harrobiko jokalariek taldekide ohiak izango ditu aurrean bihar

Xabier Urzelai OÑATI

Bihar (18:00) Zubietan kanpotar moduan jokatu du Andoni Ugarte (Oñati, 1995). Duela gutxira arte taldekide eta lagunak izan direnak kontrario izango ditu, eta partidu berezia izango da, zalantzarik barik: "Nahiz eta berdegunean ez den oparirik egongo". Uztailean utzi zion Reala ordezkatzeari, eta, oraingoan, ez da damutu.

Zer moduz Oviedon?

Ondo, nahiko erraza izan da klub honetara moldatzea. Klima Euskal Herrian dugunaren oso antzerakoa da, eta klub gisa ere Oviedo eta Reala oso antzekoak dira. Akaso, kirol instalazio aldetik ez daude maila berean, nahiz eta berdeguneak oso egokira onen egoten diren. Eta filosofia aldetik antzekotasun handia dute, harrobiari ematen zaion garrantziagatik, etxeko jokalar asko daudelako, jende sana dagoelako...

Reala uzteak beti ematen du beldur apur bat...

Bai, halaxe da. Baina azken urtean ez nuen askorik jokatu, eta hori zen nire helburuetako bat, berriro ere sentsazio onak errekuperatu gura nituen, eta horretan nabil hemen. Partiduak jokatzeko nabil, eta horrela deanean, normalean, baikorrak izaten gara. Oraingoan, behintzat, ez naiz damutu Oviedora etorri izanagatik.

Hasierako hamaikakoan titular, eta golegile, gainera. Puntu bat balio izan zuen hamargarren jardunaldian Leioaren kontra sartutako golak.

Pena, puntu bat beharrean ez zirelako hiru izan [Barre]. Gogoan dut euri mordoan egin zuela partiduan zehar, eta baita partidu aurretik ere. Ur mordoan zegoen berdegunean, eta zaila zen baloia jokatzeko. Bada, korner erdiraketa batean sartu nuen 1-0eko, buruz. Ondoren, baina, partidu berdindu egin ziguten, eta zapo gazi-gozo horrekin geratu



Andoni Ugarte, aurtengo denboraldian. OVIEDO CD

"ANSEREN KONTRAKO PARTIDUA BEREZIA IZANGO DA, BAINA BERDEGUNEAN EZ DAGO LAGUNIK"

nintzen. Partidu irabazi izan bagenu, eta nik sartutako golari esker...

Bigarren B mailara iritsi berriak zarete, eta aurreikusitako emaitza txukunagoak batu dituzue orain arte.

Halaxe da, bai. Klubarendako garrantzitsua da bigarren taldea kategorian honetan izatea, jokalariek goiko taldera igotzen dituztenean salto horren handia izan ez dadin. Eta lehenengo taldean ez dituzte horrenbeste jokalarik; hau da, edozein arazo dagoenean, beheko taldeko jokalariek erabiltzen dituzte. Hori motibagarria da jokalariondako.

Oso ondo hasi zenuten liga, eta erdialdean zaudete orain.

Azken lau partiduetan ez dugu partidurik irabazi -hiru partidu berdindu dituzte-, eta hor galdutako ditugu aurrealdeko postuak.

Liga hasieran, ez genekien taldea zer emateko gauza izango zen, eta ez geneukan garbi non egongo ginen. Hala ere, garbi daukagu gure helburua mailari eustea dela, eta, azken batean, halako liga luze batean partiduek zure lekuan jartzen zaituzte.

Asteburuan Sanse izango duzu aurrean, orain arte defendatu duzun taldea.

Bai; zalantza barik, partidu berezia izango da niretako, eta, gainera, bi taldeak garaipen gosez gaude, azken jardunaldietan ez ditugu eta gura moduko emaitzak batu. Ligan ondo hasi ginen gu, baina, esan moduan, azken partiduetan, hiru partidu berdindu ditugu eta hor puntu askok egin digute ihes. Eta azken partidu galdu egin genuen. Sanse ez dago gu baino hobeto; horrenbestez, berdegunean ez da oparirik egongo.

Zelan daramazu kanpoan bizi izatearena?

Ondo. Gainera, gure multzoan Euskal Herriko talde mordoan dago; horrenbestez, kanpoan jokatzeko dugunean, berez, ni etxean jokatzeko nabil [Barre]. Halakoetan, ahal dudanean, Oñatin geratzen naiz pare bat egunez.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONA.

Mutriku-Mondra

Zapatua. 16:00. San Mig.

Bergara-Aretxabaleta

Zapatua. 15:30. Agorros.

ERREGIONAL PREFERE.

Mondra-Urola

Zapatua. 16:30. Mojategi.

Beasain-Aloña Mendi

Zapatua. 15:30. Loinaz.

Aretxabaleta-Antzuola

Domeka. 16:30. Ibarra.

EMAKUMEZKOEN ERRE.

Leintz Arizmendi-Eibar

Zapatua. 18:30. Mojategi.

Zumaia-Bergara

Domeka. 17:30. Zumaia.

LEHEN ERREGIONALA

Elgoibar-Arizmendi

Zapatua. 17:00. Mintxeta.

Aloña Mendi-Zarautz

Zapatua. 18:00. Azkoag.

Urki-Bergara

Zapatua. 16:00. Unbe.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELK.

Eskoriatza-Soloarte

Zapatua. 16:30. M.Muñoz

Zirauntza-Mondrate

Zapatua. 17:00. Araia.

Aretxabaleta-Labasti.

Domeka. 12:00. Ibarra.

OHOREZKO GAZTEAK

Zierbena-Eskoriatza

Zapatua. 16:00. Zierbena.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

Eskoriatza-Jaixki

Zapatua. 18:30. M.Muñoz

GIP. BIGARREN MAILA

Antiguoko-Mondrate

Zapatua. 16:30. Donostia.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELK.

Ford Mugarri-Ereintza

Zapatua. 18:30. Iturripe.

Ugeraga-Fagor Industr.

Zapatua. 20:00. Urduliz.

EUSK. TXAP. EMAKUM.

Aloña Mendi-Basauri

Zapatua. 16:30. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

Soraluce BKE-Elgoibar

Zapatua. 17:45. Bergara.

GIP. BIGARREN MAILA

Saieko-Aloña Mendi

Domeka. 10:00. Donostia

Bergara-Leizaran

Zapatua. 19:15. Labegar.

SASKIBALOIA

EBA

MU-Ardoi

Domeka. 18:30. Iturripe.

GIPUZKOAKO SENIORRAK

Mekalki Aloña-Dolphins

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

GIP. BIGARREN MAILA

Aide Zahar.-Bergara S.

Domeka. 12:00. Donostia.

GIP. HIRUGARREN MAILA

Mekalki Aloña-Ostadar

Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Mundarro-MU C

Zapatua. 18:00. Astigarra.

GIP. HIRUGARREN MAILA

Mekal. Aloña-Oiartzun

Zapatua. 18:00. Zubikoa

Eibar-MU C

Zapatua. 18:15. Ipurua.

EMAKUMEZKOAK

Cafes Aitona-Eskoriatza

Zapatua. 20:00. Donostia.

PILOTA

ESKUZ BINAKAKOIA

Bergaran, domekan,

17:00etan hasita.

Retegi BI - Jaunarena

P.Etxeberria - Erostarbe

Elezkano II - Rezusta

Irribarria - Zabaleta

Dario - Martinez

Ugalde - Irusta

GIPUZKOAKO TXAPELK.

Aretxabaletan. Gaur,

18:00etan hasita:

Gazteak eta kadeteak.

Oñatin. Gaur, 18:45ean

hasita:

Alebinak, gazteak,

kadeteak eta seniorrak.

Joera negatiboa amaitzea dago jokoan biharko derbian

FUTBOLA Bergarak UDA hartuko du Agorrosinen; batzuk etxean dabilta txarto, eta besteak kanpoan makal

X.U. ARRASATE

Ohorezko Erregionaleko hamaikakoan jardunaldiak Bergararen eta Aretxabaletaren arteko derbia ekarriko du (zapatua, 15:30), eta bi taldeak daude, motibo ezberdinengatik, azken boladako joera negatiboa aldatzeko beharreakin.

Batetik, ohikoa ez bada ere, Bergara aspaldian ez da etxean horren makal ibili. Liga hasi dutenetik, partidu bakarra irabazi dute Agorrosinen -irailaren 23an, Mutrikuren kontra- eta puntu gehiago batu dituzte kan-

poan etxean baino. Horrekin batera, azken bi partiduak galtzetik datoz mahoneroak.

Bestetik, Aretxabaletak joan den astean arnasa hartu zuen etxean Hondarribiari irabazita, baina etxetik kanpora Santanoren mutilek badute zer hobetu, orain arte puntu bakarra lortu dute-eta kanpoan. Horregatik, joera negatibo horiek aldatzea egongo da bihar jokoan.

Mondrak, bestalde, laugarren postuan dagoen Mutrikuren zelaian jokatu du bihar (16:00, San Migel zelaia).

Mondragon Taldeak soinu banda estreinatuko du

'Humanity at music' izena du egitasmoak eta Mondragon korporazioak Arrasaten duen egoitzan aurkeztuko dute azaroaren 29an, 11:00etan. Proiektua gauzatzeko ezinbesteko izan diren Velazquez, Sarasua eta Mutuberria bertan izango dira

Amaia Zabala ARRASATE

Mondragon korporazioak *Humanity at music* egitasmoa jarri du martxan, kooperatibari sinfonia ezartzea helburu duen proiektua, hain zuzen. "Mondragon korporazioa beti dabil taldearen lankidetzeta eta elkar-lankidetzeta sustatzen, eta egitasmo hau musikaren bitartez sinergia berriak bilatzeko aukera egokia zela iruditu zitzaigun. Ondorioz, Fernando Velazquez musikagile bizkaitarrarekin jarri ginen harremanetan, eta, hari ekimena asko gustatu zitzaiola eta bere konpromisoa bagenuela ikusita, aurrera egin genuen", dio Javier Marcosek, Mondragon korporazioko komunikazio arduradunak.

Marcosek gaineratu du behin proiektuaren ideia buruan izanda, Euskal Herriko hainbat idazle eta bertsolarirekin jarri zirela harremanetan. "Elkar-lankidetzeta abian jarritako kultura egitasmoa da, esperientzia kooperatiboa kantatzeko, kontatzeko eta sentitzeko modu bat", azaldu du korporazioko komunikazio arduradunak.

'0 kilometro' kulturala

Marcosek dio korporazioaren urteurrenetan abestiren bat edo beste sortu dela, baina formatu honetan ez dela inoiz ezer egin,



Azaroaren 29an aurkeztuko duten liburuaren azala. MONDRAGON KORPORAZIOA

eta "proiektu ezberdin eta berritzailea" dela. Horretaz gain, euskaraz sortu eta ekoiztutako egitasmo bat dela azpimarratu du: "0 kilometro kulturala da, euskal kulturako hainbat agenteren kolaborazioa baitu". Jon Sarasuak sortu ditu kantu guztien letrak eta musika egilea Fernando Velazquez izan da, baina beste hainbat idazle eta bertsolarik ere hartu dute parte; esaterako Amets eta Maialen Arzallus, Onintza Enbeita, Andoni Egaña, Jone Uria, Julio Soto, Oihana Igoaran eta Xabi

Igoak. Horretaz gain, Kukai dantza taldeak eta Maite Mutuberria ilustratzaileak ere parte dute egitasmoan.

Bi adar nagusi

Proiektuak bi *item* nagusi izango ditu: batetik, proiektu musikalak; eta, bestetik, literatura. Proiektu musikalari dagokionez, Mondragon esperientzia kooperatiboaren soinu banda izango da. Zortzi piezak osatzen dute eta bakoitzak korporazioko arlo bati jarri dio doinua: kooperatibaren hastapenak, banaketa,

industria, finantzak, ezagutza, nazioartekotzea eta, azkenik, etorkizuna. Euskadiko Orkestra Sinfonikoak grabatu du eta abesbatza zein kooperatiba ezberdinetako abeslariak kantatu dute. Soinu banda hori liburuaren azal-hegalean azalduko den webgunean osorik entzun eta deskargatzeko aukera izango da.

Liburuari dagokionez, kooperatibaren esperientziaren gaineko liburu editatua izango da, aurrez aipatutako idazle zein artista ugariaren kolaborazioarekin, eta soinu bandaren sailkapen bera izango du. "Proiektu solidarioa izango da, gainera, liburu bakoitzeko euro bat Mundukide Fundazioarentzat izango baita", argitu du Marcosek.

Humanity at music egitasmoren bi atalak datorren ostegunean aurkeztuko dituzte eta artistez gain, bertan izango dira Mondragon Korporazioko Kongresuko eta Kontseilu Orokorreko presidentek. Horretaz gain, Durangoko Azokan ere izango du tartea egitasmoak, abenduaren 7an, 14:30ean, areto nagusian aurkeztuko baitute.

Iraileko ekitaldi "erraldoia"

2019ko irailaren 14an, Gasteizko Buesa Arenan musika eta dantza ikuskizun "erraldoia" eskainiko dute. "Batez ere, korporazioko langile, familia, bazkide eta hornitzaileei zuzendutako emanaldia izango da eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoak, Kukai dantza taldeak eta korporazioko kide eta langileek hartuko dute parte; guztia, Velazquezek zuzendurik", azaldu du Mondragon korporazioko komunikazio arduradunak. Bertan parte hartzeko, mezua bidali behar da helbide honetara: hatmusic@mondragoncorporation.com.

Euskal Herriko bikote gazteen dantza askatu txapelketa

Aurtengoa 41. edizioa da eta azaroaren 25ean 12:00etan Bergarako Seminarixoa izango da

Amaia Zabala BERGARA

Domeka honetan, 41. Euskal Herriko bikote gazteen dantza askatu txapelketa jokatu da Bergaran; Musika Eskolak Udaren laguntzarekin antolatu du. "16 urtetik beherako hemezortzi bikotek hartuko dute parte, eta, gehienak gipuzkoarrak badira ere, Gasteizko bikote bat eta Sopolako bikote bat ere izango dira", dio Nekane Gabilondok, Bergarako Musika Eskolako dantza arduradunak. Gipuzkoarrei dagokienez, Azpeitikoak, Lezokoak, Pasai Donibaneakoak, Villabonakoak Errezilgoak eta Oiartzungoak dira dantzariak.

Txapelketan, fandangoa Bergarako txistularien bandaren laguntzarekin eta arin-arina Estanga anai-arreba trikitilarien laguntzarekin dantzatuko dituzte. Antxon Mendizabalek, Estela Atorrasagastik, Idoia Besadak eta Nerea Vesgak osatuko dute epaimahaia eta idazkari eta jantzi epaile lanetan, berriz, Esti Iturria arituko da.

Parte hartzaile guztiek jasoko dute diru-saria eta irabazleek Bergarako Xanti Arrieta zeramikagileak eta Xabier Diaz de Zerio eskultoreak eginiko garaikurra jasoko dute. Jantzi egokiena ere sarituko dute.

ELKARRIZKETTAP

GOIENA TELEBISTA

KERMAN LEJARRAGA, BOXEOLARIA

MANU MARITXALARREK ELKARRIZKETATUTA

AZAROAREN 23AN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

XABI OROZ, DELTECO GBC-KO SASKIBALOI JOKALARIA

SARA GANDARAK ELKARRIZKETATUTA

AZAROAREN 28AN, EGUJAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

goiena
Zu hemen zaude.



Berrikuntza askorekin dator Durangoko Azoka

Abenduaren 5etik 9ra egingo dute 53.a; 158 parte-hartzailereren eskutik, eta Landako gunean izango diren 247 standetan, 439 ekoizpen berri izango dira, eta Ahotsenean guneko agertokian 70 musika taldek eta bakarlarik zuzenekoak eskainiko dituzte

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
DA! asko dira da aurtengo kultura plazak izango duen leloa. 304 liburu, 93 disko, 18 aldizkari eta bestelako argitalpen gehiago, horiek aurtengo Durangoko Azokan izango diren ekoizpen berriak; Autokoizleen plaza ere izango da aurten bosgarren urtez, eta 17 ekoizle batuiko ditu.

Ez dira, horiek, aurtengo aldi berrikuntza guztiak: iazkoan aurkeztu zuten Durangoko Azokako Sormen Bekaren irabazlea zein den jakinaraziko dute abenduaren 6an. "Urtero emango dugun bekak euskarazko kultur produktu baten sorkuntza hasieratik amaierara garatzen lagunduko du; lehenengorako aukeratu dugun gaia literatura izan da, eta oso pozik gaude izan duen harrerarekin, kalitate oneko 28 lan jaso ditugu. Beka irabazleak 2019ko Durangoko Azokan aurkeztuko du emaitza", azaldu du Gerediaga elkarteko presidente Nerea Mujikak.

Aldaketak hainbat gunetan

Azkenengo urteetan moduan, zortzi gune izango dira: Areto Nagusia, Ahotsenea, Saguanbara, Plateruena, Irudienea, Szenatokia, Kabi@ eta Azoka TB. Guneen ezaugarriei eta kopapenari dagokienez, baina,



Gerediaga elkarteko Nerea Mujika, erdian, Azokako guneetako arduradunekin. G. E.

hainbat aldaketa izango direla aurreratu zuten martitzenean Landako Gunean egin zuten aurkezpenen: "Landako barrura eramango dugu teknologia berriekin lotutako Kabi@, orain arte Azoka TBko platoa izan den tokira, eta Azoka TB aipatuta, esan beharra dago orain arte eskaini dugun formatua guztiz aldatu dugula". Goiena telebistako programazio zuzendari eta Azoka TBko koordinatzaile Oihane Agirrek gaineratu du Azoka TB ibiltaria izango dela: "Azokako guneetan gertatzen

dena ikus-entzunezko formatuan jasotzea da helburua. Hainbat gunerekin elkarlanean, telebistak propio sortuko ditu edukiak; adibidez, Plateruena gunearekin batera, *Hautsi bolumena* musika saioa. Saio hori, *Azokan gaur* eta bestelako ekoizpen gehiago ikusteko aukera izango da egunero, 21:30etik aurrera, tokiko telebistetan –Debagoienean, Goiena telebistan–. Era berean, saioak nahieran ikusteko aukera ere izango da Azokako atarian –*Durangokoazoka.eus*–, eta Azokaren sare sozialetan ere bai".

Murutik, txalaparta eta alboka doinuak Euskaraldiaren alde

Arrasateko Ttakun txalaparta taldeak zapatuan egingo du urteurrena borobilduko duen 'Muruparta' ekimena

A. A. ARRASATE

Udalatzen egin zuten lehenengoz, 2014an, eta hurrengoan Kurtzetxikira eraman zuten ekimena; bi urteko geldiuonearen ostean, bihar, zapatua, egingo dute, Murun, hirugarrena. "25. urteurre-

na ospatzen ari gara aurten, eta zapatuan borobilduko ditugu urteurrenako ospakizunak. Bailara guztia gonbidatu gura dugu, batetik, Euskaraldiarekin bat egiten duelako, eta bestetik, Murura herri askotatik samur

igo daitekeelako; haurrekin igotzeko modukoa da", azaldu dute Ttakun taldekoek.

Arimazubi plazatik abiatuko dira, 10:00etan, eta 11:30 inguruan Muruko tontorrean egotea da asmoa: "Txalaparta bat jarriko dugu han, eta albokariak ere izango dira. Taldeko kideok saio librean egingo ditugu, baina txalaparta probatu gura duten guztiek izango dute horretarako aukera. Horrez gainera, guztiontzako sagardoa eta txorizoa ere eramango dugu".

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko azaroko sariak!



Ebook reader
Parte hartzeko sariaren izena: Ebook



'Gerrateko Ibilerak' liburua
'Gerrateko Ibilerak' Iñaki Alkain - Antonio Zabala
Parte hartzeko sariaren izena: Liburua

Sarrerak
Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz
ARRIKUTZ

Otarrea
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.hanremandenda.org
Bazkide Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileran arloan egingo da zozketa.

Irabazlearen izena (DPE 151000) argia izan behar du, jaiaren egunetik aurrerantzat Goiena Foruakoa Zerkatuaren Itzuliaren ostean. Irabazlearen izena Goiena Foruakoa Zerkatuaren Itzuliaren ostean argia izan behar du. Irabazlearen izena Goiena Foruakoa Zerkatuaren Itzuliaren ostean argia izan behar du. Irabazlearen izena Goiena Foruakoa Zerkatuaren Itzuliaren ostean argia izan behar du. Irabazlearen izena Goiena Foruakoa Zerkatuaren Itzuliaren ostean argia izan behar du.

Irabazi bi lagunendako otordua

ETXEAUNDI JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatekoa

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udalari esker

"Hamaika amaren seme (alaba)" antzezlanerako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokia | Abenduaren 2an | 19:30ean

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "Antzezlan" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileran arloan egingo da zozketa.

Irabazlearen izena (DPE 151000) argia izan behar du, jaiaren egunetik aurrerantzat Goiena Foruakoa Zerkatuaren Itzuliaren ostean. Irabazlearen izena Goiena Foruakoa Zerkatuaren Itzuliaren ostean argia izan behar du. Irabazlearen izena Goiena Foruakoa Zerkatuaren Itzuliaren ostean argia izan behar du. Irabazlearen izena Goiena Foruakoa Zerkatuaren Itzuliaren ostean argia izan behar du. Irabazlearen izena Goiena Foruakoa Zerkatuaren Itzuliaren ostean argia izan behar du.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu zaitetz: 2018 (azarotik aurrera): 15€.
Deitu: 943 25 05 05. kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denek irabazle!

ASTE A GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

KERMAN LEJARRAGA BOXEOLARIA EZAGUTZEN

'Elkarrizketa' Egubakoitza, 21:30 eta 23:30



GOIENA

HAINBAT GAIRI BURUZKO EZTABAIDA

'Harira eztabaida' Egubakoitza, 23:00

EGUBAKOITZA, 23

10:00 Hemen Debagoiena
11:00 Euskaraldia 9
11:30 Hemen Debagoiena
12:30 Elkarrizketa: Zuriñe Hidalgo
13:00 Kantari Donostia 1
13:30 Hemen Debagoiena
14:30 Albisteak
14:45 Elkarrizketa: Eneko Sagardoy
15:15 Hemen Debagoiena
16:15 Albisteak
16:30 Onein
17:00 Albisteak
17:15 Elkarrizketa: Zuriñe Hidalgo
17:45 Albisteak
18:00 Hemen Debagoiena
19:00 Txanbaxiak 7
19:30 Erreportajea: Gerra etxe atarian
20:00 Hemen Debagoiena
21:00 Euskaraldia 9
21:30 Elkarrizketa: Kerman Lejarraga
22:00 Hemen Debagoiena
23:00 Harira eztabaida

ZAPATUA, 24

09:00 123 Hemen da Miru
09:30 Txanbaxiak 8
10:00 Kantari Donostia 2
10:30 123 Hemen da Miru
11:00 Hemen Debagoiena
11:30 Harira: Agurme Barruso
12:00 Elkarrizketa: Zuriñe Hidalgo
13:00 Euskaraldia 9
13:30 Elkarrizketa: Kerman Lejarraga
14:00 Harira eztabaida
15:00 Hemen Debagoiena
16:00 Erreportajea: Gerra etxe atarian
17:00 Kantari Donostia 2
17:30 Txanbaxiak 8
18:00 Elkarrizketa: Kerman Lejarraga
18:30 Euskaraldia 9
19:00 Harira eztabaida
20:00 Kantari Donostia 2
20:30 Harmailatik
21:00 Elkarrizketa: Zuriñe Hidalgo
21:30 Euskaraldia 9
22:00 Hemen Debagoiena
23:00 Erreportajea: Gerra etxe atarian

DOMEKA, 25

09:00 Txanbaxiak 8
09:30 Kantari Donostia 2
10:00 Txanbaxiak 8
10:30 Ireki Kaxa
11:00 123 Hemen da Miru
11:30 Harmailatik
12:00 Asteko errepasoa
12:30 Euskaraldia 9
13:00 Harira eztabaida
14:00 Elkarrizketa: Kerman Lejarraga
14:30 Erreportajea: Gerra etxe atarian
15:00 Euskaraldia 9
15:30 Harmailatik
16:00 Asteko errepasoa
16:30 Elkarrizketa: Zuriñe Hidalgo
17:00 Harira: Agurme Barruso
17:30 Hemen Debagoiena
18:30 Asteko errepasoa
19:00 Ireki Kaxa
